



2007. urteko Txostena

07

**CAF**

CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A.  
ETA CAF TALDEA OSATZEN DUTEN MENDEKO ELKARTEAK

# Aurkibidea

<u>Lehendakariaren eskutitza</u>	<u>2</u>	<u>Administrazio-Kontseiluaren onarpena</u>	<u>82</u>
<u>Talde Bateratuaren Kudeaketa Txostena</u>	<u>6</u>	Administrazio Kontseiluak Batzar Nagusiak onar ditzan aurkeztu dituen Erabakiak	83
· Emaitzak	7	<u>Emaitza Aplikazio Proposamena</u>	<u>84</u>
· Merkataritza-jarduera	8	<u>Administrazio Kontseilua</u>	<u>85</u>
· Industria-jarduera	10	<u>Informazio Osagarria</u>	<u>87</u>
· Giza Baliabideak eta ingurumenekoak	12	· Egoera Balantzeak	88
· 2007. urteko inbertsioak	13	· Galdu-irabazien kontuak	90
· Garapen teknologikoa	14	· Burtsari buruzko informazioa	91
· Arriskuak kudeatzeko politika	16		
· Sozietateari buruzko informazioa	19		
· Etorkizuna	23		
· Ondorengo gertaerak	24		
<u>Ikuskatzailearen eskutitza</u>	<u>26</u>		
<u>Talde Bateratuaren Urteko Kontuak</u>	<u>29</u>		
· Egoera-Balantze Bateratuak	30		
· Galdu-Irabazi bateratuetako kontuak	32		
· Ondare Garbi Bateratuko aldaketen egoera	33		
· Esku-diruaren fluxu bateratuen egoerak	34		
· Memoria	35		



CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A.  
ETA CAF TALDEA OSATZEN DUTEN MENDEKO ELKARTEAK

**2007.** urteko Txostena

*Argitalpen honek CAF eta bere Mendeko Sozietateen dokumentazio legala jasotzen du eta frantsesez, gaztelaniaz, ingelesez eta CD-ROMean ere argitaratu da.*

*[www.caf.net](http://www.caf.net) helbidean CAFi eta bere produktuei buruzko informazioa nahiz akziodun eta inbertitzaileei legez ezarritakoa aurki daiteke.*

## Lehendakariaren eskutitza



Akziodun estimatu hori:

Aurreko urteotan bezala, Akziodunen Batzar Orokorraren Onarpenera jartzen ditugun 2007ko Ekitaldiko Kudeaketa Txostenaren eta Urteko kontuen aurkezpena dela eta natorkizu.

Amaitu den urteari buruz oso balorazio positiboa egiten du CAFek. Izan ere, salmentak asko igo dira, aurreko ekitaldietakoekin bat etorritik, eta are irabazi-maila handiagoa lortu dugu. Halaber, 2007.12.31n, eskaera-zorroa inoiz baino handiagoa zen. 2007aren itxierako zifra ekonomikoak eta aurreko urteetakoak kontuan hartuta, lortutako emaitzengatik pozik egoteko moduan gaude.

Hauek dira 2007ko ekitaldiko alderdi eta daturik garrantzitsuenak:

Taldearen emaitza positiboa, zergak ordaindu ondoren, 87,6 milioi euro da, eta horrek zergak ordaindu aurretiko 98,0 milioiko irabazia adierazten du, iazkoa baino %130 handiagoa, alegia. Bestetik, interesak, zergak eta amortizazioak ordaindu aurretiko irabazia (Ebitda), 101,2 milioitara iritsi da, aurreko urtearekin alderatuz

(61,8 milioi), hazkunde handia izan duelarik. Zergak ordaindu aurretiko cash flow-a 112,4 milioikoa izan da.

Emaitza horiek kontuan izanik, dibidenduak banatzea proposatu zaio Akziodunen Batzar Orokorrari: akzioko 8,5 euroko zenbateko gordina.

2007an, Taldeak 874,5 milioi euroko salmentak izan ditu, aurreko urtean baino %8,5 handiagoak.

Bestetik, merkataritza-arloan gogotik jardun du Taldeak, eta 3.410 milioi euroko eskaera-zorroaren emaitza izan du ekitaldiaren amaieran. Zifra horrek markak hautsi ditu, eta hurrengo urteetarako Konpainiarentzako jarduera-maila ona bermatzen digu.

Hauek izan dira 2007ko ekitaldiko esleipen eta kontratazio garrantzitsuenak, barne-merkatuari dagokionez: laugarren belaunaldiko aldiriko 30 Civia tren egitea eta eskualdeko 23 TRD trenen birgaitzea Renferentzat; Gasteizen zerbitzua eskainiko duten %100 zoru baxuko 11 tranbia-unitate Euskotrenentzat; hirugarren serieko 9 unitate Bilboko Metrorako; 5 tranbia-unitate Sevillarako eta trakzio diesel elektriko mistoko teknologia modernoenerako 9 lokomotora Fesur-entzat. Horrekin guztiarekin, sendotu egin du CAFek barne-merkatuan zuen lidergoa. Halaber, posizio hori hartzen laguntzen dute, gero eta gehiago, Renferekin eta beste administrazio batzuekin trenen mantentze-lanetarako kontratuak.

Esportazioaren atalean ere oso emankorra izan da jarduera komertziala. Aipatzekoak dira lan hauek: Edinburgorako 27 tranbia-unitate egiteko kontratu-esleipena; Antalyarako (Turkia) 14 tranbia-unitate egiteko kontratua; errodadura neumatikoko 18 metro-unitate egitekoa Txileko Santiagoko Metrorako; 9 metro-unitate egitekoa STCrako (Mexiko Hiria), eta Turkiarako abiadura handiko trenak egiteko kontratuaren barruan beste bi unitate gehigarri egiteko eskaera.

Halaber, aipatzekoa da Mexikon, Cuautitlán-Buenavista linean, trenbide-zerbitzua eramateko CAFi esleitutako laneko azpiegitura eta material mugikorra eraikitzeke egindako aurrerapenak. Hiri inguruko garraio publikoko

sistema berri horretarako behar diren azpiegitura eta ekipo guztiak eraikitzeke jarduerak gidatzea eta zuzentzea, nahiz zerbitzua indarrean jartzen denetik hogeita hamar urtez haren ustiapenari ekitea, Konpainiarentzat erronka bat izan da.

Errodajeei dagokien ere salmenta-zifrak asko igo dira iazko urtearekin alderatuta; zehazki, %26.

Nabarmentzekoak dira esportazioko eskaerak, fakturazio osoaren %70 inguru baitira, Frantzian, Europako zenbait administrazioetan, Ipar Amerikan eta Asian hainbat kontratu lortu direlarik.

Joan den ekitaldiko entrega garrantzitsuenetako batzuk hauek dira: estatu espainiarrean, bigarren belaunaldiko aldiriko Civia unitateak Renferentzat, eta Madrilgo, Palma de Mallorcako, Sevillako eta Bartzelonako metroetarako hainbat tren-serie.

Nazioarteko merkatuan, beriz, nabarmentzekoak dira Erromako eta Bruselako metroetarako egindako tren-entregak, Pittsburgherako (AEB) unitate arinak berritzeko kontratua eta aldiriko trenen entrega lehen aipatutako Mexiko Hiriko metrorako.

Gure Konpainiaren eta gure jarduera-sektorearen etorkizun hurbilari begira, azkeneko hausnarketa labur batzuk egin nahiko nituzke:

2007ko ekitaldiaren itxierako eskaera-zorroari esker, hurrengo urteei gure instalazioetan jarduera-maila handiarekin aurre egingo diegu. Gainera, 2008ko ekitaldiari buruz ditugun lehen datuek, salmenta eta irabazi-zifrak handitzeko azken urteetan dagoen joerari eutsi egingo diogula aurreratzea posible egiten dute.


Bestalde, merkatuan gero eta presio handiagoa dago, eta horrek hobekuntza-erronka berriei aurrea hartzera eta lehendik ezarritakoei eustera behartzen gaitu. Beraz, irtenbide teknologikoki aurreratuak eta aldi berean prezio lehiakorra dutenak bilatzen jarraitu behar dugu, gero eta nazioartekoagoa den tren-sektorean ongi aritzeko.

Lan hau ez da batere erraza. Gure langileen garapen profesionala eta gure proiektuarekiko atxikimendua sustatuko duen lidergo arduratsua behar da. Hori dela

eta, Konpainian lan egiten duten guztiei nire eskerrak ematen dizkiet beren ahalegin eta arduragatik, CAFen martxa onaren eta azken urteetan lortutako emaitza positiboan emaitzen giltzarri eurak baitira, zalantzarik gabe. Konfiantza osoa dut, bestalde, enpresaren helburu orokorrekin bat eginik jarraituko dutela; beraz, baikor ekin diezaiokegu, nire ustez, etorkizun hurbilari.

Amaitzeko, berriro ere eskerrak ematen dizkiet gure Akziodunei, gure Konpainiari beste behin ere eman dioten bultzadagatik, zeinek gure erronka guztiak arrakastaz gainditzeko, betiko kemen eta ilusio berdinarekin lan egin dezagun animatzen gaituen.

Eskerrik asko.



José María Baztarrica Garijo  
Lehendakaria



## HIRIAK/ HIRI-INGURUAK

### Metroak

- Aljer
- Bartzelona
- Bilbo
- Brusela
- Hong Kong
- Madril
- Malagakoa
- Mexiko
- Palma
- Erroma
- Txileko Santiagokoa
- Sao Paulo
- Sevilla
- Washington

### Unitate artikulatuak

- Amsterdam
- Buenos Aires
- Monterrey
- Pittsburgh
- Sacramento
- Valencia

### Aldirikoak

- Red Nacional de Ferrocarriles Españoles (RENFE)
- Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos (ET/FV)
- Ferrocarriles Españoles de Vía Estrecha (FEVE)
- Ferrocarrils de la Generalitat de Catalunya (FGC)
- Secretaría de Comunicaciones y Transportes (México)
- SFM de Mallorca
- Caminhos de Ferro Portugueses
- Finnish Railways (VR Ltd)
- Heathrow Airport Express
- Hong-Kong Airport Express
- Irish Rail
- Northern Ireland Railways
- Northern Spirit

### Tranbiak

- Antalyakoa
- Bilbo
- Edinburgokoa
- Lisboa
- Sevilla
- Valentzia
- Vélez-Málaga
- Vitoria

## LINEA HANDIAK

### Abiadura Handikoak

- Abiadura handiko eta zabalera aldakorreko S-120 trenak (RENFE)
- Madril-Sevilla lineako Abiadura Handiko Trenak (AVF)
- Lanzadera-trenak S-104 (RENFE)
- Abiadura handiko trenak Turkiarako

### Intercity

- ADR tren baskulagarriak
- Diesel tren Aljeriarako
- Intercity, Push-Pull serbitzua

### Bidaiarientzako kotxeak

- Konpartimentuan banatutako bagoiak eta erosotasun handiko aretoa
- Ohe-bagoiak eta ohatzeak
- Jatetxe-eta kafetegi-bagoiak





Nazioartean aitzindari, teknologia, kalitate eta zerbitzuari esker.

*Talde Bateratuaren  
Kudeaketa Txostena*



## Emaitzak


Galdu-irabazien kontuak **87.626 mila euroko** saldo positiboa eman du, zergak ordaindu ondoren, hau da, aurreko ekitaldian baino %153 inguru gehiago.

Hauek dira 2007ko ekitaldiko parametro ekonomikoak:

- Galera-irabazien kontuak 87.626 mila euroko emaitza positiboa ekarri du, zerga ondoren; aurreko ekitaldian baino %153 inguru handiagoa.
- Ibilgetuaren amortizazioak 15.120 mila eurokoak dira. Horiek, ekitaldiko zerga aurreko emaitzari gehituz gero, 113.111 mila euroko cash-flow-a ematen dute.
- Negozio-zifraren zenbatekoa 874.474 mila eurokoa izan da, aurreko ekitaldikoa baino %8 handiagoa.
- Eskaera-zorroa, urte-bukaeran, 3.410.124 mila eurokoa zen, aurreko urtekoa baino handiagoa. Horri esker, enpresak behar bezala jardun ahalko du.
- Emaitzak aplikatzeko proposamenak aurreko ekitaldietako politikari jarraitzen dio, enpresaren ondareari gehitzekoari alegia, eta, zerga ondorengo mozkinetatik 29.139 mila euro dibidendu gisa banatzea eta 73.942 mila euro borondatezko erreserbetara eramatea proposatu da.
- Sozietate nagusiaren Baliabide Propioei, mozkinak banatzeko proposamena onartuz gero, erreserbetara eramango diren emaitzak gehituko zaizkie, eta, guztira, 261.079 mila euroko zenbatekoa egingo dute.
- Azkenik, eta lege araudia betetzeko, CAFek jakinarazten du 2007an ez berak ez bere enpresa filialek, ez dutela enpresaren akziorik ez erosi, ez eduki.

### Zergak ordaindu aurreko Taldearen emaitza eta cash flow-a


(mila euro)



\* 2003ko datu bateratuak  
2004ko, 2005eko, 2006ko, 2007ko datu bateratuak, NKA

### Taldearen Baliabide propioak


(mila euro)



\* 2003ko datu bateratuak  
2004ko, 2005eko, 2006ko, 2007ko datu bateratuak, NKA

### Dividenduen/akzioen bilakaera

(eurotan)



## Merkataritza-jarduera

Ekitaldi-amaieran, **3.410 milioi eurokoa** zen eskaera-zorroatik.

Esportazioaren merkatua jarduera osoaren %30 da.

Aurreko ekitaldietan bezala, 2007an ere handia izan zen merkataritza-jarduera: 970 milioi euroko kontratuak egin ziren, eta oreka nabarmena lortu zen barne-merkatuaren eta esportazioaren artean. Ekitaldiaren amaieran, eskaera-zorroatik 3.410 milioi eurora heldu zen.

Beste behin ere, hautsi egin zuen iaz CAFek bere eskaera-zorrorik handienaren marka, eta esportazioko merkatua hazi egin zen, alor horretako eskaerei esker (guztizkoaren %30a).

RENFEreko kontratazioari dagokionez, hauek dira daturik aipagarrienak: aldirietako Civia IV 30 tren, eta hiru bagoiko eta CAF teknologiadun trakzio-ekipoko Civia III tren prototipo baten esleipena.

Barne-merkatuari dagokionez, datu aipagarria da karga-garraioko FESUR enpresarako diesel

elektriko/elektriko motako bederlatzi lokomotoren kontratazioa. Kontratazio horrek berretsi egiten du CAFen estrategia, eta BITRAC izeneko linea-lokomotoretarako plataforma teknologiko baten hastapena dira.


Bestalde, Bilboko Metrorako 9 tren kontratatu dira. Berrikuntza oso garrantzitsua du eskari horrek: CAF teknologiako trakzio-ekipoak izango dituzte trenak. Beste urrats bat, beraz, alor horretan egin dugun erabaki teknologikoaren bidean.

EUSKOTRENEkin, berriz, Gasteizerako 11 tranbia egiteko kontratua izenpetu genuen (aurreko ekitaldiko txostenean esleipen horren berri eman genuen). Aipatzekoa da tranbia horiek ere CAF trakzio-ekipoak izango dituztela. FEVEk, bestalde, hamabi tren diesel kontratatu zizkigun.

Esportazioari dagokionez, aipatzekoa da 20 tren kontratatu dituela Txileko Santiagoko Metroak. Garrantzi berezia du kontratu horrek, bai obragatik bai merkatu horretan sartzea lortu duelako CAFek, aspalditik lortu nahi izan duen helburua izanik.


### Eskaera-kartera

(milioi euro)



### Negoio-zifra

(milioi euro)



\* 2003ko datu bateratuak  
2004ko, 2005eko, 2006ko, 2007ko datu bateratuak, NKA

Mexikoko Metrorako, berriz, 9 unitate eskatu dira. Beraz, eutsi egiten da bezero horrekiko loturari. Antalya hiritik (Turkia) hamalau tranbia eskatu dira, eta horrekin hasi zen CAFen ibilbidea atzerriko merkatuan produktu horri dagokionez.

Mantentze-lanei dagokienez, sendotzen jarraitzen du: eskaera-zorroaren %43ra iritsi ginen, hau da, %24 hazi ginen aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Kontratu berrietako mantentze-lanen esleipenari zor zaio, batik bat, hazkunde hori: FESURek, 9 lokomotoraren mantentze-lana, bost urterako (luzagarriak); RENFEk, 30 CIVIA IV unitaterena, 14 urterako; Mallorcako Metroak, 6 trenena, 17 urterako; Gasteizek, 11 tranbiarena, lau urterako.

Hiri-garraioari dagokionez, posizio sendoarekin jarraitzen dugu, eta tranbiaren aldeko apustuak ekarri du, urtearen hasieran, albiste onik: 27 unitate Edinburgorako, 30 urterako mantentze-lanak barne direla. Halaber, argitaratu berria da Madrileko Metrorako unitate kopuru handi baterako eskaintza. Aipatu dugun egoera dela eta, nahiko baikor ekin diezaiokegu eskaintzari.

Errodajeei dagokienez, oso maila positiboan dabilta salmentak, aurreko urteetakoan antzekoan.



## ***Industria-jarduera***

Abiadura handiko eta zabalera  
aldakorreko trenak,  
anezka-trenak, intercityak,  
aldiriko trenak, metroak, unitate  
artikulatuak, tranbiak,  
linea-lokomotorak.

2007an zehar, Palma de Mallorcako Metrorako azken 5 unitateak entregatu genituen, Erromako Metrorako azken 8 unitateak, eta Bartzelonako Metrotako azken 7ak (5000 seriekoak, 5. linearako).

Ekitaldi berean, berritutako 13 unitate entregatu genituen Pittsburgherako; 9 unitate Bartzelonako Metroko 1. linearako; zortzi Sevillako Metro Arinerako; 38 CIVIA II eta III aldirietako tren RENFERako; tentsio bakarreko 14 tren eta tentsio biko 36 (3.000 seriekoak) Madrileko Metrorako; lehen diesel trena Aljeriarako; 20 tren Mexikoko Lurpeko Trenerako, eta abiadura handiko lehen trena Turkiarako.

Beste proiektu batzuei dagokienez, aipatzekoa da oso aurreratuta daudela Aljerreko Metrorako lehen unitateen fabrikazio-lanak, baita RNFERako egiten ari garen abiadura handiko AVR tren erregionalenak ere; Bilboko Metrorako egituren fabrikazioa, berriz, hasi berria dugu.

Kontratatuta ditugun beste proiektu batzuei dagokienez, azpimarratzekoak dira RENFERentzat egiten ari garen tren erregionalen (dieselak eta elektrikoak) ingeniaritza-lanak, Gasteizko tranbia, Antalyako (Turkia) tranbia, Sevillako tranbia (Metrocentro), Kataluniako Generalitateko (FGC) trenbideetarako proiektu berria eta FESURentzako BITRACC lokomotorak.

Kontrataturako azken proiektuei dagokienez, aipatzekoa da RENFERen CIVIA IV proiektu berrirako eta Txileko Santiagoko Metrorako trenen ingeniaritza-lanak hasiak ditugula.

2007an zehar egindako ekoizpen nagusiak hauek izan dira:



## BAGOI-KOPURUA

Tren-unitatea (M+M) Palma de Mallorcako Metrorako	10
Tren-unitatea (2Rcp+2M1+2M2) Erromako Metrorako	48
Tren-unitatea (MA1+MB1+R+MB2+MA2) Bartzelonako Metrorako (S/5000, 5. linea)	35
Tren-unitatea (MA1+MB1+R+MB2+MA2) Bartzelonako Metrorako (S/6000, 1. linea)	45
LRV tren-unitatea (A+B), berritua, Pittsburgherako (AEB)	26
Tren-unitatea Sevillako Metro Arinerako (A+B+C+D+E)	40
Bost bagoiko CIVIA II aldirietako tren-unitatea (A1+A2+A3+A4+A5) RENFERako	105
Hiru bagoiko CIVIA II aldirietako tren-unitatea (A1+A2+A3) RENFERako	6
Bost bagoiko CIVIA III aldirietako tren-unitatea (A1+A2+A3+A4+A5) RENFERako	5
Tren-unitatea (M+R+N) Bruselako STIBrako	51
Sei bagoiko tren-unitatea (M1+R1+S1+S2+R2+M2) Madrileko Metrorako (S/3000, tentsio bakarreakoa)	84
Lau bagoiko tren-unitatea (M1+S1+R2+M2) Madrileko Metrorako (S/3000, bi tentsiokoa)	144
Diesel tren-unitatea (M1+R+M2) Aljeriarako	3
Tren-unitatea (M1+M2+R+N) Mexikoko Metrorako	61
Abiadura handiko tren-unitatea (TCF+TCB+MIF1A+MIF1B+MIF2+MIFC) Turkiarako	6
Bagoi atoiak (R) CIVIA trenentzako	3

**GUZTIRA** ..... **672**

## BOGIEAK

Altzairu soldatuzko xasisa (motorra + atoaia)	1.272
---	-------

## OSAGIAK

Ardatz muntatuak	5.457
Ardatz-gorputz solteak	3.760
Gurpilak	40.041
Garabi-gurpilak	443
Bandajeak	294
Krokagailuak	915
Erreduktore konponduak	77
Uztaiak	35

### Beste ekoizpen osagarri batzuk hauek izan dira:

Altzairua	43.345 t
-----------	----------

### Konponketa-arloan, hauek dira aipagarrienak:

Bogie-azterketa (S/550) Bilboko Metroan	32
TRD berrezartzea (M1+M2)	4
S/200 tren-unitatea (M-R-R-M) Euskotreneerako	12
Bogie-azterketa SFMn	3





## Giza baliabideak eta ingurumenekoak

Ahalegin handia egin dugu teknikari tituludunak kontratatzeko, bai sozietate nagusian bai taldeko filialetan, sozietate osoaren langile-kopurua handitu egin delarik.

Berotegi-efektuko gasen emisioak urterako esleitutako kopurua baino gehixeago izan ziren, baina ekitaldi honetarako eskubideen barruan.

Ekitaldi honetarako Trebakuntza Planean aurreikusitako jarduerak egin dira. Tituludunak ebaluatu eta garatzeko sistemaren berrantolaketari eta zuzendaritza-trebezien programei bultzada eman zaie, coaching-plan baten bidez.

2007ko ekitaldian, talde bateratuko plantillaren bilakaera hau izan da:

	Finkoak	Guztira	Urteko batezbestekoa
31-12-06	3.805	4.141	4.016
31-12-07	4.152	4.415	4.321


Aurreko ekitaldiko mailari eutsi dio sozietate nagusiko plantillak. Ahalegin handia egin dugu teknikari tituludunak kontratatzeko, bai sozietate nagusian bai taldeko filialetan, eta handitu egin da sozietate osoaren langile-kopurua.

Istripu-tasari dagokionez, 2006koaren maila berean ibili dira adierazleak, 2007ko ekitaldirako jarritako helburuen gainetik.

Prebentzio Planean aurreikusitako jarduerak gauzatu dira, eta aurrera egin da zenbait alorretan: arrisku espezifikoen ebaluazioa (ATEX araudia), arrisku psikosozialak eta kanpoko enpresetarako (LAP araudia).

Martxoan egin genuen Ingurumena Kudeatzeko Sistema Berrir Egiatzatzeko Auditoria, ISO-14001:2004 arauaren arabera.

**Enplegatuenak**  
(pertsoneko kopurua)




## 2007. Urteko inbertsioak

30.797 mila euro tara iritsi dira, produktibitatea eta laneko segurtasuna handitzera, nahiz ingurugiro-baldintzak hobetzera zuzendu direlarik gehienbat.

2007an, 30.797 mila euroko inbertsioak egin dira gure lantegietan –zenbateko horretan ez dago kanbio-tasaren bihurtze-eragina– eta aurreko

### Inbertsioak

(mila euro)



\* 2003ko datu bateratuak

2004ko, 2005eko, 2006ko, 2007ko datu bateratuak, NKA

urteetako inbertsio-erritmoei jarraitu zaie.

Inbertsioak, batez ere, produktibitatea, laneko segurtasuna eta ingurumen-baldintzak hobetzeko izan dira.

Inbertsio adierazgarrienak hauek dira:

- Ibilgailu Unitatean, berriz, hauek izan dira inbertsio nagusiak: Bogien Sailean, mekanizazio- eta pintura-sailen berrikuntza erabatekoa, eta fabrikazio-prozesuaren arrazionalizazioa; Ibilgailuen Akabera Sailean, berriz, egokitu egin dira muntaketa-lerroak, ahalmena eta produktibitatea handitzearren, eta pintura eta korindoitze-kabina berriak jarri dira.
- Errodaje Unitatean, bestalde, 2007ko ekitaldiko inbertsioen xede nagusia izan da tren-gurpilak forjatu, ijetzti eta tratamendu termikoa emateko prozesuen berrikuntza. Ekipo berriak erositara egin da, batik bat, berrikuntza hori: labe birakaria eta prentsak. Halaber, ijekzailu berria eta tratamendu termikoko lerroa jarri ditugu martxan. Horretarako, zenbait instalazio osagarri egokitu behar izan ditugu (hozte-sistema, potentzia elektrikoa...) eta obra zibil handia egin beharra izan dugu.
- Teknologia Sailean, diseinu-sistema berritzen eta hobetzen jarraitu dugu, eta handitu ere egin dugu, lanpostu gehiago sortuz. Halaber, kalkulu-potentzia handiagoa eman diegu zerbitzariari. Horrek, laneko zenbait tresnaren garapenarekin batera, ahalmen handiagoa emango digu proiektu berriak garatzeko.
- Azkenik, enpresaren hedapenari eta lantegi berrien sorkuntzari dagokienez, inbertsio handia egin da produkzio-instalazioen eraikuntzan.

## **Garapen teknologikoa**

Ekitaldiko lanik garrantzitsuenak **AVI 2015** (Abiadura Handi Elkarreragilea) proiektuarekin lotutakoak izan dira. Filial teknologikoen sendotzea ere azpimarratzeko modukoa da.

CAFen garapen teknologikotik azpimarratzeko alderdietako bat da CAFen barruan egiten zen jarduera izatetik CAF I+Gk (Euskal Teknologia Sareko enpresetarako I+G unitatea) gidatzen duen jarduera izatera pasatu dela, baina filial teknologikoen artean banatua.

CAF I+Gren (CAFeko teknologien oinarriko alderdien garapenari dagozkionak) jardueraren osagarri, filialen garapena koordinatzen du, sinergiak bermatu eta Taldeari ahalik eta emaitza orokor onenak lortzearren.

Bai CAF +IGren, bai filialen garapenei esker lankidetzak oso garrantzitsuak (bai zentro-

kopuruari, bai proiektuen tamainari dagokienez) hitzartu ditugu zenbait unibertsitate eta zentro teknologikorekin.

Ekitaldiko lanik garrantzitsuenak hauek izan dira: AVI 2015 (Abiadura Handi Elkarreragilea) proiektuari dagozkionak, eta 320 km/h-ko (UIC trenbidea) eta zabalera aldakorreko tren-proiektuaren hasiera, biak ere aipatutako proiektuan garatutako teknologien gauzapenak.

Korrante zuzeneko trakzio-ekipoen proiektuak eta haien probak, korrante alternoko proiektuaren hasiera eta seinalezatzeari dagozkion lanak dira ekitaldi honetako aipagarrienak.

Katenari gabeko tranbiak egiteari ere ekin diogu, eginkizun osagarri gisara, gero eta eskaera handiagoa dago eta.

Filial teknologikoen sendotzea ere azpimarratzeko moduko datua da. Bestalde, ekitaldi honetan hasi da lanean Trainelec, NEM (mantentze-lanetarako teknologiak) eta DSM4 sortu ditugu (softwaregintza).





Ekitaldiko proiektu nagusiak hauek izan dira:

- Malagako metro arina.
- Diesel trenak RENFEko zerbitzu erregionaletarako.
- Tren elektrikoak RENFEko zerbitzu erregionaletarako.
- Altzairu herdoilgaitz austenitikoko kaxak Mexikoko Metrorako.
- Aljerreko metroa.
- Civia III.
- Trakzio-ekipo propioko tranbiak Gasteizerako.
- Antalyako tranbiak.

Martxan jarri ditugu, halaber:

- Bitrac lokomotorak.
- Txileko Santiagoko Metroa.

Bestalde, jarduera komertzialaren (oro har) eta esportazioaren (bereziki) osagarri, zenbait aurreproiektu eta proposamen tekniko bultzatu ditugu. Hona hemen batzuk:

Espainiako merkaturako:

- Tranbiak Gasteiz eta Sevillarako (Metrocentro).
- CIVIA IV trenak RENFERako.
- Eskaintzak FEVErako.
- Tren-makina diesel-elektrikoak FESURerako.
- Bilboko Metroa (3. seriea).

Esportaziorako:

- *Push-pull* trenak Saudi Arabiarako.
- Tranbiak Antalyarako.
- Tranbiak Edinburgorako.
- Abiadura Handiko Trenak Turkiarako.
- Txileko Metroa.
- Mexikoko Metroa, A linea.
- Sao Pauloko Metroa
- Tren elektrikoak CPTMrako.
- Charles de Gaulle Espresa.
- Delhiko Metroa.



## **Arriskuak kudeatzeko politika**

Arrisku orokorrak kudeatzeko eta bestelako eremuetarako idatzizko politikak finkatu dira.

Sozietateak aurre egiten dien arrisku garrantzitsuenak honako kategorietan elkartu daitezke:

### **1. Izaera Finantzarioko arriskuak**

Merkatu finantzarioen ziurgabetasunari arreta berezia egiten dio CAF Taldeak, eta saiatzen da Taldearen errentagarritasun ziurgabetasun horrek eragin diezazkiokeen kalteak murrizten.

Taldearen Finantza Sailak identifikatu, aztertu eta estaltzen ditu arrisku finantzarioak, eta idatzizko politikak finkatzen ditu arrisku orokorrak kudeatzeko, baita alor jakin batzuetarako ere (truke-tasaren arriskua, interes-tasaren arriskua, likidezia-arriskua, eratorrien eta eratorri gabeen erabilera, likidezia-soberakinaren inbertsioa eta aurrekontu-desbideraketa).

### **a) Merkatu-arriskua**

Nazioartean dihardute CAF Taldeko sozietateek, hots, truke-tasaren arriskupean dibisekin eragiketak egiteagatik (dolarrekin eta euroarekin, batez ere). Truke-tasaren arriskua zer hauetatik dator: geroko transakzio komertzialak, aitortutako aktiboak eta pasiboak eta atzerriko eragiketetan egiten diren inbertsio garbiak.

Epeko kontratuak erabiltzen dituzte Taldeko sozietateek geroko transakzio komertzialek eta aitortutako pasiboek eta aktiboek sortzen duten truke-tasaren arriskua kontrolatzeko. Truke-tasaren arriskua sortzen da geroko transakzio komertzialak eta aitortutako pasiboak eta aktiboak Taldearen funtzionamendu-moneta (euroa) ez den beste batean egiten direnean.

Taldearen ohiko jarduera Taldearen funtzionamendu-moneta ez den besteren batean egindako kontratuetan merkatu-arriskua osorik estaltzea da. Estaldura horren helburua da dibisen gorabeheren eragina saihestea sinatutako kontratuetan, Taldearen emaitzak bere jarduera industrialaren eta zerbitzuaren isla zehatz izan daitezen.

Lehengai nagusiei dagokienez, obra berri baten esleipena ematean egiten du Taldeak lehengai-eskaria eta ixten du prezioa. Hartara, babesturik dago lehengaien prezio-igoerak kontratu-marjinetan izan lezakeen eragin kaltegarritik.







#### ***b) Kreditu-arriskua***

Kobratu beharreko kontu eta egiten ari garen lanik gehienak hainbat herrialdetako bezeroei dagozkie. Kasurik gehienetan, proiektuak aurrera egin ahala hainbateko ordainketak agintzen dituzte kontratuek.

Ohiko jarduera du Sozietateak kontratuen deuseztatze edo ez ordaintze arriskua aseguratzea ELGEtik kanpoko herrialdeetan. Horretarako, esportaziorako aseguru-polizak kontratatzen dira, ELGEko Hitzarmenak gai horietarako dituen arauen arabera.

Horrezaz guztiaz gain, Taldeak badu zenbait finantza-erakunderen konpromiso sendo hau: kobratu gabeko kontuak erostekoa, errekurtsorik gabe. Hitzarmen horietan, hainbateko bat ordaintzen dio Taldeak bankuari kreditu-arriskua bere gain hartzeagatik, baita interes eta marjina bat ere finantziatioagatik.

#### ***c) Likidezia-arriskua***

Likidezia-arriskuaren kudeaketa zuhurrak eskatzen du behar hainbat esku-diru eta balore negoziagarri edukitzea, baita hartutako konpromiso guztiei aurre egiteko finantza-baliabide izatea ere.

Honela kudeatzen da likidezia-arriskua CAF Taldean:

- Kontratu bakoitzaren autofinanziazio-mailarik ahalik eta handiena lortzen saiatuz.
- Erabili gabeko finantziatio-ahalmenari eutsiz.

#### ***d) Esku-diruaren fluxuen eta arazoizko balioaren interes-tasaren arriskua***

Besteren baliabideak erabiltzetik datorkio Taldeari interes-tasaren arriskua.

Ohiko politika du CAF Taldeak soilik egoera jakin batzuetan zorpetzea beste batzuekin, epe laburreko kanpoko baliabideen bitartez (merkatu-indize aldakorrek; normalean, Euribor). Horri esker, nabarmen murrizten da interes-tasa horren arriskua.

#### ***e) Proiektu-aurrekontuen desbideraketek dakartzaten arriskuak***

Eskaintzak egiteko erabili diren proiektu-aurrekontuen desbideraketak estaltzeko, kostu-sail bakoitzari buruzko informazio-sistema zehatza erabiltzen da, zeinak une oro konparatzen dituen sail horren aurrekontua eta proiektu bakoitzaren benetako kostu-egoera, horretarako berariaz sortutako barne-prozedura baten bitartez datu horien etengabeko segimendua eginez. Proiektuko partaide diren sail guztiek hartzen dute parte segimenduan.

#### **2. Ingurumen izaerako kalteak sortzearen ondorioz datozen arriskuak**

Ingurumena zaintzeko konpromiso erabatekoa du CAFek. Hori dela eta, Europako Batasuneko ingurumeneko ekintza-programaren printzipioak hartzen ditu aintzat: prebentzio-neurriak eta jatorriko zuzenketak. Sozietateak ekintza-programa bat abiarazi du ingurumenari dagozkion zenbait alderdiri ekiteko (eguratsa, isurketak, hondakinak; lehengai, energia eta ur-kontsumoa, eta zarata), eta ISO14001 ziurtagiria eskuratu du.

#### **3. Zerbitzuak berandu edo gaizki emateagatik beste batzuei kalte egiteko arriskuak**

CAFeko lantegi guztiek merkatuan dagoen teknologiarik berriena dute eta, ISO 9001 eta 9002 Arauei jarraiki, ekoizpena optimizatzeko teknikarik aurreratuenak erabiltzen ditu.

#### **4. Lan izaerako arriskuak edo lantegietako ondasun eta aktibo propioetan kalteak**

Laneko Arriskuak Prebenitzeko Sistema bat du CAFek, sozietatez kanpoko enpresa batek ikuskatzen duena. Prebentzio Sistemaren Eskuliburuan daude zehaztuta, besteak beste, arriskuen ebaluazioa, istripuen ikerketa, segurtasun-ikuskapenak, osasun-zaintza eta trebakuntza. Urteko Prebentzio Plan bat ere bada, prebentzio-ekintzak planifikatzeko.

Langileak trebatzeko plan bat ere bada CAFek.



## Sozietateari buruzko informazioa

### Balore-merkatuaren legearen 116 bis Artikuluaren aginduz eman beharreko informazioa

**a) Kapitalaren egitura, baita EBko merkatu arautu batean negoziatzen ez diren balioak ere, hala badagokio zer akzio-mota diren azalduz, eta akzio-mota bakoitzeko, dagozkion eskubide eta betebeharrak eta ordezkatzeko duen kapital sozialaren portzentajea.**

Estatutu Sozialen 5. artikulua agintzen duenez, 3,01 euroko balio nominaleko 3.428.075 akzio ditu Sozietateko kapital sozialak, serie bakar batean, guztiak harpidetuak eta ordainduak, eskubide eta betebeharrak berdinak dakartzatenak. Ehun akzio, gutxienik, eduki behar da Batzar Orokorretan parte hartu eta bozkatzeko eskubidea izateko. Ez dago CAFeko akzio bihurtu edo haiengatik truka daitekeen balore jaulkirik.

Ez dago mota desberdineko akziorik, ezta autozorrorik ere.

**b) Baloreak transmititzeko mugak.**

Estatutuek ez diote inongo mugarik jartzen kapital sozialeko baloreen transmisioari, betiere orain aipatuko ditugun arau hauek aplikatuz.

Sozietate kotizatua izaki, partaidetza garrantzitsu batzuk eskuratu nahi izanez gero, jaulkitzaileari eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazi behar zaio asmo horren berri, Balore Merkatuari buruzko 24/1988 Legearen 53. artikulua, urriaren 19ko 1362/2007 Errege Dekretuak eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren abenduaren 19ko 2/2007 Zirkularrak agintzen dutenez. Arau horien guztien arabera, kapital sozialaren edo boto-eskubideen %3a da lehen jakinarazte-muga.

Bestalde, sozietate kotizatua izaki, Sozietateko boto-eskubideen % 30eko portzentajea edo hortik gorakoa eskuratzeko, Baloreak Erosteko Eskaintza Publikoa egiteko obligazioa dago, Balore Merkatuari buruzko 24/1988 Legearen 60. artikulua eta 1066/2007 Errege Dekretuak agintzen dutenez.

**c) Kapital-partaidetza garrantzitsuak, zuzenekoak edo zeharkakoak, 2007/12/31n.**

<b>Partaidetza-titularraren izena</b>	<b>Zuzeneko %</b>	<b>Zeharkako %</b>	<b>Guztira %</b>
Cartera Social, S.A.	24,55	0,000	24,55
Guipuzkoa eta donostiako Aurrezki-Kutxa	10,996	0,000	10,996
Bilbao Bizkaia Kutxa, Aurrezki Kutxa eta Bahitetxea	5,010	5,807	10,817
Bestinver Gestión, S.A., S.G.I.I.C.	0,000	9,963	9,963
BNP Paribas Securities Services Lux A/C Ceda	5,473	0,000	5,473
Vitall Kutxa	3,021	0,000	3,021

#### **d) Boto-eskubidearen murrizketak.**

Ez dago boto-eskubidea erabiltzeko inongo murrizketarik –ez legearenik, ez estatutuenik–, sozietate anonimo orori dagozkionetatik aparte. Dena den, lehendik ere esana dugunez, 100 akzioko partaidetza, gutxienez, behar da batzarrean parte hartzeko, Estatutuek agintzen dutenez. Kasu honetan, ordea, kopuru hori baino txikiagoa edukiz gero, akzioak batu egin daitezke eta, ehun edo gehiago bildutakoan, beste akziodun bati eman haien ordezkariak.

Batzarrean parte hartzeko eskubidea izateko, Batzar Orokorraren eguna baino bost egun lehenago, gutxienez, akzioak kontabilitate-erregistroetan beren izenean erregistratuta izan behar dituzte akziodunek.

#### **e) Itun parasozialak.**

Batzar orokorretan botoa emateko eskubidea murrizten duten edo akzioak modu librean transmititzea mugatzen edo baldintzatzen duten Balore Merkatuaren uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 112. artikuluan definitutako itun parasozialik ez dago, CAFek dakienez.

#### **f) Administrazio-organoetako kideak hautatu eta ordeztzeko, eta Sozietateko estatutuak aldatzeko arauak.**

##### **1. Izendapena eta ordezpena.**

Batzar Orokorrak edo Administrazio Kontseiluak izendatu behar ditu kontseilariak, Sozietate Anonimoen buruzko legearen eta CAFeko Estatutuaren aurreikuspenen arabera.

Kontseilariak hautatzeko edo berrautatzeko Administrazio Kontseiluak Akziodunen Batzar Orokorrari aurkezten dizkion proposamenen eta Kontseiluaren kooptazio bidezko izendapenen aurretik, Izendapen eta Ordainketa Batzordeak

dagokion proposamena egin behar du, Kontseilari independenteak badira, eta alde zuzeneko txostena gainerako kontseilariei dagokienez.

Kontseilua ez badator bat Izendapen eta Ordainketa Batzordearen proposamenekin, desadostasunaren arrazoiak azaldu eta aktan jasotzea behar du.

Kaudimen, gaitasun eta eskarmentu ezaguneko hautagaiak aukeratzeko saiatu behar du Kontseiluak, eta bereziki zorrotza izan behar du Kontseilari independente karguak bete behar diren kasuetan.

Kontseiluak ez du proposatu edo izendatu behar Kontseilari independente kargurako enpresaren edo taldeko sozietateen kudeaketarekin inongo loturarik izan duen inor, ezta enpresan partaidetza handirik daukanik edo kontseilari exekutiboekin edo CAFeko beste goi-zuzendari batzuekin, taldeko sozietateekin edo partaidetza handien jabeekin lotura familiarrik (hirugarren mailarainoko odolkidetasuna, edo bigarren mailarainoko ahaidetasuna), profesionalik edo komertzialik duenik ere.

Administrazio Kontseiluak, Batzar Orokorrari proposamenak egiteko eta hutsik dauden postuak betetzeko kooptazioarako dauzkan eskumenez baliatuz, saiatu behar du organo horren osakeran kanpoko Kontseilariak edo ez-exekutiboak Kontseilari exekutiboak baino gehiago izan daitezen, Kontseilari independenteen kopurua kontseilari guztien herena (gutxienez) izan dadin, eta aginduzko Kontseilarien eta independenteen arteko erlazioak adieraz dezan aginduzko Kontseilariak ordezkatzeko enpresako kapitalaren eta gainerako erlazioen proportzioa. Dena dela, azken irizpide hori arindu egin daiteke eta ordezkariak erlatibo handiagoa eman aginduzko Kontseilariei, baldin eta Kontseiluan ordezkariak duen akziodun ugari badago, elkarrekin loturarik gabek.

Gutxienez zazpi lagun eta gehienez hamabost izan behar ditu Administrazio Kontseiluak. Administrazioaileak ez du zertan akziodun izan. Legeak ezarritako debeku eta bateraezintasunak aplikatu behar dira.

Bost urtez jardun behar dute karguan administrazioaileek. Behin edo gehiagotan berrauta daitezke, iraupen bereko epeetarako. Kargua onartzen duten unetik izango du eragina administrazioaileen izendapenak. Administrazio Kontseilua berritu behar da haietako bakoitzaren agintaldia iraungitzen denean.

Administrazioaileak izendatu diren epearen barruan karguren bat hutsik geratuz gero, akziodunekin bete ditzake hutsuneak Administrazio Kontseiluak, harik eta hurrengo Batzar orokorra egin arte. Hutsik geratzen den kargua Lehendakariarena edo Kontseilari Delegatuarena baldin bada, Administrazio Kontseiluak ahalmena du kargu horiek betetzeko eta behin-behineko lehendakaria izendatzeko. Kontseilari Delegatua ere izenda dezake, organoko kideen bi herenen botoak bereganatzen baditu. Batzar Orokorrak egiten duen hurrengo bilera arte izango dute eragina izendapen horiek.

Garai horretan aplikagarri den legediaren arabera egin behar da Kontseilarien kargugabetzea. Izendapenaren epealdia amaitzean, utzi egin behar dute kargua Kontseilariak, berrautatuak izan ezean, baita Batzar Orokorrak, dagozkion eskumenez baliatuz, hala erabakiz gero ere.

Bestalde, Kontseiluaren araudiak agintzen du Kontseilariak Administrazio Kontseiluaren esku utzi behar dutela kargua eta, erakunde horrek hala baderitzo, dimisioa formalizatu behar dutela kasu hauetan:

a) Aginduzko Kontseilaria bada, berak edo ordezkatzan duen akziodunak sozietatean duten partaidetza besterentzen badute.

b) Legeak ezarritako bateraezintasun edo debekuren bat baldin badute.

c) Delitu izan daitekeen zerbaitegin badute, edo hutsegite larriagatik edo oso larriagatik agintari gainbegiraleek diziplina-espedienterik ezarri badiete.

d) Administrazio Kontseiluak ohartarazpen larriarik egin baldin badie, Ikuskaritza Batzordeak alde aurretik txostena eginda, Kontseilari-betebeharrak urratzeagatik.

e) Sozietatearekin interes-gatazkarik baldin badute eta ez badituzte betetzen komunikazio eta abstentzio-beharkizunak.

f) Ez lehiatzeko obligazioa betetzen ez badute.

Auzi penalen batean inputatuta baldin badaude, horren berri eman behar diote Kontseiluari kontseilariak, baita prozesuak gerora izaten dituen gorabeherak jakinarazi ere. Nolanahi dela ere, Sozietateari kalterik eragin diezaioketen egoeren berri eman behar diote kontseilariak Kontseiluari, eta, hala badagokie, dimititu.

## **2. Estatutu-Aldaketa**

Estatutu Sozialak aldatzeko prozedura, berriz, Sozietate Anonimoei buruzko Legearen 144. artikulua arautzen du, eta Akziodunen Batzar Orokorrak onartu behar du, Lege horretako 103. artikulua arabera.

Batzarraren berriazko eskumenetako bat da (Estatutuen 13. artikulua eta CAFeko Akziodunen Batzar Orokorraren Araudiaren 4. artikulua) Estatutuak aldatzeko ahalmena, legeak agintzen dituen gehiengoaren arabera betiere.



**g) Administrazio Kontseiluko kideen eskumenak, akzioak jaulki eta berreroztekoak bereziki.**

Lehendakaria, Jose María Baztarrica Garijo jauna, eta Kontseilari delegatua, Andres Arizkorreta García jauna, Kontseiluaren eskumen guztien ordezkari dira, legearen arabera ordeztezinak direnenak izan ezik.

Kontseilari exekutiboak –Alejandro Legarda Zaragüeta jauna, CAFeko zuzendari nagusia– ordezen eta kontratazio-eskumen handiak ditu, baita bankuekin negoziatzeko eta ondasunak administratu eta erabiltzeko ere.

2007ko ekainaren 2ko Akziodunen Batzar Orokorrek baimena eman zion Kontseiluari CAFeko akzioen erosketa eratorria egiteko, indarrean den Sozietate Anonimoei buruzko 75. artikulua dioenaren arabera. Zuzenean egin dezake CAFek akzio-erosketa, edo mendeko sozietateen bitartez, salerosketa edo truke-eragiketak eginez (edo legeak baimentzen duen beste zeinahi) eta merkatuko prezioan. Erosi beharreko akzioen kopuruak ez du gainditu behar, sozietate erosleak eta haren mendeko sozietateek lehendik dituztenei gehituta, legeak ezarritako gehieneko muga (kapitalaren % 5a, Sozietate Anonimoei buruzko Legearen Lehen Xedapen Gehigarriak agintzen duenez), Administrazio Kontseiluak onartzen edo onartu dituen beheragoko mugei kalterik egin gabe, betiere Batzar horretan onartutako legezko mugaren barruan. Baimenaren iraupena 18 hilabetekoa da, Batzar Orokorren datatik zenbatzen hasita.

**h) Sozietateak hartu dituen erabaki garrantzizkoak eta, erosteko eskaintza publiko bat dela medio, Sozietatearen kontrol-aldaketatik indarrean sartu, aldatu edo amaitu behar dutenak, eta erabakien ondorioak, horiek zabaltzea Sozietatearentzat nabarmen kaltegarria bada salbu. Salbuespen hori ez da aplikatuko informazio horren berri ematera behartuta baldin badago Sozietatea.**

Erosteko eskaintza publiko bat dela medio, Sozietatearen kontrol-aldaketatik indarrean sartu, aldatu edo amaitu behar duten Sozietatearen erabaki garrantzizkorik ez dago.

**i) Sozietatearen eta haren administrazio eta zuzendaritzako kargudunen edo langileen arteko hitzarmenak, karguak utzi, bidegabeki kaleratu edo erosteko eskaintza publiko bat dela eta laneko harremana amaitu bada kalte-ordaina jasotzeko.**

Ez dago hitzarmenik Sozietatearen eta haren administrazio eta zuzendaritzako kargudunen edo langileen artean, karguak utzi, bidegabeki kaleratu edo erosteko eskaintza publiko bat dela eta laneko harremana amaituz gero kalte-ordainik ematea agintzen duenik.

## ***Etorkizuna***

Laburbilduta, hauek ditugu berehalako eginkizun nagusiak:

- Produkzio-ahalmena etengabe haztea eta jarduerak homogeneizatzea, eskaeren gehikuntzari erantzuteko.
- Industria, teknologia eta antolaketa-arloetan enpresa indartzea, aktibo finkoetan inbertsioak eginez.
- Produktu berriak garatu eta proiektuen kudeaketa integralerako sistema aurreratuak ezartzea.
- CAFen jarduera trenbide-materialen nazioarteko merkatuetan areagotzea.
- Trenbide-arloari aplikatzeko zerbitzuen negozioetan enpresaren ahalmena garatzea. (emakidak).
- Errodaje eta mantentze-lanen alorrak sendotzea.



## ***Ondorengo Gertaerak***

2008ko otsailaren 29an, 3.305.537 mila euroko eskaera-zorua zuen CAFek, kontratu irmoarekin.

Ekitaldia itxi ondoren, ez da beste ezer aipagarrikerik gertatu.







## *Ikuskatzailearen Eskutitza*



## URTEKO KONTU BATERATUEN IKUSKARITZA-TXOSTENA

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. ko akziodunei:

1. CAF Taldea osatzen duten Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. ren (sozietate nagusia) eta haren mendeko sozietateen urteko kontu bateratuak ikuskatu ditugu (1. eta 2.f oharra). Ikuskapen horretan daude 2007ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratua eta galdu-irabazien kontu bateratua, esku-diru bateratuaren fluxuaren egoera, ondare garbi bateratuaren aldaketan egoera eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko kontu bateratuen memoria. Sozietate Nagusiko administratzaileei dagokie kontu horiek guztiak formulatzea. Gure erantzukizuna da urteko kontu bateratuei buruzko iritzi orokorra ematea, Espainian oro har onartzen diren ikuskaritza-arauen arabera lana oinarri hartuta. Horretarako, hautaketa-proben bidez aztertzen ditugu urteko kontu bateratuen justifikazio-datuak eta ebaluatu egiten ditugu haien aurkezpena, aplikatu diren kontabilitate-printzipioak eta egindako kalkuluak.
2. Merkataritza-legeriarekin bat etorritik, Sozietate Nagusiko administratzaileek, 2007ko ekitaldiko zifrez gain, aurreko ekitaldikoak aurkeztu dituzte, balantze bateratuko kontusail bakoitzarekin, galdu-irabazien kontu bateratuarekin, esku-diruaren fluxu-egoera bateratuarekin eta ondare garbi bateratuko aldaketan egoerarekin batera, elkarrekin alderatzeko. Gure iritzia 2007ko ekitaldiko urteko kontuei buruzkoa besterik ez da. 2007ko martxoaren 29an, 2006ko ekitaldiko urteko kontu bateratuei buruzko txostena igorri genuen. Kontuen aldeko iritzia eman genuen txosten hartan.
3. Gure iritziak, zehatz erakusten dute 2007ko urteko kontu bateratuek (honekin batera doazkizue) Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. ren eta haren mendeko sozietateen ondare bateratuaren eta finantza-egoera bateratuaren egoera 2007ko abenduaren 31n, baita eragiketen emaitza bateratuak, ondare garbi bateratuaren aldaketak eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion esku-diruaren fluxu bateratuak ere. Halaber, datu horiek guztiak behar bezala ulertu eta interpretatzeko nahikoa informazio (eta behar bezalako) badute, Europako Batasuneko finantza-informazioari buruzko nazioarteko araudiaren arabera. Bat dator araudi hori aurreko ekitaldian erabilitakoekin.
4. Txostenarekin batera aurkezten den 2007ko Kudeaketa Txosten bateratuak, Taldearen egoera, bere negozioen bilakaera eta beste zenbait arlo buruz Sozietate nagusiaren administratzaileen ustez egokiak diren azalpenak barneratzen ditu, eta ez da urteko kontu bateratuetako parte. Aipatutako kudeaketa-txostenak barne hartzen duen kontabilitate-informazioa 2007ko ekitaldiko urteko kontu bateratuekin bat datorrela egiaztatzen dugu. Gure ikuskaritza-lana da kudeaketa-txosten bateratua egiaztatzea (paragrafo honetan aipatutako irismenarekin), ez besterik, eta ez du barne hartzen Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. ren eta haren mendeko sozietateen kontabilitate-erregistroetatik hartutakoa ez den informazioaren berrikuspenik.

DELOITTE, S.L.

R.O.A.C.en S0692 zenbakiaz inskribatua



Joseba Ijalba Ruiz

2008ko apirilaren 1ean

## *Talde Bateratuaren Urteko Kontuak*

## Egoera-Balantze Bateratuak

2007ko eta 2006ko abenduaren 31ko (1etik 6ra arteko oharra) (Euroak)

<b>Aktiboa</b>	<b>07.12.31</b>	<b>06.12.31 (*)</b>
<b>Aktibo ez-korrontea:</b>		
Beste aktibo ukiezin batzuk, garbiak (7. oharra)	197.555.823	101.288.883
Ibilgetu materiala, garbia (8. oharra)	171.922.997	155.609.574
Partaidetza-sistemaren bidez kontabilizatutako inbertsioak (9. oharra)	2.064.445	835.038
Finantza-aktibo ez-korronteak (9. eta 17. oharra oharrak)	35.822.371	34.354.571
Zerga geroratu aktiboak (18. oharra)	34.457.599	13.430.075
<b>Aktibo ez-korrontea, guztira</b>	<b>441.823.235</b>	<b>305.518.141</b>
<b>Aktibo korrontea:</b>		
Izakinak (11. oharra)	18.929.455	50.893.181
Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk (12. oharra)	334.403.347	402.123.753
Enpresa elkartuak, zordunak (10. oharra)	(31.160)	54.234
Beste finantza-inbertsio korronte batzuk (14. oharra)	6.549.907	2.712.565
Finantza-tresna deribatuak	-	6.877.996
Finantza-inbertsio iragankorrak (13. oharra)	448.284.939	261.068.814
Administrazio Publikoak (19. oharra)	22.750.673	16.637.341
Esku-dirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide	24.211.416	9.898.296
Beste aktibo korronte batzuk	323.946	819.940
<b>Aktibo korrontea, guztira</b>	<b>855.422.523</b>	<b>751.086.120</b>
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>1.297.245.758</b>	<b>1.056.604.261</b>

Agiri hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

<b>Pasiboa eta ondare netoa</b>	<b>07.12.31</b>	<b>06.12.31 (*)</b>
<b>Ondare garbia:</b>		
<b>Sozietate Nagusiarena (14. oharra)</b>		
Kapital soziala	10.318.506	10.318.506
Jaulkipen-saria	11.863.347	11.863.347
Errebalorizazio-erreserba	58.452.208	56.508.846
Sozietate Nagusiaren beste zenbait erreserva integrazio orokorraren eta partaidetza-metodoaren bidez bateratutako sozietateetako erreserbak	136.069.902	106.058.426
Bihurtze-diferentziak	(3.914.098)	3.956.727
Ondare-doikuntzak, balorazioa dela eta	496.558	16.234
Denboraldiko emaitza garbia	87.626.132	34.638.698
<b>Sozietate Nagusiko akziodunei dagokien ondare garbia</b>	<b>300.912.555</b>	<b>223.360.784</b>
<b>Gutxiengodunen interesak</b>	<b>3.573.929</b>	<b>2.670.387</b>
<b>Ondare garbia, guztira</b>	<b>304.486.484</b>	<b>226.031.171</b>
<b>Pasibo ez-korrontea:</b>		
<b>Epe luzerako zuzkidurak (3.ñ oharra)</b>	<b>871.967</b>	<b>1.301.422</b>
<b>Kreditu-erakundeekiko zorrak (16. oharra)</b>	<b>161.231.993</b>	<b>96.709.370</b>
<b>Finantza-tresna deribatuak</b>	<b>-</b>	<b>3.989.921</b>
<b>Epe luzerako beste finantza-pasibo batzuk (3.k, 3.I, 9 eta 15. oharrek)</b>	<b>91.369.859</b>	<b>79.896.655</b>
<b>Zerga geroratuengatik pasiboak (18. oharra)</b>	<b>21.633.686</b>	<b>24.491.394</b>
<b>Pasibo ez-korrontea, guztira</b>	<b>275.107.505</b>	<b>206.388.762</b>
<b>Pasibo korrontea:</b>		
<b>Kreditu-erakundeekiko zorrak (16. oharra)</b>	<b>26.109.771</b>	<b>270.010</b>
<b>Finantza-tresna deribatuak (17. oharra)</b>	<b>1.264.566</b>	<b>-</b>
<b>Beste zenbait finantza-pasibo korronte</b>	<b>18.024.968</b>	<b>18.721.553</b>
<b>Enpresa elkartuekiko zorrak (10. oharra)</b>	<b>1.139.470</b>	<b>939.879</b>
<b>Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk</b>		
Eskaerengatik jasotako aurrerakinak	257.496.435	249.166.941
Erosketengatik eta emandako zerbitzuengatik zorrak	233.876.639	223.742.192
	491.373.074	472.909.133
<b>Epe laburrerako zuzkidurak (20. oharra)</b>	<b>114.995.464</b>	<b>82.309.981</b>
<b>Beste zenbait zor</b>		
Administrazio publiko hartzekodunak (19. oharra)	48.864.945	33.574.439
Beste pasibo korronte batzuk (9. oharra)	15.879.511	15.459.333
	<b>64.744.456</b>	<b>49.033.772</b>
<b>Pasibo korrontea, guztira</b>	<b>717.651.769</b>	<b>624.184.328</b>
<b>Pasiboa eta ondare garbia, guztira</b>	<b>1.297.245.758</b>	<b>1.056.604.261</b>

(\*) Konparazioak egiteko aurkeztu ditugu, soil-soilik.

Memorian deskribatzen diren 1etik 26ra bitarteko oharrek 2007ko ekitaldiko egoera-balantze bateratuaren parte dira.

Agiri hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. eta CAF Taldea osatzen duten Mendeko Sozietateak

## Galdurabazi bateratuetako kontuak

2007ko eta 2006ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiei dagozkien (1etik 6ra arteko oharra) (Euroak)

<b>(Zorra) Hartzekoa</b>	<b>2007</b>	<b>2006 (*)</b>
<b>Eragiketa jarraituak:</b>		
Negozio-zifraren zenbateko garbia (6. oharra)	874.474.241	805.727.489
+/- Produktu bukatuen eta fabrikazio-bidean dauden produktuen izakinen aldaketa (11. oharra)	(111.891.634)	(82.481.259)
Hornikuntzak (3.m eta 21. oharra)	(314.182.149)	(349.460.291)
Beste ustiapen-sarrera batzuk	2.011.416	1.168.225
Pertsonal-gastuak (22. oharra)	(200.129.860)	(188.223.776)
Beste ustiapen-gastu batzuk	(149.106.673)	(125.849.385)
Amortizazio-zuzkidurak (7 eta 8. oharra)	(15.119.851)	(18.019.073)
<b>Ustiapen-emaitza</b>	<b>86.055.490</b>	<b>42.861.930</b>
Finantza-sarrerak (13. oharra)	12.236.430	1.624.829
Finantza-gastuak (16. oharra)	(715.618)	(2.897.796)
<b>Finantza-emaitza</b>	<b>11.520.812</b>	<b>(1.272.967)</b>
Partaidetza-sistemaren bidez baloratutako erakundeen emaitza (9. oharra)	387.068	297.788
Beste irabazi edo galera batzuk (garbiak) (3.b eta 8. oharra)	27.750	632.726
<b>Zergak ordaindu aurreko emaitza</b>	<b>97.991.120</b>	<b>42.519.477</b>
Irabazien gaineko zerga (3.m, 18. eta 19. oharra)	(9.690.495)	(16.369.017)
Mozkinen gaineko zergetako doikuntza positiboak (3.m oharra)	—	8.500.000
<b>Eragiketa jarraituei dagozkien ekitaldiko emaitza</b>	<b>88.300.625</b>	<b>34.650.460</b>
<b>Ekitaldiko emaitza</b>	<b>88.300.625</b>	<b>34.650.460</b>
Hauetara dagozkie:		
Sozietate Nagusiko akziodunei	87.626.132	34.638.698
Gutxiengodun interesetara	674.493	11.762
<b>Akzioko mozkina (eurotan) (3.r oharra)</b>		
Oinarrizkoa	25,56	10,10
Diluitua	25,56	10,10

(\*) Konparazioak egiteko aurkeztu ditugu, soil-soilik

Memorian deskribatzen diren 1etik 26ra bitarteko oharra 2007ko ekitaldiari dagozkion galdurabazien kontu bateratuko parte dira.



Agiri hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsiok bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. eta CAFAldea osatzen duten Mendeko Sozietateak

## Ondare Garbi Bateratuko aldaketen egoera

2007ko eta 2006ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldietako (14. oharra) (Euroak)

	Kapital soziala	Jaulkipen-saria	Egin gabeko aktibo eta pasiboen birbalioztatzeagat iko erreserba	Legezko erreserba	Borondatezko beste erreserba batzuk	Sozietate bateratuen erreserbak	Ondare- doikuntzak, balorazioa dela eta	Bihurtze- diferentziak	Ekitaldiko emaitza garbia	Gutxiengodun interesak	Ondarea, guztira
<b>2005eko abenduaren 31ko saldoak (*)</b>	<b>10.318.506</b>	<b>11.863.347</b>	<b>56.551.093</b>	<b>2.063.704</b>	<b>88.468.191</b>	<b>2.369.144</b>	<b>(984.460)</b>	<b>1.163.690</b>	<b>18.143.386</b>	<b>2.658.625</b>	<b>192.615.226</b>
Emaitzaren aplikazioa											
Erreserbetarako	—	—	—	—	8.921.574	3.736.892	—	—	(12.658.466)	—	—
Dibidenduetarako	—	—	—	—	—	—	—	—	(5.484.920)	—	(5.484.920)
Bihurtze-diferentziak	—	—	—	—	—	—	—	(2.334.791)	—	—	(2.334.791)
Bihurtze-diferentzietako aldaketak, estaldura dela eta	—	—	—	—	—	—	—	5.127.828	—	—	5.127.828
Estaldura-erreserbetako aldaketak	—	—	—	—	543.993	5.792	1.000.694	—	—	—	1.550.479
2006ko ekitaldiko emaitza garbia	—	—	—	—	—	—	—	—	34.638.698	—	34.638.698
Kanpoko bazkideei dagokien ekitaldiko emaitza	—	—	—	—	—	—	—	—	—	11.762	11.762
Aldaketak bateratze-perimetroan	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
Beste zenbait	—	—	(42.247)	—	—	(50.864)	—	—	—	—	(93.111)
<b>2006ko abenduaren 31ko saldoak (*)</b>	<b>10.318.506</b>	<b>11.863.347</b>	<b>56.508.846</b>	<b>2.063.704</b>	<b>97.933.758</b>	<b>6.060.964</b>	<b>16.234</b>	<b>3.956.727</b>	<b>34.638.698</b>	<b>2.670.387</b>	<b>226.031.171</b>
Emaitzaren aplikazioa											
Erreserbetarako	—	—	—	—	23.419.618	249.240	—	—	(23.668.858)	—	—
Dibidenduetarako	—	—	—	—	—	—	—	—	(10.969.840)	—	(10.969.840)
Bihurtze-diferentziak	—	—	—	—	—	—	—	(7.870.825)	—	—	(7.870.825)
Bihurtze-diferentzietako aldaketak, estaldura dela eta	—	—	—	—	—	—	(3.794)	—	—	—	(3.794)
Estaldura-erreserbetako aldaketak	—	—	—	—	—	—	484.118	—	—	—	484.118
2007ko ekitaldiko emaitza garbia	—	—	—	—	—	—	—	—	87.626.132	—	87.626.132
Kanpoko bazkideei dagokien ekitaldiko emaitza	—	—	—	—	—	—	—	—	—	674.493	674.493
Aldaketak bateratze-perimetroan	—	—	—	—	—	—	—	—	—	52.864	52.864
Zerga-kredituen aktibazioa (3.m oharra)	—	—	—	—	6.950.000	—	—	—	—	—	6.950.000
Beste zenbait (18. oharra)	—	—	1.943.362	—	(607.382)	—	—	—	—	176.185	1.512.165
<b>2007ko abenduaren 31ko saldoak (*)</b>	<b>10.318.506</b>	<b>11.863.347</b>	<b>58.452.208</b>	<b>2.063.704</b>	<b>127.695.994</b>	<b>6.310.204</b>	<b>496.558</b>	<b>(3.914.098)</b>	<b>87.626.132</b>	<b>3.573.929</b>	<b>304.486.484</b>

(\*) Konparazioak egiteko aurkeztu ditugu, soil-soilik

Memorian deskribatzen diren 1etik 26ra bitarteko oharak 2007ko ekitaldiko ondare bateratu garbiaren aldaketen egoeraren parte dira.

Agiri hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. eta CAF Taldea osatzen duten Mendeko Sozietateak (Bateratua)

## Esku-diruaren fluxu bateratuen egoerak

2007ko eta 2006ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietako (Eurotan)

	2007	2006 (*)
<b>Ustiapen-jardueretako esku-diruaren fluxuak:</b>		
Ekitaldiko emaitza, zergak ordaindu aurretik	88.300.625	34.650.460
Doikuntzak, arrazoi hauengatik:		
Amortizazioak (7. eta 8. oharra)	16.616.105	17.479.630
Estandura ez-eraginkorraren emaitzak (17. oharra)	2.066	—
Epe luzerako zuzkiduren hornidura eta epe luzerako beste finantza-pasibo batzuk (3.ñ eta 15. oharra)	31.527.127	17.239.280
Finantza-aktibo ez-korronteen zuzkidura-aldaketak	—	2.805.600
Epe laburrerako horniduren zuzkidura	51.728.741	61.333.187
Aktibo ez-korronteak besterentzearen mozkina (3.b, 7 eta 8. oharra)	(120.152)	(656.443)
Aktibo ez-korronteak besterentzearen galerak (3.b, 7 eta 8. oharra)	79.419	29.474
	<b>188.133.931</b>	<b>132.881.188</b>
<b>Eragiketetan lortutako baliabideak</b>		
Zergengatiko ordainketak	(22.151.210)	(10.774.000)
Epe luzerako finantza-tresna deribatuen balorazio-zuzenketa (17. oharra)	(343.696)	3.768.869
Epe luzerako zuzkiduren aplikazioak eta epe luzerako beste finantza-pasibo batzuk (3.ñ eta 15. oharra)	(13.275.638)	(1.136.734)
Epe laburrerako zuzkiduren aplikazioak (20. oharra)	(19.433.706)	(11.277.322)
Zerga geroratuen aplikazio garbia	—	5.715
	<b>132.929.681</b>	<b>113.467.716</b>
<b>Eragiketetan lortutako baliabide garbiak</b>		
<b>Kapital zirkulatuaren aldaketa:</b>		
Zordun komertzialak eta beste aktibo korronte batzuk (3.d eta 5 oharra)	(119.964.202)	(417.936.129)
Izakinen hazkundera	33.039.767	22.037.022
Merkataritza-hartzekodunak	20.934.720	208.168.161
	<b>66.939.966</b>	<b>(74.263.230)</b>
<b>Ustiapen-jardueretako esku-diruaren fluxu garbiak (I)</b>		
<b>Inbertsio-jardueretako esku-diruaren fluxuak:</b>		
Dauden alderdi likidoetako subsidiario garbien erosketa (9. oharra)	(345.941)	—
Aktibo ukiezinen erosketa (7. oharra)	(107.081.651)	(112.156.833)
Finantza-aktibo ez-korronteen erosketa (9. oharra)	(4.560.665)	(9.608.180)
Aktibo ukiezin materialen erosketak (8. oharra)	(30.625.807)	(23.812.940)
Aktibo ukigarri eta ukiezinak besterentzeagatiko kobrantzak (7 eta 8. oharra)	120.152	1.554.222
Partaidetza-sistemaren bidez kontabilizatutako inbertsioak (9. oharra)	(1.229.407)	(106.226)
Finantza-aktibo ez-korronteak besterentzeagatiko kobrantzak (9. oharra)	9.133.517	7.337.778
	<b>(134.589.802)</b>	<b>(136.792.179)</b>
<b>Inbertsio-jardueretako esku-diruaren fluxu garbiak (II)</b>		
<b>Finantziario-jardueretako esku-diruaren fluxuak:</b>		
Ondare-doikuntzak, balorazioa dela eta	—	6.678.307
Gutxiengodun interesak, eta beste batzuk (14. oharra)	229.049	(93.111)
Esku-diruaren sarrerak, epe luzerako beste finantza-pasibo batzuk direla eta (15. oharra)	2.698.720	1.741.928
Epe luzerako zorrak kreditu-erakundeekin (16. oharra)	90.612.409	96.672.063
Finantziario komertziala	—	107.741.727
Bihurtze-diferentzia garbiak	—	11.794.018
Sozietate Nagusiaren dibidendu-ordainketak (14. oharra)	(10.969.840)	(5.484.920)
Beste zenbait (14. oharra)	(607.382)	—
	<b>81.962.956</b>	<b>219.050.012</b>
<b>Inbertsio-jardueretako esku-diruaren fluxu garbiak (III)</b>		
<b>Esku-diruaren eta esku-diruaren baliokideen hazkunde garbia (I+II+III)</b>	<b>14.313.120</b>	<b>7.994.603</b>
Esku-dirua eta esku-diruaren baliokideak denboraldiaren hasieran	9.898.296	1.903.693
<b>Esku-dirua eta esku-diruaren baliokideak denboraldiaren amaieran</b>	<b>24.211.416</b>	<b>9.898.296</b>

(\*) Konparazioak egiteko aurkeztu ditugu, soil-soilik

Erantsitako memoria bateratuan deskribatutako 1etik 26ra bitarteko oharra 2006ko ekitaldiko esku-diruaren fluxu-egoerako zati dira.

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. eta Mendeko Sozietateak (CAFTaldea)

## **Memoria Bateratua**

**2007ko abenduaren 31n amaitutako Urteko Ekitaldiari dagokion**

Agiri hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

## **1. Sozietate Nagusiaren izaera eta jarduera**

---

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. (aurrerantzean CAF edo Sozietate nagusia) Donostian sortu zen, mugarik gabeko izaerarekin.

Helburu soziala Estatutu Sozialen 2. artikuluan deskribaturik dago.

Sozietate nagusiaren oraingo jarduera behinena trenbide-materiala ekoiztea da.

Sozietate nagusiak, bere jarduerak egiteko, beste sozietate batzuetan partaidetzen gehiengo du (2.f. oharra).

## **2. Urteko kontu bateratuak aurkezteko oinarriak**

---

### **a) Aurkezteko oinarriak**

CAF Taldearen 2006ko eta 2007ko ekitaldietako urteko kontu bateratuak Administratzaileek formulatu dituzte:

- Lehenbizikoz, Finantza Informazioaren Nazioarteko Arauen arabera (FINA, hemendik aurrera) egin dira kontuak. Europako Batasunak finkatuak dira arau horiek, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1606/2002 Arauarekin (EB) bat etorritz, barne direla Nazioarteko Kontabilitate Arauak (NKA) eta Financial Reporting Interpretations Committee (IFRIC) eta Standing Interpretations Committee (SIC) erakundeen irizpideak. Hirugarren oharrean daude, laburtuta, CAF Taldearen 2006ko eta 2007 ekitaldietako urteko kontu bateratuak prestatzeko erabili diren kontabilitate-printzipio eta balorazio-irizpide nagusiak.
- Bestalde, aintzat hartu dira urteko kontu bateratuetan eragin nabarmena duten nahitaez aplikatu beharreko kontabilitate-printzipio eta arau eta balorazio-irizpide guztiak, baita araudiak horretarako baimentzen dituen alternatibak ere (3. oharrean dituzue zehaztuta).
- Zehatz erakusten dute kontuek CAF Taldeak 2006ko eta 2007ko abenduaren 31n zeuzkan ondare eta egoera finantzario bateratua, haren eragiketen emaitzak, ondare garbian izandako aldaketak eta aipatutako datan amaitutako ekitaldian Taldeak izan dituen esku-diruaren fluxu bateratuen aldaketak.
- Kontuan izan dira, halaber, sozietate nagusiaren eta Taldeko gainerako sozietateen kontabilitate-erregistroak. Dena dela, ikusirik Taldearen 2006ko eta 2007ko ekitaldietako urteko kontu bateratuak prestatzeko erabili diren kontabilitate printzipioak eta balorazio-irizpideak (FINA) ez datozela bat Taldeko sozietate bakoitzak erabiltzen dituenarekin (tokian tokiko araudia), zenbait doiketa eta birsailkatze erantsi zaizkio bateratze-prozesuari, elkarrekin bateragarri egiteko aipatutako printzipioak eta irizpideak eta Finantza Informazioaren Nazioarteko Arauetara egokitzeko.

2006ko ekitaldiari dagozkion CAF Taldearen urteko kontu bateratuak 2007ko ekainaren 2an eginiko CAFeko Akziodunen Batzar Orokorrek onartu zituen. Akziodunen Batzar Orokorrek onartu behar dituzte 2007ko ekitaldiko Taldearen urteko kontu bateratuak eta haren partaide diren sozietateen urteko kontuak. CAFeko Administrazio Kontseiluaren iritziz, inongo aldaketarik gabe onartuko dira urteko kontu horiek.

## b) Finantza Informazioaren Nazioarteko Arauetara aldatzea (FINA)

Taldearen urteko kontu bateratuak (2006ko eta 2007ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiei dagozkienak), Finantza Informazioaren Nazioarteko Arauen arabera, egin dira, Europako Legebiltzarreko eta Kontseiluko 2002ko uztailaren 19ko 1606/2002 araudiak (EB) dioenarekin bat, eta aintzat hartuta eragin nabarmena duten eta nahitaez aplikatu beharrekoak diren kontabilitate-printzipio eta -arauak eta balorazio-irizpideak, baita araudiak baimentzen dituen alternatibak ere.

Azken ekitaldian, 7 FINA ('Finantza-tresnak: azaldu beharreko informazioa') erabili du Taldeak (2007ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean FINA hori, data horretatik aurrerako ekitaldietan erabiltzeko), baita 1 NKA ('Finantza-egoeren aurkezpena, kapital-banakapenekiko') egindako aldaketak ere.

7 FINA eta 1 NKA erabili izanaren ondorioz, aldatu egin dira finantza-tresnei eta kapital-kudeaketari dagozkien urteko kontu bateratuen banakapen kualitatibo eta kuantitatiboak, 5, 14 eta 17 oharretan xehatuak.

Bestalde, IFRICen lau interpretazio indarrean izan dira, lehenbizikoz, azken ekitaldian: 7 FINAIB (29 NKAren arabera berradierazpen-prozeduraren aplikazioa, 'Finantza-informazioa ekonomia hiperinflazionistetan'), 8 FINAIB (2 FINAren irismena'), 9 FINAIB (Eratorki implizituen ebaluazio berria') eta 10 FINAIB ('Bitarteko finantza-informazioa eta balio-galera'). Interpretazio horien erabilerak ez du inpakturik izan Taldearen urteko kontu bateratuetan.

*Indarrean ez dauden eta jaulki diren arau eta interpretazioak*

Urteko kontu bateratu hauek formulatu diren datan, IASBk argitaratuak zituen jada arau eta interpretazio hauek guztiak, baina artean indarrean sartu gabe zeuden, urteko kontu bateratuen data baino geroagokoa dutelako eragin-data, edo Europako Batasunak artean ez zeuzkalako onartuak.

<b>Arauk eta arau-aldaketak</b>	<b>Nahitaez aplikatu beharrekoa hemendik aurrerako ekitaldietan:</b>
8 FINA - Eragiketa-segmentuak	2009ko urtarrilaren 1a
23 NKAren berrikuspena (*) - Interesengatiko kostuak	2009ko urtarrilaren 1a
1 NKAren berrikuspena (*) - Finantza-egoeren aurkezpena	2009ko urtarrilaren 1a
3 FINAren berrikuspena (*) - Negozio-konbinazioak	2009ko uztailaren 1a
27 NKAren aldaketa (*) - Finantza-egoera bateratuak eta bereiziak	2009ko uztailaren 1a
2 FINAren aldaketa (*) - Akzioen arabera ordainketak	2009ko urtarrilaren 1a
Interpretazioak	
11 FINAIB - 2 FINA: Akzio propioen eta Taldekoen transakzioak	2009ko martxoaren 1a
12 FINAIB (*) - Zerbitzuak esleitzeko hitzarmenak	2008ko urtarrilaren 1a
13 FINAIB (*) - Bezeroak leialtzeko programak	2008ko uztailaren 1a
14 FINAIB (*) - 19 NKA: Etekin zehaztuko aktibo baten muga	2008ko urtarrilaren 1a

(\*) Urteko kontu bateratu hauek formulatzean Europako Batasunak artean onartuak ez zeuzkan arau eta interpretazioak.



## *8 FINA - Eragiketa-segmentuak*

Arau honek indargabetu egiten du 14 NKA. Arau berriaren berrikuntza nagusia da 8 FINAk 'gerentziaren ikuspegia' erabiltzeko eskatzen diela erakundeei beren negozio-segmentuen finantza-bilakaeraren berri emateko. Normalean, eman beharreko informazioa da segmentuen errendimendua ebaluatzeko eta haiei baliabideak esleitzeko zuzendaritzak enpresa barruan erabiltzen duena izango da. Administratzaileek ez dute oraindik aztertu arau horren aplikazioak urteko kontu bateratuetan izango duen eragina.

### *23 NKAREN berrikuspena Interesengatiko kostuak*

23 NKA berrikusiaren bertsio berri honen aldaketa nagusia da ez dituela jada segituan onartzen gastutzat erabili edo saldu aurretik luzaro itxaron behar duten aktiboen finantziazio-interesak. Aurrerantzean, arau berri hori aplika daiteke. Administratzaileen ustez, hori indarrean sartzeak ez du eraginik izango urteko kontu bateratuetan, ez baitu kontabilitate-politikaren aldaketarik ekarriko, kostu horien kapitalizazioa izaki Taldearen kontabilitate-irizpidea.

### *1 NKAREN berrikuspena Finantza-egoeren aurkezpena*

Arau honen bertsio berriaren xedea finantza-egoeren erabiltzaileen informazioa aztertzeko eta konparatzeko gaitasuna hobetzea da. Hobekuntza hauei esker, urteko kontu bateratuen erabiltzaileek bereiz aztertu ahalko dituzte jabe gisara dihardutenekin egiten diren transakzioengatiko ondare-aldaketak (dibidenduak, akzioen berrerosketak...) eta jabe ez direnekin egiten direnengatikoak (hirugarrenekin egiten diren transakzioak, edo ondare garbiari zuzenean egotzitako diru-sarrerak edo gastuak). Berrikusitako arauak sarrera eta gastu-sailak eta beste guztizko sarrera batzuen osagaiak guztizko sarrera gisara, guztizko partzialekin, edo bi egoera berezitan (sarrera-egoera berezia, eta, ondoren, sarrera eta gastu-egoera aitortua) aurkezteko aukera ematen du.

Informazio-eskakizun berriak ere ekartzen ditu erakundeak atzera begirako kontabilitate-aldaketarik edo birformulaziorik egiten badu, edo finantza-egoerei buruz lehendik egindako sailak berriro sailkatzen badira, eta aldaketak finantza-egoera batzuen izenetan, haien eginkizuna argiago adieraztearren (adibidez, 'balantzeari' 'finantzen posizio-egoera' deituko zaio).

Arau honen eraginak aurkezpenean eta banakapenean nabaritu dira gehienbat. Taldeari dagokionez, sarrera eta gastu-egoera aitorturik erregulartasunez aurkezten ez duenez, urteko kontuetan sartu behar da finantza-egoera berri hori.

### *3 FINAREN (Negozioen konbinazioa) berrikuspena eta 27 NKAREN (Finantza-egoera bateratuak eta bereziak) aldaketa*

Negozio-konbinazioei dagokienez nazioarteko printzipioak Estatu Batuetako kontabilitate-irizpideekin bateratzearen argitaratu dira arau horiek. 3 FINA berrikusia eta 27 NKAREN aldaketak berrikuntza nabarmenak dira negozio-konbinazioen kontabilizazioari dagozkion zenbait alderditarako, zeinek, oro har, arrazoizko balioaren erabilera azpimarratu ohi duten. Adibide gisara aipatuko ditugu horietako batzuk, nabarmenak baitira aldaketak: erosketa-gastuak, adibidez, zeinak gastuak atalera eramango diren (egun, konbinazioaren kostu nagusitzat jotzen dira); etapaka egiten diren erosketak (kontrolpean hartzen direnean, arrazoizko baliora itzularaziko du bere partaidetza erosleak); edo erositakoaren interes minoritarioak arrazoizko balioan neurtzeko aukera (egun, erositako aktibo garbien arrazoizko balioaren zati proportzionaltzat neurtzen dira). Arau berria gerora aplikatzekoa ere badenez –egiten diren negozio-konbinazioengatik, batik bat–, Administratzaileek ez dute aldakuntza aipagarririk espero arau berriaren erabilera dela eta. Dena den, administratzaileek ez dute aztertu oraindik arau horren aplikazioak etorkizuneko negozio-konbinazioetan eta haien urteko kontu bateratuetan izan dezakeen eragina.

## *2 FINAren aldaketa: Akzioen araberako ordainketak*

2 FINAren aldaketak, berriz, hau du xede nagusia: eskubideak bateratzeko baldintzen irizpideak ('vesting') eta akzioengatiko ordainketa-baliogabetzeen arauak argitzea. Administrazioaileen iritziz, aldaketa hori indarrean sartzeak ez du eragin aipagarririk izango urteko kontu bateratuetan.

## *11 FINAIB 2 FINA: Akzio propioen eta Taldekoen transakzioak*

2 FINA araua ('Akzioen araberako ordainketak') erakunde bateko ondare propioko tresnei eragiten dieten akzioen araberako ordainketei edo talde bereko beste erakunde bateko ondare-tresnei (adibidez, erakunde nagusiaren ondare-tresnak) nola aplikatu behar zaien aztertzen du interpretazio honek. Beraz, erakunde beraren edo taldeko beste erakunde bateko akzioen bidez ordaintzekoak diren transakzioak ondare propioko tresnekin likidatu behar balira bezala tratatu behar dira, behar diren ondare-tresnak eskuratzeko era edozein delarik ere. Administrazioaileen iritziz, interpretazio hori indarrean sartzeak ez du eragin aipagarririk izango urteko kontu bateratuetan.

## *12 FINAIB: Zerbitzuak esleitzeko hitzarmenak*

Zerbitzu-esleipenak gobernu batek (edo bestelako erakunde publiko batek) zerbitzu publikoak hornitzeko (errepideak, aireportuak, ur- eta elektrizitate-hornidurak sektore pribatuko operadoreei...) kontratuak esleitzen dituen hitzarmenak dira. Aktiboen kontrolak sektore publikoaren esku jarraitzen du, baina operadore pribatuari dagozkio azpiegitura publikoen eraikuntza, kudeaketa eta mantentze-lana. 12 FINAIBk zehazten du nola aplikatu behar dizkioten erakunde emakidadunek FINAak hitzarmen horietan hartzen diren eskubide eta betekizunen kontabilizazioari. 2006ko ekitalditik (garaiz aurretik, beraz) aplikatu du FINAIB hori Taldeak (3.a eta 7 oharra).

## *13 FINAIB: Bezeroak leialtzeko programak*

Ondasunak edo zerbitzuak erosten dituzten bezeroei leialtasun-sarritzat truke-bonuak (puntuak, kilometroak...) ematen dizkieten erakundeen kontabilitateari buruzkoa da interpretazioa. Zehazki, azaltzen du nola kontabilizatu behar dituzten erakunde horiek beren obligazioak puntu horiek trukatzeko dituzten bezeroak dohainik edo deskontuekin (puntu, kilometro eta abarren bidez emanak) ondasunez edo zerbitzuez hornitzeko.

Interpretazioak agintzen duenez, truke-bonuei egotzi behar diete erakundeek hasierako salmentako diru-sarreraren zati bat –bere obligazioak beteak dituenean bakarrik aitortu behar dira sarreratzat–, eta sariak banatu egin behar dira, edo hirugarren bati ordaindu egin dezan. Administrazioaileen iritziz, interpretazio hori indarrean sartzeak ez du eragin aipagarririk izango urteko kontu bateratuetan.

## *14 FINAIB 19 NKA: Etekin zehaztuko aktibo baten muga; gutxieneko ekarpen-eskakizunak eta interakzioa*

14 FINAIBek gida orokorra eskaintzen du 19 NKA ('Langileentzako etekinak') aktibotzat jo daitekeen soberakina zenbatekoa den jakiteko. Azaltzen du, halaber, zertan eragiten dien pentsioen aktibo edo pasiboei gutxieneko finantziario-betekizun bat (legezkoa edo kontratuzkoa) egoteak, eta pasibo gehigarria erregistratzeko premia ezartzen du erakundeak planari ekarpen osagarriak egiteko kontratuzko obligazioa baldin badu eta murriztua baldin badauka haiek berreskuratzeko ahalmena. Interpretazio honek estandarizatu egingo du jarduera eta ziurtatu erakundeek egoki aitortzea aktibo bat gehiegizko zenbateko batetik. Administrazioaileen iritziz, interpretazio hori indarrean sartzeak ez du eragin aipagarririk izango urteko kontu bateratuetan.

### c) Moneta funtzionala

Eurotan aurkeztu dira urteko kontu bateratu hauek, Taldea aritzen den ingurune ekonomiko nagusiko moneta euroa baita. 2.f oharra deskribatzen dituen politiken arabera erregistratzen dira atzerriko eragiketak.

Hona hemen CAF Taldeak 2007ko eta 2006ko abenduaren 31n zeuzkan moneta-aktibo eta pasiboen kontrabalioaren banakapena, eurotan:

Saldoetako Moneta	Kontrabalioa (Mila Euro)			
	2007		2006	
	Aktiboak	Pasiboak	Aktiboak	Pasiboak
Mexikoko pesoa	330.335	257.803	179.718	154.136
Argentinako pesoa	1.635	492	1.654	475
Brasilgo erreala	3.852	767	4.319	1.892
AEBko dolarra	9.608	3.184	7.740	4.511
Britainiar libra	992	1.144	1.385	1.393
<b>Guztira</b>	<b>346.422</b>	<b>263.390</b>	<b>97.690</b>	<b>162.407</b>

Hona hemen saldo nagusien banakapena, atzerriko monetan, sailen ezaugarrien arabera egin:

Saldoen Izaera	Kontrabalioa (Mila Euro)			
	2007		2006	
	Aktiboak	Pasiboak	Aktiboak	Pasiboak
Beste aktibo ukiezin batzuk	194.884	—	97.126	—
Zordunak	30.489	—	35.380	—
Aldi baterako finantza-inbertsioak	113.140	—	57.625	—
Esku-dirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide	7.909	—	4.685	—
Pasibo ez-korrontea	—	161.148	—	96.716
Pasibo korrontea	—	102.242	—	65.691
<b>Guztira</b>	<b>346.422</b>	<b>263.390</b>	<b>194.816</b>	<b>162.407</b>

### d) Estimazioak

Batzuetan, estimazioak erabili dira CAF Taldearen 2007ko eta 2006ko ekitaldietako urteko kontu bateratuetan.

Aztertutako gaiak buruz 2007ko abenduaren 31n zegoen informaziorik onenaren arabera egin ziren kalkuluak. Hala eta guztiz ere, litekeena da etorkizuneko gertakariak kalkuluak aldaraztea (gorantz edo beherantz) hurrengo ekitaldietan. Hala izatekotan, 8. NKAren arabera egingo dira aldaketak, etorkizunari begira betiere, dagokion galera eta irabazi-kontu bateratuan kalkulu-aldaketak izan dituen eraginak aintzat hartuz.

2007ko kontu bateratuetan eragin nabarmenik izan duen aldaketarik ez da egon 2006ko estimazioetan.

### e) Informazioaren konparazioa

NKA 1-ek agintzen duenez, 2007ko ekitaldiko memoria honetako informazioa 2006ko ekitaldikoarekin alderatuta aurkezten dugu.

Alderaketa egiteko erantsi ditugun 2007ko urteko kontu bateratuak ere Europako Batasunak finkatutako FINAen arabera eginak dira, 2006ko ekitaldikoekin aplikatutako antzera.

## f) Talde bateragarria eta bateratze-printzipioak

### Baterakuntza-eremua

Sozietate nagusiarenak eta haren kontrolpeko sozietateenak dira honi erantsita datozen urteko kontu bateratuak. Finantza- eta eragiketa-politikak zuzentzeko ahalmenari deritzo kontrola, haien jardueretatik etekinak ateratzeko betiere.

2007ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion urteko kontu bateratu hauek Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A.ren (Sozietate nagusia; 1. oharra) eta ondoren data haren arabera zerrendatu diren mendeko sozietateen banakako kontabilitate-erregistroetatik abiatuta prestatu dira:

	kontrol edo eraginaren %	Enpresaren Helbidea	Jarduera	Ikuskaria
<b>Integrazio osoz bateratuak (*)- Azpitalde industrialia</b>				
CAF, S.A.	Nagusia	Gipuzkoa (Espainia)	Trenbide-ekipo eta osagaien merkataritza eta industria-jarduera	Deloitte
Trenes de Navarra, S.A.	% 90	Nafarroa (Espainia)	Trenbide-ekipo eta osagaien ekoizpena eta muntaketa	Deloitte
Construcciones Ferroviarias de Madrid, S.L.U.	% 100	Madril (Espainia)	Trenbide-ekipo eta osagaien ekoizpena eta muntaketa	Horwath Auditores España
Construcciones Ferroviarias CAF-Santana, S.A.	% 67	Jaén	Trenbide-ekipo eta osagaien ekoizpena eta muntaketa	Deloitte
CAF USA, Inc.	% 100	Delaware (AEB)	Trenbide-ekipo eta osagaien ekoizpena eta muntaketa	Deloitte
CAF México, S.A. de C.V.	% 100	Mexiko D.F. (Mexiko)	Trenbide-ekipo eta osagaien merkataritza eta industria-jarduera	Deloitte
CAF Brasil Industria e Comercio S.A	% 100	Sao Paulo (Brasil)	Trenbide-ekipo eta osagaien konponketa eta muntaketa	Kpmg
CAF Argentina, S.A.	% 99,9	Buenos Aires (Argentina)	Trenbide-ekipo eta osagaien konponketa eta muntaketa	Ernst & Young
CAF Irlanda, Ltda.	% 100	Belfast (Ipar Irlanda)	Trenbide-ekipo eta osagaien konponketa eta muntaketa	Deloitte
CAF Italia, S.R.L.:	% 100	Erroma (Italia)	Trenbide-materialen konponketa eta mantentze-lanak	Deloitte
CAF Chile, S.A.	% 100	Santiago (Txile)	Trenbide-materialen konponketa eta mantentze-lanak	Ez da nahitaezkoa

	<b>kontrol edo eraginaren %</b>	<b>Enpresaren Helbidea</b>	<b>Jarduera</b>	<b>Ikuskaria</b>
<b>Azpitalde teknologikoa</b>				
CAF I+D S.L. (Kide bakarreko Sozietatea)	% 100	Gipuzkoa (Espainia)	Tren-materialetarako I+G	Ez da nahitaezkoa
Traintic, S.L.	% 99,9	Gipuzkoa (Espainia)	Elektronika-gaiak egitea	BSK-Bask Consulting, S.L.
Trainelec, S.A.U.	% 100	Gipuzkoa (Espainia)	Potentziako ekipo elektronikoak	Deloitte
Nuevas Estrategias de Mantenimiento, S.L.	% 85	Gipuzkoa (Espainia)	Irtenbide teknologikoak	BSK-Bask Consulting, S.L.
Desarrollo de Software Miramon 4, S.L.	% 60	Gipuzkoa (Espainia)	Softwarea sortzea	BSK-Bask Consulting, S.L.
Bizkaia Ferroviaria, S.L.	% 100	Bizkaia (Espainia)	Ingeniaritza-zerbitzuak	Ez da nahitaezkoa
Centro de Ensayos y Análisis Cetest, S.L.	% 100	Gipuzkoa (Espainia)	Saiakuntzak eta homologazioak	Ez da nahitaezkoa
Lets Ingenieros, S.L.	% 52,11	Madrid (Espainia)	Proiektu teknikoak, ingeniari-tza elektronikoa eta ekipo elektronikoen fabrikazioa	Ez da nahitaezkoa
<b>Zerbitzuak azpitaldea</b>				
Actren, S.A.	% 51	Madrid (Espainia)	Tren-ekipoen mantentze-lanak	Deloitte
Sermanfer, S.A.U.	% 100	Madrid (Espainia)	Trenbide-materialaren mantentze-zerbitzuak	AUDYGE
Tradinsa Industrial, S.A.	% 80	Lleida (Espainia)	Trenbide-materialen konponketa eta mantentze-lanak	Roig & Roig
Sefemex, S.A. de C.V.	% 100	Mexiko D.F. (Mexiko)	Zerbitzuak ematea eta langileen administrazioa	Asesores Horacio Ramirez y Asociados
Inversiones en Concesiones Ferroviarias, S.A.	% 77,6	Gipuzkoa (Espainia)	Enpresa-sustapena kapital-partaidetzaren bidez	Arco Auditores
Urbanización Parque Romareda, S.A.U.	% 100	Zaragoza (Espainia)	Akzioak edukitzea	Ez da nahitaezkoa
Ferrocarriles Suburbanos, S.A. de C.V.	% 93,2	Mexiko D.F. Mexiko	Bidaiariak lurrez garraiatzeko zerbitzu-ematea.	Deloitte
Ibaia Energia, S.L.	% 85	Gipuzkoa (Espainia)	Energia-sortzea	BSK-Bask Consulting, S.L.
Sempere Componentes, S.L.	% 100	Gipuzkoa (Espainia)	Osagaiak saltzea	BSK-Bask Consulting, S.L.
<b>Eraikuntza azpitaldea</b>				
Constructora de Sistemas Ferroviarios, S.L.	% 93,2	Gipuzkoa (Espainia)	Tren-lineak ustiatzeko ekipamendua	Deloitte
Constructora Mex. del Fer. Sub., S.A. de C.V.	% 93,2	Mexiko D.F. (Mexiko)	Tren-lineak ustiatzeko ekipamendua	Deloitte



	kontrol edo eraginaren %	Enpresaren Helbidea	Jarduera	Ikuskaria
<b>Partaidetza-sistemaren bidez bateratuak (9. oharra)</b>				
<b>Azpitalde industrialia</b>				
Compañía de Vagones del Sur, S.A.	% 35	Jaén (Espainia)	Karga-bagoien fabrikazioa	Ez da nahitaezkoa
<b>Zerbitzuak azpitaldea</b>				
Sab Ibérica, S.A.	% 24,5	Madril (Espainia)	Tren-balazten ekipoen salmenta FF.CC.rentzako	Deloitte
<b>Azpitalde teknologikoa</b>				
Lander Simul. and Training Solutions, S.A.	% 40	Gipuzkoa (Espainia)	Simulagailuak aztertzea eta egitea	S.M. Auditores
Asirys Vision Technologies, S.A.	% 26	Gipuzkoa (Espainia)	Produktzio automatikoko sistemak aztertzea eta egitea	S.M. Auditores

(\* ) Sozietate nagusiak bermatu egiten die laguntza bere mendeko sozietateei, ekitaldi baterako gutxienez.

#### *Aldaketak bateratze-perimetroan*

2007ko ekitaldian, Trenes de Navarra sozietateko (2006ko ekitaldian sortua) % 10a besterendu dugu, 200 mila euroren truke. Halaber, Lets Ingenieros, S.L. sozietatearen % 52,11 erosi dugu.

2007ko ekitaldian, sozietate hauen sorrera izan da aldaketarik aipagarriena bateratze-eremuan: Centro de Ensayos y Análisis Cetest, S.L., Bizkaia Ferroviaria, S.L., Actren, S.L., Desarrollo Software Miramon 4, S.L., Sempere Componentes, S.L., Trainelec, S.L., Nuevas Estrategias de Mantenimiento, S.L., Ibaia Energia, S.L., CAF Chile, S.A. eta Compañía de Vagones del Sur, S.A. Kostua, 3.455 mila euro.

2006ko ekitaldian, bateratze-perimetroa bildu zen Trenes de Navarra, S.A.U. 2006ko martxoaren 6an eratu zen enpresa hori, eta 300 mila eurokoa zuen hasierako kapital soziala, oso-osorik CAF, S.A.k harpidetu eta ordaindua. Gerora, 1.700 mila euroko kapital-gehikuntza egin zen, eta balio nominaleko milana euroko 2.000 akzioz osaturik geratu zen. 2006ko ekitaldia amaitzerako, ordainduta zeuden akzio guztiak.

#### *Baterakuntza-metodoa*

Sozietate Nagusiak kontrolatzeko gaitasuna duen enpresei deitzen zaien "mendeko sozietate". Partaidetutako sozietateen jardueretatik etekinak eskuratzearren haien finantza eta eragiketa-politikak gidatzeko ahalmenak adierazten du gaitasun hori. Sozietate partaidetuak eskubide politikoen % 50 edo gehiagoren jabe baldin bada Sozietate Nagusia (zuzenean edo zeharka), jotzen da badagoela aipatutako kontrola; jabetza-portzentajea txikiagoa bada, berriz, mendeko sozietateetako beste akziodun batzuekiko hitzarmen bidez haien kontrola baldin badu Sozietate Nagusiak. Integrazio orokorreko metodoaren bidez bateratzen dira mendeko sozietateen urteko kontuak Sozietate Nagusikoarekin. Hori dela eta, bateratze-prozesutik kanpo utzi dira bateratutako sozietateen arteko transakzioetako saldo eta efektu garrantzitsu guztiak.

"Sozietate elkartuak" dira, halaber, Sozietate Nagusiak haien gainean bere eragina nabarmen erabiltzeko gaitasuna duen guztiak, haiek kontrolatzeko (bere kasa edo beste batzuekin batera) gai izan ez arren. Normalean, partaidetutako sozietatearen % 20tik gorako partaidetzak (zuzeneko edo zeharkakoa) adierazten du gaitasun hori. Urteko kontu bateratuetan, "partaidetza-metodoaren" bidez baloratzen dira sozietate elkartuak, hau da, Taldeak haren kapitalean duen partaidetzaren ondare garbiaren zatikiaz, haietatik jasotako dibidendu-kenketak eta beste ondare

batzuenak egin ondoren (sozietate elkarturen batekin transakziorik egin bada, Taldeak haren kapitalean duen partaidetza-portzentajetik kendu behar dira galerak edo irabaziak), ken banakako partaidetzetan izandako balio-galerak.

#### *Atzerri-monetako finantza-egoeren bihurketa*

Atzerri-monetako finantza-egoerak 'itxiera-kanbioko tasan' bihurtu dira eurotara. Hau da, itxiera-egunean indarrean zegoen kanbio-tasa erabili da ondasun, eskubide eta obligazio guztien balioak eurotara bihurtzeko, eta galdu-irabazien kontuko kontusailak bihurtzeko, berriz, ekitaldiko batez besteko kanbio-tasa.

Kanbio-tasa historikoa erabiliz bihurtutako atzerriko sozietatearen fondo propioen (galdu-irabazien kontuaren saldoa izan ezik, lehenago aipatutakoagatik) eta ondasunak, eskubideak eta obligazioak itxiera-eguneko kanbio-tasan bihurtzegtatik sortutako ondare-egoera netoaren arteko diferentzia balantze bateratuko Fondo Propioetan 'Bihurketa-diferentziak' kontusailean erregistratu da 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera, diferentzia horretatik kanpoko bazkideei dagokien zatia kendu ondoren. Kanpoko bazkideei dagokien zati hori 'Ondare garbia - Gutxiengodun interesak' kontuan erregistratu da.

### **3. Erabili diren kontabilitate-printzipio eta -politikak, eta balorazio-irizpideak**

---

2007ko eta 2006ko abenduaren 31ko urteko kontu bateratuak egiteko CAF Taldeak erabilitako balorazio-arau nagusiak honako hauek izan dira:

#### **a) Beste aktibo ukiezin batzuk**

Aplikazio informatikoak eta garapen-proiektuak –teknikoki eta komertzialki arrakasta izango dutela zalantzarik izan ezean– erosteko-kostuan, edo, hala badagokio, izakinak zenbatesteko arauaren arabera aplikatutako ekoizpen-kostu metatuan (3.e oharra) zenbatesten dira. Aplikazio informatikoak erosten direnean hasi eta bost urteko epean amortizatzen dira linealki (7. oharra). Ikerketa-proiektuak erosten direnean (edo amaitzen direnean) hasi eta bost urteko epean amortizatzen dira, linealki, edo denbora-epe horretan lortu diren garapenarekin erlazionatutako kontratuen kosturik handiago gisa berreskuratzen dira. Azken kasuan, izakinetara igortzen dira (7. oharra).

Emakida administratiboengatik CAF Taldeak erregistratutako zenbatekoak bat datoz haiek ustiatzeko behar ziren aktiboak erosteko edo ekoizteko izandako kostuekin, 12 FINAIBri jarraiki. Azpiegiturak eraikitze epean izandako finantza-gastuak, berriz, kapitalizatu egin ditugu. 'Ukiezina' deritzon erregistro-metodoa erabili dugu, bidaiarietatik eta emakidaren beste ustiapen-jarduera batzuetatik etorritako fluxuak izan baitu euskarri inbertsioen berreskuratzek, eta ez baitzegoen erakunde emailetik jasotzeko baldintzarik gabeko kontratuzko eskubiderik. Beraz, sozietate barruan sortutako aktiboen marjina erregistratu egingo da, emakidaren ustiapena gauzatu ahala. Modu linealean egingo da haien amortizazioa, emakida indarrean den bitartean (30 urtez), zerbitzuak ematen hasten garen unetik (2008ko lehen seihilekoan, seguruenik) zenbatzen hasita (7. oharra).

#### **b) Ibilgetu materiala**

'Ibilgetu materiala' epigrafeko elementuak eroste-kostuan baloratzen dira. Hala badagokio, zenbait lege-xedapenek aldatuta dago kostua (besteak beste, abenduaren 5eko 11/1996 Foru Araua eta abenduaren 13ko 13/1991 Foru Araua, zeina aktibo horien kostuaren zatitza jo izan den, FINAren arabera), baita 1. FINAko alternatibak ere, zeinaren arabera kostu-balioak jotzen den zenbait aktibo jakinentzat trantsizio-datako arrazoizko balioa.

Ondasunen produktibitatea, ahalmena edo eraginkortasuna areagotu edo haien bizitza baliagarria luzatzen duten zabalitzearen, modernizatzearren edo hobetzearen kostuak ondasun horien kostu handiago gisa kontabilizatzen dira.

Sozietate bateratuek beren ibilgetuan egindako lanak ekoizpen-kostu metatu gisa erregistratzen dira, izakinak zenbatesteko arauak aplikatuta (3.e oharra).

2007ko eta 2006ko ekitaldietan, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren, 21 mila eta 627 mila euroko mozkina (galera) eman du ibilgetu materialaren besterentzeak. Honi erantsitako galera eta irabazi-kontu bateratuen 'Beste galera eta irabazi batzuk' epigrafean erregistratu dira mozkin horiek.

Ibilgetu materialeko elementuak metodo lineala erabiliz amortizatzen dira, kalkulaturako bizitza baliagarriaren urte hauetako ehunekoak aplikatuta:

<b>Bizitza Baliagarriko Urteak (Kalkulua)</b>	
Eraikinak	25 - 50
Instalazio teknikoak eta makineria	6 - 10
Beste zenbait instalazio, tresneria eta altzariak	3 - 10
Gainerako ibilgetua	10

#### **c) Aktiboaren balio-galera**

Itxiera-datan, bere aktibo ez-korronteen balioa aztertzen du CAF taldeak, hondamena dela eta galera-aztarnarik baduten jakiteko. Aztarnarik baldin badago, aktiboaren zenbateko berreskuragarriaren kalkulua egiten da, saneamenduaren kostua zehazteko, baldin eta haren beharrik izaten bada. Merkatuko balioaren (salmenta-kostuak murriztua) eta erabilerako balioaren arteko handiena da zenbateko berreskuragarria. Erabilerako balioa: etorkizunerako kalkulatu diren kaxa-fluxuen egungo balioa.

Zenbateko berreskuragarria aktiboaren liburuko balio garbia baino txikiagoa bada, hondamenak eragindako galera (diferentzia) honi erantsitako galera eta irabazi-kontu bateratuaren 'Amortizazio-zuzkidura' epigrafean erregistratzen da, eta honi erantsitako egoera-balantze bateratuaren 'Ibilgetu materiala - Amortizazio metatua' epigrafean ordaintzen da.

Aurreko ekitaldietako aktibo batean izandako hondamenagatik galerak itzuli egiten dira, haien zenbateko berreskuragarriari buruzko kalkuluan aldaketarik izan bada. Bestalde, hazi egiten da aktiboaren balioa, saneamendua egin izan ez balitz aktiboak izango zukeen liburuko balioaren mugarekin.

2007ko eta 2006ko ekitaldietan, CAF Taldeak ez du inongo zenbatekorik erregistratu aktiboaren balioa hondatzeagatik.

#### **d) Finantza-tresnak**

*Zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk*

Haien aitortza egiten denean, merkatuko balioan baloratzen dira, balantze bateratuan; ondoren, kostu amortizatuan baloratzen dira, interes efektiboko tasaren arabera.

Kobratu beharreko kontuetatik berreskuratu beharreko zenbatekoaren eta erregistratuta dauden liburuko balioaren arteko diferentziagatiko dagozkion zuzkidurak erregistratzen dira, aurreko paragrafoak dioenaren arabera. 2007ko eta 2006ko abenduaren 31n ez zegoen garrantzi handiko epe luzera kobratzeko interes jakinik gabeko konturik.

Ordainketak atzeratu dituztelako, ordainketa-etenduran, kaudimengabezia edo antzeko egoeran daudelako bezeroen zorrak estaltzeko zuzkitzen du Taldeak hornidura hori, betiere horien kobragarritasunaren azterketa banan-banan eginez. 2007an eta 2006an, kobratu beharreko kontuen hondamenagatiko zuzkiduraren mugimendu garbia 881 eta 174 mila euroko zenbateko eta aplikazio garbia (hurrenez hurren eta gutxi gorabehera) izan zen (12. oharra).

Bestalde, kreditu-lagapenen zenbatekoengatiko bezeroen saldoei baja ematen die Taldeak, betiere kreditu horiei dagozkien arrisku eta eskubide guztien transferentzia egina badauka Sozietateak (errekurtsorik gabeko factoring-a) (5. oharra). Ez 2007ko abenduaren 31n, ez 2006ko abenduaren 31n ez zegoen lagatako saldorik.

Banaka aztertu eta gero, zenbait kontratu garbitako izakin-partidetatik kobratu beharreko saldoak erregistratu zituen Taldeak, betiere likidatu beharreko kostuak egindako kostua baino handiagoak ziren kasuetan. 2007ko abenduaren 31n, 159.789 mila eurokoa zen zenbateko hori (2006ko abenduaren 31n, 159.013 mila eurokoa) (11. eta 12. oharrak).

#### *Finantza inbertsioak*

39. NKAk finkatutako sailkatze-irizpideen arabera, Taldeak sail hauetako finantza-inbertsioak mantentzen ditu:

- (1) Maileguak eta epe luzera kobratu beharreko beste kontu batzuk. Kostu amortizatuan baloratzen dira, interes efektiboko tasaren arabera. Kostu amortizatua: hasierako kostua ken printzipalaren kobratzeak, eta hondatzeagatik edo ez ordaintzeagatik ezarritako murrizketa oro. Interes efektiboko tasa: hasierako balioa fluxu guztiekin parekatzen duen eguneratze-tasa.
- (2) Mugaegunera arte gorde beharreko inbertsioak. Taldeak mugaegunera arte eduki nahi eta ahal dituen inbertsioak dira, mugaegun finkokoak. Inbertsio horiek ere bere kostu amortizatuaren arabera baloratzen dira.
- (3) Merkatuko balioan baloratutako finantza-aktibo negoziagarriak, galera eta irabazi-kontu bateratuaren bidez. Ezaugarri hauetakoren bat duten aktiboak dira:
  - Balore negoziagarritzat sailkatu dira, prezio-gorabeheren bitartez etekinak izateko erosiak baitira.
  - Finantza-deribatuak, baldin eta estaldura-erlazio batean esleitu ez badira.
  - Hasierako onespenetik sartu dugu aktibo-multzo horretan.

2007ko abenduaren 31n, Taldeak ez zeukan multzo horretan sailkatutako aktiborik.

- (4) Salmentarako finantza-aktiboak. 'Arrazoizko balioan' baloratzen dira. Multzo horretan sartzen dira negoziatzeko gordetzen ez diren erositako finantza-aktiboak, mugaegunera arteko edo galera eta irabazietan aldaketak dituzten arrazoizko balioko inbertsioetat sailkatzen ez direnak, ia oso-osorik kapital-inbertsio finantzarioei dagozkienak. Inbertsio horiek ere beren merkatu-balioarekin daude egoera bateratuaren balantzean. Sozietate ez-kotizatuak dagokienez, beste bide batzuetatik eskuratzen dira inbertsio horiek (antzeko transakzioekiko konparazioa, edo, behar adina informazio izanez gero, espero diren kutxa-fluxuen eguneratzea). Merkatu-balore honen aldaketak egoera-balantze bateratuko 'Egin gabeko aktibo eta pasiboen birbalioztatzeagatik erreserba' epigrafearen kontura edo hari ordaintzeko erregistratu behar dira, inbertsioak besterentzen diren arte. Hori egiten denean, inbertsio horiei buruzko epigrafe honetan metatutako zenbatekoa zuzenean egotzi behar zaio galera eta irabazi-kontu bateratuari.

Merkatu-balioa modu fidagarrian neurtzerik ez dagoen kotizatu gabeko sozietateetan bide alternatiboetatik (aurreko paragrafoan aipatutakoak, adibidez) eginiko finantza-inbertsioak erosketa-kostuan baloratzen dira.

CAF Taldearen zuzendaritzak finkatzen du aktibo bakoitzari dagokion sailkapen egokiena hura erosten denean. Ekitaldi bakoitzaren amaieran berrikusten du sailkapena.

#### *Esku-dirua eta beste zenbait baliabide likido baliokide*

Honi erantsitako balantze-egoera bateratuaren epigrafe honetan erregistratzen dira kaxako esku-dirua, ageriko gordailuak eta likidezia handiko eta epe laburreko beste inbertsio batzuk, guztiak ere erraz bihurtzen direnak diru eta balioz aldatzeko arriskurik ez dutenak.

#### *Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk*

Hasieran, merkatu-balioaren arabera baloratzen dira ordaindu beharreko kontuak, eta, ondoren, amortizatutako kostuaren arabera, interes efektiboko tasarekin.

#### *Kreditu-erakundeekiko zorrak eta beste zenbait finantza-pasibo*

Kreditu-erakundeekiko zorrak eta beste finantza-pasibo batzuk jasotako esku-diruaren arabera erregistratzen dira hasieran, transakzio-kostuak kenduta, hau da, ordaindutako kostu-metodoa gero aplikatzearen baliokidea. Horretarako, interes-tasa efektiboa erabiltzen da. Sortzapen-irizpidearen arabera kontabilizatzen dira finantza-gastuak emaitza-kontu bateratuan, interes-tasa efektiboa erabiliz, eta tresnaren liburuko zenbatekoari gehitzen zaizkio, ez badira likidatzen izaten diren ekitaldian (16. oharra).

#### *Finantza-tresna deribatuenak*

Kontratututako obretako eta partaidetutako sozietateetako zenbait inbertsioetako estaldura-eragiketetan erabiltzen ditu Taldeak tresna horiek, truke-tasak aldatzeko arriskutik babesteko. Hala, hainbat forward-en saleroste-kontratu izenpetu ditu CAF Taldeak, batez ere ABetako dolarretan, yenetan, libra esterlinetan eta franko suitzarretan (17.oharra).

Finantza-deribatuenak estaldurakotzat jotzeko behar diren irizpideak aztertu ditu Taldeak, baldintza hauek betetzearen: (1) Hiru arrisku-mota hauek estaltzea ('arrazoizko balioen estaldura', 'esku-diruko fluxuen estaldura' edo 'atzerriko negozioetako inbertsio garbien estaldura'); (2) Estalitako elementu edo posizioari dagokion arriskua egokiro kentzea aurreikusitako estaldura-epe osoan, eta (3) Behar bezala dokumentatzea finantza-deribatuen kontratazioa berariaz egin zela saldo edo transakzio jakin batzuk estaltzeko, baita nola egin eta neurtu nahi zen estaldura egoki hori ere, betiere Taldearen arrisku-kudeaketarekin bat badator horretarako sistema.

Finantza-arriskuak kudeatzeko helburuak eta politikak finkatu ditu CAF Taldeak, baita idatziz zehaztu ere deribatuen kontratazio-politika (estaldura-estrategia).

Hasieran, eroste-balioaren arabera baloratzen dira finantza-tresna horiek. Ondoren, honela erregistratzen dira estaldura gisara sortu eta gauzatu diren finantza-tresna deribatuetako arrazoizko balioaren aldaketak:

- Arrazoizko balioen estalduran, estaldura-elementuetan eta estalitako elementuetan sortutako diferentziak –estaltzen den arrisku-motari dagokionez– honi erantsitako galera eta irabazi-kontu bateratuaren 'Finantza-emaitza' epigrafean sartzen dira. Arrazoizko balioen estalduratzat erregistratzen ditu Taldeak 2006ko ekitalditik aurrera hasitako obretarako kontratatutako estaldurak, kondizio egokiak baitaude estaldura horietarako.
- Esku-diruaren fluxuen estalduretan, ondarearen 'Ondare-doikuntzak, baloraziorako' epigrafean erregistratzen dira, behin-behingo, estaldura-elementuetako estaldura eraginkorreko aldean sortutako balorazio-diferentziak. 2005eko ekitaldian eta lehenagokoetan hasitako obren estaldurarako erabiltzen du Taldeak irizpide hori, baita estalitako arriskua konpromiso irmoa eta sinatua ez baizik etorkizunean egitea oso litekeena den transakzioetarako ere.



– Atzerriko negozioetako inbertsio garbien estalduretan, ondarearen 'Bihurtze-diferentziak' epigrafean erregistratzen dira, behin-behingo, estaldura-elementuetako estaldura eraginkorreko aldean sortutako balorazio-diferentziak. CAF USA, Inc. sozietatearen funts propioetarako erabili da estaldura hori.

Konpromiso irmoak, egoera-balantze bateratuan, aktibo eta/edo pasiboen onespren bihurtu ahala, lehendik ondarean onartutako zenbatekoak emaitza bezala birsailkatzen dira.

#### **e) Izakinen zenbatespena**

Lehengaien eta beste zenbait hornikuntzen eta merkataritza-produktuen izakinak batez besteko erosketa-prezioan edo, txikiagoa balitz, merkatu-prezioan zenbatesten dira.

Fabrikazio-bidean dauden produktuak, produktu bukatuak eta erdibukatuak dagoeneko likidatuta dauden kostuak kenduta (3.f oharrean deskribatutako prozeduraren arabera) eta irizpide hauei jarraituz zenbatetsiko dira:

1. Obra bakoitzari egotzitako materialak eta gastuak batez besteko erosketa-prezioan edo ekoizpen-kostuan.
2. Eraldatze-gastuak, eskulanaren kostuak eta zeharkako eta zuzeneko ekoizpen-gastuak barne hartzen dituzten ordu-tasa estandarren arabera (ez dira ordu-tasa errealeen oso desberdinak).
3. Kontratu bakoitzari esleitu beharreko finantza-premien arabera kalkulatzen dira interesen kostuak.

#### **f) Sarrerren eta emaitzen onspena**

Kontratu bakoitzari dagozkion sarrerak eta emaitzak zenbatetsitako horien aurrerapen-mailaren arabera erregistratzeko irizpidea erabiltzen du Taldeak, oro har. Aurreikusitako ordu guztiekiko kontratuari egotzitako orduen ehunekoaren arabera kalkulatzen da aurrerapen-maila hori. Kontratutako proiektuetan sor daitezkeen galerak zenbateko osoaz erregistratzen dira, galera horiek ezagutzen direnean edo zenbatets daitezkeenean.

Kontratu bakoitzeko aurreikusitako emaitza jakitean, Taldeak indize zuzentzaile hauek aplikatzen ditu emaitzak eta sarrerak zehazteko:

- Aurrerapen-maila %0-10 bitartekoa denean, ez da mozkinik ez sarrerarik erregistratzen.
- Aurrerapen-maila %10ekoa baino handiagoa denean, aurrerapen-maila horren pareko mozkin- eta sarrera-ehunekoa erregistratzen da.

Egindako sarrerren eta kontratu bakoitzean aurreikusitako emaitzaren arabera (aurreko paragrafoetan adierazi bezala kalkulatu), eta aurrerapen-maila kontuan izanik, izakinei baja ematen zaie, likidatutako kostuen zenbatekoaz. Zenbateko hori galdu-irabazien kontuko dagokion kontusailean zordundu eta 'Bideango produktuak eta lanak, likidatutako kostuak egindako kostuak baino handiagoak dituztenak' kontusailean abonatzen da. Egoera-balantze bateratuaren aktiboko 'Izakinak' ataletik kenduz erregistratzen da (11. oharra).

Bestalde, produktuak saltzeko (piezak, batik bat), ondasunak besterentzen diren unean erregistratzen dira, eta titularitatea eskualdatzen da.

#### **g) Bezeroen aurrerakinak eta egindako ekoizpena**

Obra bakoitzeko onartutako sarrerren diferentzia (3.f. oharra) eta horregatik fakturatutako zenbatekoa honela erregistratzen da:

- positiboa bada, 'Fakturatzeko dagoen egindako ekoizpena' bezala, 'Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk' atalean (12. oharra).

– negatiboa bada, 'Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk - Eskaerengatik jasotako aurrerakinak' atalean.

#### **h) Eragiketak eta beste zenbait konpromiso atzerri-monetan**

Atzerriko sozietate bateratuetako dibisa-aktiboak eta -pasiboak euro bihurtu dira, 2.f. oharrean azaldu dugunez. Gainerako dibisa-aktibo eta pasibo ez-monetarioak ekitaldi bakoitzaren amaieran indarrean zegoen truke-tasaren arabera baloratu dira, eta emaitzei egotzi zaizkie zenbatetsitako truke-tasaren eta itxierako truke-tasaren arteko truke-tasaren diferentzia positibo eta negatiboak. Finantza-deribatuak kontratatuz truke-tasaren arriskua murrizteko atzerriko monetan CAF Taldeak egindako eragiketak 3.d oharrean azalduetako printzipioen arabera erregistratzen dira.

#### **i) Zorren sailkapena: epe laburrekoak ('korrontea') eta luzekoak ('ez- korrontea')**

Honi erantsitako egoera-balantze bateratuan, ekitaldi-amaierako mugaegunen arabera sailkatzen dira zorrak. Hamabi hilabetez azpiko mugaeguna duten zorrak jotzen dira epe laburrekotzat, eta hortik gorakoak epe luzekotzat.

#### **j) Diru-laguntza ofizialak**

Jasotako diru-laguntzak zenbatesteko, irizpide hauek erabiltzen dituzte Taldeko sozietateek:

1. Itzultzekoak ez diren kapitaleko diru-laguntzak diruz lagundutako aktiboaren balio txikien bezala erregistratzen dira, behin betiko ematen direnean, dagokien zenbatekoarekin, eta emaitzen kontura eramaten dira, diruz lagundutako aktiboaren amortizazio-erritmoaren arabera.
2. Ustiapeneko diru-laguntzei dagokienez, behin betiko ematen dituztenean eramaten dira emaitzen kontura, diruz lagundutako kostuak murriztuz.

#### **k) Enplegu osteko prestazioak**

Sozietate bateratuek erretiro edo heriotzengatik beren langileetako batzuekin dituzten obligazioak aseguru-konpainia independenteetan gordailutatuko edo gordailutze bidean diren kanpo-funtsetako prestazio jakin batengatik prima ordainduz zuzkitzen dira (15. oharra). 2007an eta 2006an zenbait langileri zuzkitutako zenbatekoa 2.020 mila eurokoa eta 2.105 mila eurokoa izan zen, hurrenez hurren, eta honi erantsitako galera eta irabazi-kontu bateratuko 'Pertsonal-gastuak' epigrafearen kontura egin zen. 2007ko abenduaren 31n, Taldeak ez zeukan kontzeptu horiengatik ordainketarik egiteke. Langile guztien oinarriko soldataren %1,75eko zuzkidura egiten du Sozietate Nagusiak, indarrean den hitzarmen kolektiboaren arabera.

Halaber, sozietate nagusiko administratzaileek, aholkulari legalen azterketa aintzat harturik, langile aktiboetako batzuekiko eskubide historiko bat finkatzeko aukera aztertu zuten 2006ko ekitaldian. Hori zela eta, 12.979 mila euroko eta 41 mila euroko pasiboa izan zuen Taldeak 2006an egoera-balantze bateratuko 'Pasibo ez-korrontea. Epe luzeko beste finantza-pasibo batzuk' eta 'Pasibo korrontea. Beste zor batzuk. Beste pasibo korronte batzuk' epigrafeetan zehaztutako prestazioagatik, 2006ko galera eta irabazi-kontu bateratuko 'Pertsonal-gastuak' epigrafearen kontura. 2007ko ekitaldian, Sozietate Nagusiak kanpoan azpikontratatu du plan hori, eta 12.048 mila euroko prima ordaindu, aurreko ekitaldietako zuzkiduren kontura. Egiazki emandako iraganeko zerbitzuengatik sortzapena ere sartzen da prima horretan. Halaber, 1.208 mila euroko zuzkidura egin da, sortzapen-printzipioari jarraiki, 2007ko galera eta irabazi-kontu bateratuko (22 oharra) 'Pertsonal-gastuak' epigrafearen kontura eta 2007ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuko 'Pasibo ez-korrontea. Epe luzeko beste finantza-pasibo batzuk' epigrafearen zordunduz, 2007ko ekitaldiko sortzapenagatik (2008ko ekitaldian likidatzea espero da). Hitzartutako konpromisoaren etorkizuneko aldaketak eta emandako zerbitzuengatik sortzapena, berriz, dagokion ekitaldiko emaitza-kontuari kargatuko zaio.

Hirugarren independente batek eginiko aktuaritza-azterketako hipotesietan, merkatu-mota bati deskontatu zaizkio etorkizuneko konpromisoak, betiere iraganeko soldata-igoeren antzekoen arabera.

### **l) Erretiro aurreratuak eta lan uzteagatiko kalte-ordainak**

2007ko abenduaren 31n, egoera-balantze bateratuko (honi erantsia) 'Pasibo ez-korrontea. Epe luzeko beste finantza-pasibo batzuk' eta 'Pasibo korrontea. Beste zor batzuk. Beste pasibo korronte batzuk' epigrafeek 9.563 mila eta 2.140 mila euroko (gutxi gorabehera eta hurrenez hurren) zenbatekoak zituzten (2006an, 6.889 mila eta 1.911 mila euro, hurrenez hurren). Bat datoz zenbateko horiek 2007ko abenduaren 31n Taldeak errelebu-kontratuarekin zeuzkan langileei eta lan-hitzarmena indarrean dela (2008) sari hori jasotzen hasiko direnei etorkizunean egin beharreko ordainketen egungo balioarekin, administratzaileek egindako kalkuluen arabera. 2006ko ekitaldian erregistratu zen zuzkidura hori, eta 2007ko galera eta irabazi-kontu bateratuko 'Pertsonal-gastuak' epigrafean (honi erantsia) ordaindu eta eguneratu zen (18 eta 22. oharra). Zenbatekoa, 4.957 eurokoa izan zen.

### **m) Sozietateen gaineko zerga**

Espainiako Sozietateen Gaineko Zerga eta atzerriko sozietate bateratuetako antzeko gainerako zergak galera eta irabazi-kontu bateratuan erregistratzen dira, ondare garbian zuzenean erregistratzen den transakzio baten ondorio ez badira behintzat; hala badira, ondare garbian erregistratzen da dagokion zerga ere.

Ekitaldiko irabazien gaineko zerga-gastua honela kalkulatu da: ekitaldiko oinarri zergagarriari aplikatzen zaion zerga-tasako zerga korrontearen batura eginez (zerga aldetik onargarri diren kenketak egin eta gero) zerga aurreratu eta geroratuengatiko eta zerga-kredituengatiko aktibo eta pasiboen aldaketarekin, bai oinarri zergagarri negatiboengatikoak bai kenketengatikoak. Zerga geroratuengatiko aktibo eta pasiboetan sartzen dira denbora-alde hauek: finantza-egoera bateratuetako aktibo eta pasiboen liburuko zenbatekoen eta haien zerga-balioaren arteko aldeengatik ordaindu edo berreskuratu beharreko zenbatekoak, baita konpentsatu beharreko oinarri zergarri negatiboak eta zerga-aplikaziorik gabeko zerga-kenkariengatiko kredituak ere. Honela erregistratzen dira zenbateko horiek: dagokion denbora-alde edo kredituari aplikatuz haiek berreskuratu edo likidatzea espero den zerga-tasa.

Geroratuengatiko pasiboak onartzen zaizkie denbora-alde aplikagarri guztiei, salbu -oro har- denbora-aldea merkataritza-funtsaren hasierako onespentik sortua bada. Bestalde, zerga geroratuengatiko aktiboak (denbora-aldeekin identifikatuak) onartzen dira -bakarrik- uste baldin bada erakunde bateratuek gerora izango dutela behar adina zerga-irabazirik (eskari-zorroak estaltzen duenik, alegia) haien kontura diru bihurtzeko. CAF Talde Bateratuan, eskaera-zorroak estaltzen duena jotzen da irabazi nahikotzat. Zerga geroratuengatiko gainerako aktiboak (oinarri zergagarri negatiboak eta konpentsatu beharreko kenkariak) onartzen dira -bakarrik- uste bada erakunde bateratuek izango dutela etorkizunean behar adina zerga-irabazirik haien kontura diru bihurtzeko.

FINAen arabera, zerga geroratuengatiko aktibo eta pasibo guztiak aktibo eta pasibo ez-korrontetzat sailkatu dira.

Indarrean dagoen legeriaren arabera, oraindik aplikatu gabe dauden hobari eta kenkariei dagozkien zerga-kredituak erregistratu egin behar dira kontabilitatean, betiere zerga-arauan ezarritako baldintzak betela direla aurreikusten bada. 2007ko abenduaren 31n, 12.254 mila euro zeuzkan aktibatuta Taldeak 'Finantza-aktibo ez-korrontek' (9. oharra) eta 'Aktibo korrontea. Administrazio publikoak' epigrafeetan, 25.100 mila euro aplikatu ondoren 2007ko Sozietateen gaineko Zergaren kalkuluan (18. oharra) -2006ko abenduaren 31n, 8.500 mila eurokoa zen aktibatutako zenbatekoa, 2006ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren kalkuluan 6.000 mila euro aplikatu eta 8.500 mila euro erregistratu ondoren galera eta irabazi-kontu bateratuko 'Irabazien gaineko zergak' epigrafean ordaintzeko- eta 5.304 mila eta 6.950 mila euro erregistratu ondoren emaitza-kontura eta 'Borondatezko erreserbak' epigraferan ordaintzeko (14, 19 eta 21 oharra). Era horretako aktiboak berreskuratzeko ziurgabetasuna kontuan izanik, eskaera-zorroaren ebaluazioan oinarritutako aktibazio-irizpide bat erabiltzen du Taldeak.

Bestalde, aktibatutako zenbatekotik 'Finantza-aktibo ez-korronteak - Maileguak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk' epigrafean daude 7.776 mila euro (9. oharra); gainerakoa, berriz, 2007ko abenduaren 31ko alboko egoera-balantze bateratuaren 'Aktibo korrontea. Administrazio publikoak' epigrafean (19. oharra).

#### **n) Errentamenduak**

Finantza-errentamendu gisara sailkatzen ditu CAF Taldeak errentamendu-kontratu hauek: alokatzaileak maizterrari ondasun-jabetzaren arrisku eta onura guztiak besterentzen dizkionak. Gainerako errentamenduak eragiketa-errentamendu gisara sailkatzen dira.

2007ko abenduaren 31n, CAF Taldeak ez zeukan finantza-errentamendu gisara sailkatutako kontratu bakar bat ere.

Kontratua indarrean den bitartean, galera eta irabazi-kontu bateratuko 'Beste zenbait ustiapen-gastu' epigrafeari egozten zaizkio eragiketa-errentamenduek sortutako gastuak, sortzapen-irizpidearen arabera.

#### **ñ) Epe luzerako zuzkidurak**

Taldeak hornidurak zuzkitzen ditu, iraganeko gertakariak direla-eta sortutako obligazio bat dela medio. Obligazioa amaitzen denean, zenbait baliabide uztekoa da Taldea, hura kitatzeko. Sozietate Nagusiko administratzaileek data horretarako eginiko kalkulurik onena da zenbatekoa, eta egungo balioarekin erregistratzen da, finantza-eragina nabarmena bada, betiere. 2007ko eta 2006ko ekitaldietan, 691 mila euro eta 713 mila euroko ordainketak egin ditu Taldeak, eta 262 mila euro eta 652 mila euro eman ditu, 'Pertsonal-gastuak. Soldatak eta lansariak'-en kontura gehienbat (22. oharra).

#### **o) Epe motzerako zuzkidurak**

Ondoko egoera-balantze bateratuko epigrafe honetan daude batez ere kontratuetako berme eta laguntza-zerbitzuetako gastuak eta bere jarduerako beste zenbait alderdi estaltzeko Taldearen zuzkidurak (20. oharra). Honi erantsitako 2007ko galera eta irabazi-kontu bateratuko 'Beste zenbait ustiapen-gastu' epigrafean 37.188 mila euro (49.851 mila euro 2006ko ekitaldian) erregistratu dituzte sozietate bateratuek. Ekitaldi-amaieran kontzeptu horiengatik egindako zuzkiduren eta aurreko ekitaldi-amaierakoen arteko diferentziari dagokio zenbateko hori. Kontratuak bermatzeko 2007ko eta 2006ko ekitaldietan emandako zerbitzuen gastuak (17.139 eta 10.870 mila euro, gutxi asko) ondoko 2007ko eta 2006ko irabazi eta galera-kontu bateratuko 'Hornikuntzak' eta 'Pertsonal-gastuak' epigrafeetan erregistratu dira.

#### **p) Ingurumen-alderdiak**

Eroste edo ekoizte-kostuan erregistratzen ditu Taldeak ingurumen-inbertsioak, amortizazio metatua kenduta eta, izaeraren arabera, dagokien ibilgetu materialaren atalean sailkatuta (8 eta 21.c oharrak).

Aplikatu beharreko ingurumen-legeria betetzeko egindako gastuak galdu-irabazien kontu bateratuko 'Beste zenbait ustiapen-gastu' epigrafean sailkatzen dira, izaeraren arabera (21.c oharra).

Bestalde, 1866/2004 Errege Dekretua onartu zen 2004ko ekitaldian. Dekretu horrek arautzen du 2005-2007 eperako CO<sub>2</sub>-ren Emisio Eskubideen Plan Nazionala. Araudiak agintzen duenez, 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera egiten dituen emisioetarako baimena behar du CAFek. 60/2005 Errege Dekretuak onartu du lantegi bakoitzerako banakako emisio-eskubideen doako esleipena 2005-2007 eperako. CAFi 67.464 tona CO<sub>2</sub> aireratzeko eskubidea dagokio epe horretan. Esleitutako eskubide-bolumena baino gehiago aireratzuz gero, merkatuan erosi beharko dira emisio-eskubideak.

2005etik aurrera, bere jardueragatik CO<sub>2</sub> emisioak egiten dituzten Europako sozietateek hurrengo ekitaldiko lehen hilabeteetan aurkeztu behar dituzte CO<sub>2</sub>-ren emisio-eskubideak, ekitaldian egindako emisioen baliokideak.

2007ko ekitaldian, ekitaldi horretarako esleitutako eskubideak baino 3.000 tona gehiagoko emisioak egin ditu Taldeak, gutxi gorabehera, eta gehiegizko kantitate hori estaltzeko, 3 mila euroko emisio-eskubideak erosi ditu merkatuan. Ekitaldia ixtean, ez da inongo zenbatekorik erregistratu, ez baitzen nabarmentzeko modukoa.

#### q) Esku-diruaren fluxuen egoera

Zeharkako metodoaren arabera prestatu da esku-diruaren fluxu bateratuen egoera. Hona hemen sail horretako zenbait terminoren esanahia:

- Esku-diruaren fluxuak: esku-diruaren eta haren baliokideen sarrerak eta irteerak. Likidezia handiko inbertsioei deritze 'baliokide', balio-aldaketa nabarmenik izateko arriskurik ez dutenei.
- Ustiatze-jarduerak: Talde bateratuko sozietateen jarduera arruntak, baita inbertsio edo finantziazio-jardueratzat sailkatu ezin diren beste jarduera batzuk ere.
- Inbertsio-jarduerak: epe luzerako aktiboak eta esku-dirua edo haren baliokide ez diren beste inbertsio batzuk erosi, besterendu edo beste bide batzuetatik eskuratzeko jarduerak.
- Finantziazio-jarduerak: ondare garbiaren eta ustiatze-jarduerako ez diren pasiboen tamaina eta osaeran aldaketak eragiten dituzten jarduerak.

#### r) Akzio bakoitzeko mozkinak

Honela kalkulatzen da akzioko oinarrizko mozkinak: Sozietate nagusiari dagokion epeko irabazi garbiaren eta epe horretan zirkulazioan izan diren akzio arrunten batez besteko kopuru haztatuaren zatidura.

2007ko eta 2006ko abenduaren 31n amaitutako CAF Taldearen urteko ekitaldi bateratuetako kontuei dagokienez, bat dator akzioko oinarrizko mozkinak mozkin diluituarekin, ez baita akzio potentzialik zirkulazioan ibili ekitaldi horretan.

#### s) Jarraitutasunik gabeko eragiketak

Jarraitutasunik gabeko eragiketak: uztea eta/edo besterentzea erabaki den negozio-linea, zeinaren aktiboak, pasiboak eta emaitzak bereiz daitezkeen alderdi fisikoari, eragiketei eta finantza-informazioari dagokienez. Bereiz aurkezten dira jarraitutasunik gabeko eragiketen sarrera-irteerak, emaitza-kontu bateratuan.

2007ko eta 2006ko ekitaldietan, negozio-lerro edo unitate bakar bat ere ez da geratu jarraitutasunik gabe.

## 4. Sozietate Nagusiaren emaitzaren banaketa

---

Sozietate nagusiaren 2007ko ekitaldiko emaitzen banaketa honela egin da, Administrazioaileek hala proposaturik:

<b>Banaketa</b>	<b>Mila Euro</b>
Borondatezko erreserbak	73.942
Dibidenduak	29.139
<b>Guztira</b>	<b>103.081</b>



## 5. Finantza-arriskuak kudeatzeko politika

---

Zenbait arrisku finantzario dituzte CAF Taldearen jarduerak: merkatu-arriskuak (truke-tasa aldatzearen arriskua, arazoizko balioaren interes-arriskua eta prezio-arriskua barne direla), kreditu-arriskua, likidezia-arriskua eta esku-diruaren fluxuen interes-tasaren arriskua.

Merkatu finantzarioen ziurgabetasunari arreta berezia egiten dio CAF Taldeak, eta saiatzeko da Taldearen errentagarritasun ziurgabetasun horrek eragin diezazkiokeen kalteak murrizten.

Taldearen Finantza Sailak identifikatu, aztertu eta estaltzen ditu arrisku finantzarioak, eta idatzizko politikak finkatzen ditu arrisku orokorra kudeatzeko, baita alor jakin batzuetarako ere (truke-tasaren arriskua, likidezia-arriskua, eratorrien eta eratorri gabeen erabilera, eta likidezia-soberakinaren inbertsioa).

### a) Merkatu-arriskua

Nazioartean dihardute CAF Taldeko sozietateek, hots, truke-tasaren arriskupean dibisekin eragiketarik egiteagatik (dolarrekin eta Mexikoko pesoarekin, batez ere). Truke-tasaren arriskua zer hauetatik dator: geroko transakzio komertzialak, aitortutako aktiboak eta pasiboak eta atzerriko eragiketarik egiten diren inbertsio garbiak.

Epeko kontratuak erabiltzen dituzte Taldeko sozietateek geroko transakzio komertzialak eta aitortutako pasiboak eta aktiboak sortzen duten truke-tasaren arriskua kontrolatzeko. Truke-tasaren arriskua, geroko transakzio komertzialak eta aitortutako pasiboak eta aktiboak Taldearen funtzionamendu-moneta (euroa) ez den beste batean egiten direnean sortzen da.

Taldearen ohiko jarduera, Taldearen funtzionamendu-moneta ez den beste batean egindako kontratuetan, merkatu-arriskua osorik estaltzea da. Estaldura horren helburua sinatutako kontratuetan dibisen gorabeheren eragina saihestea da. Taldearen emaitzak bere jarduera industrialaren eta zerbitzuaren isla zehatz izan daitezke.

Lehengai nagusiei dagokienez, obra berri baten esleipena ematean egiten du Taldeak lehengai-eskaria eta ixten du prezioa. Hartara, babesturik dago lehengaien prezio-igoerak kontratu-marjinetan izan lezakeen eragin kaltegarritik.

### b) Kreditu-arriskua

Kobratu beharreko kontu eta dituzten bideango lanik gehienak hainbat herrialdeetako bezeroei dagozkie. Kasurik gehienetan, kontratuak proiektuak aurrera egin ahala hainbateko ordainketak barnatzen dituzte.

Ohiko jarduera du Sozietateak kontratuen deuseztatze edo ez ordaintze arriskua aseguratzea ELGETik kanpoko herrialdeetan. Horretarako, esportaziorako aseguru-polizak kontratatzen dira, ELGETik Hitzarmenak gai horietarako dituen arauen arabera.

Horrez gain, taldeak badu zenbait finantza-erakunderen konpromiso sendo hau: kobratu gabeko kontuak erostekoa, errekurtsorik gabe. Hitzarmen horietan, hainbateko bat ordaintzen dio Taldeak bankuari kreditu-arriskua bere gain hartzeagatik, baita interes eta marjina bat ere finantziarioagatik.

### c) Likidezia-arriskua

Likidezia-arriskuaren kudeaketa zuzenak eskatzen du behar hainbat esku-diru eta balore negoziagarri edukitzea, baita hartutako konpromiso guztiei aurre egiteko finantza-baliabide izatea ere.

Honela kudeatzen da likidezia-arriskua CAF Taldean:

- Kontratu bakoitzaren autofinanziazio-mailarik ahalik eta handiena lortzen saiatuz
- Erabili gabeko finantziario-ahalmenari eutsiz

#### **d) Esku-diruaren fluxuen eta arazoizko balioaren interes-tasaren arriskua**

Besteren baliabideak erabiltzetik datorkio Taldeari interes-tasaren arriskua. Ohiko politika du CAF Taldeak soilik egoera jakin batzuetan zorpetzea beste batzuekin, epe laburreko kanpoko baliabideen bitartez (merkatu-indize aldakorrekoak; normalean, Euribor). Horri esker, nabarmen murrizten da interes-tasa horren arriskua. 2007ko abenduaren 31n, finantza-zor ia osoa Mexikoko emakidari zegokion (7. eta 16. oharrak). Project Finance modalitatearen pean egituratutako zorra da, ez die Taldeko gainerako sozietateei eragiten, eta interes-tasa finkokoa da.

## **6. Segmentazioa**

---

### **6.1. Segmentazio-irizpideak**

Hona hemen urteko kontu bateratuetan CAF Taldeak informazio segmentatua aurkezteko irizpideak:

- Lehen mailako segmentazioa negozio-unitateen arabera egin da, 'tregintza' eta 'piezak eta osagaiak' bereizita.
- Bigarren mailako segmentazioa, berriz, Taldeko lantegien kokapen geografikoaren arabera egin da.

### **6.2. Segmentutako informazioaren oinarriak eta metodologia**

Segmentuari zuzenean dagozkionak dira haren ohiko sarrera eta gastuak; hortaz, ez dira sartu inbertsio-salmenten, berreskuratze-eragiketen edo zor-amaierako eragiketen interes, dibidendu, irabazi eta galerarik. Gutxiengodun interesei legokiekeen zeinahi doikuntza baino lehen aurkezten da segmentuaren emaitza. Segmentuaren ustiapenarekin zuzeneko lotura dutenak dira haren pasiboak eta aktiboak.

#### *Lehen mailako segmentazioa*

Segmentazio nagusirako oinarriak Nazioarteko Araudiaren arabera aztertu ondoren, segmentu nagusitzat sailkatu ditu CAF Taldeak izan dituen bi negozio-unitateak, haien antolakuntza-egitura, kudeaketa eta administrazio eta zuzendaritza-organoetarako barne informazioko sistema direla eta, eragiketak negozio-unitate batean edo bestean egitearen arabera baitituzte arriskuak eta emaitzak. Negozio-unitatea: zerrendako produktu eta zerbitzu guztiak. Azken batean, lehen mailako segmentazioaren bidez identifikatzen dira CAF Taldeko zenbait osagai identifikagarri, beste ingurune batzuetan diharduten eragiketa-osagaiak ez bezalako arrisku eta errendimenduak dituztenak hain justu ere.

Hurrengo segmentu nagusien sorreran eragina izan du horrek, urteetako eskarmentuak adierazten digunez. CAFen iritzi, segmentu horiek betetzen dituzte barne-homogeneotasuneko arauak baldintza ekonomiko edo politikoen kidetasunari dagokionez, baita aplikagarri diren erregulazioek, truke-tasak edo jardueren hurbiltasunak eragiten dituzten arriskuei dagokienez ere. Arrazoi berberak bereizten dituzte segmentu horiek gainerakoetatik:

- Trenak
- Piezak eta osagaiak

Informazioa, negozio-segmentuka:

<b>2007 (Mila Euro)</b>				
<b>Lehen Mailako Segmentazioa (Negozio-Unitateak)</b>	<b>Trenak</b>	<b>Piezak eta Osagaiak</b>	<b>Orokorra</b>	<b>Guztira</b>
<b>NEGOZIO-ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA:</b>				
Kanpoko salmentak	824.622	49.852	—	874.474
Segmentuen arteko salmentak	—	24.579	—	24.579
Segmentuen arteko ezabaketak	(24.579)	—	—	(24.579)
<b>Salmentak, guztira</b>	<b>800.043</b>	<b>74.431</b>	<b>—</b>	<b>874.474</b>
<b>EMAITZAK:</b>				
Segmentuko emaitzak	84.190	2.907	(1.042)	86.055
Enpresa elkartuen partaidetza irabazi garbietan	—	—	387	387
Finantza-emaitza	—	—	11.521	11.521
Aktibo ez-korronteak besterentzearen irabaziak edo galerak	—	—	28	28
<b>Mozkinak, zergen aurretik</b>	<b>84.190</b>	<b>2.907</b>	<b>10.894</b>	<b>97.991</b>
Mozkinen gaineko zerga	—	—	(9.690)	(9.690)
<b>Ekitaldiko mozkin garbia</b>	<b>84.190</b>	<b>2.907</b>	<b>1.204</b>	<b>88.301</b>
Kanpoko bazkideei egotzitako emaitza	—	—	(675)	(675)
<b>Sozietate nagusiari egotzitako emaitza</b>	<b>84.190</b>	<b>2.907</b>	<b>529</b>	<b>87.626</b>
<b>AKTIBOAK:</b>				
Beste aktibo ukiezin batzuk	197.325	231	—	197.556
Ibilgetu materiala	136.703	27.390	7.830	171.923
Izakinak	(11.877)	30.807	—	18.930
Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk	318.679	12.243	3.450	334.372
Beste aktibo ez-korronte batzuk	—	—	72.344	72.344
Beste aktibo korronte batzuk	—	—	502.121	502.121
<b>Aktiboak, guztira</b>	<b>640.830</b>	<b>70.671</b>	<b>585.745</b>	<b>1.297.246</b>
<b>PASIBOAK:</b>				
Mozkina	84.190	2.907	529	87.626
Merkataritza-hartzekodunak	467.090	15.641	9.782	492.513
Trafiko-eragiketetarako hornidurak	113.991	1.004	—	114.995
Beste zenbait finantza-pasibo ez korronte	89.289	2.999	122	92.410
Beste zenbait finantza-pasibo korronte	19.290	—	—	19.290
Ondare garbia (urteko mozkinik gabe)	—	—	216.860	216.860
Beste zenbait pasibo ez-korronte	161.232	—	21.465	182.697
Beste zenbait pasibo korronte	26.109	—	64.746	90.855
<b>Pasiboak, guztira</b>	<b>961.191</b>	<b>22.551</b>	<b>313.504</b>	<b>1.297.246</b>

Emakida administratiboei dagozkien pasiboak eta aktiboak Trenak alorrean daude erregistratuta. 2007ko abenduaren 31n, kontzeptu horri dagozkion pasiboak eta aktiboak 285 milioi (7., 13. eta 16. oharra) eta 199 milioi ziren (16. oharra), gutxi gorabehera eta hurrenez hurren (2006ko abenduaren 31n, 139 eta 97 milioi, hurrenez hurren).

## 2006 (Mila Euro)

Lehen Mailako Segmentazioa (Negozio-Unitateak)	Trenak	Piezak eta Osagaiak	Orokorra	Guztira
<b>NEGOZIO-ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA:</b>				
Kanpoko salmentak	763.269	42.458	—	805.727
Segmentuen arteko salmentak	—	16.372	—	16.372
Segmentuen arteko ezabaketak	(16.372)	—	—	(16.372)
<b>Salmentak, guztira</b>	<b>746.897</b>	<b>58.830</b>	<b>—</b>	<b>805.727</b>
<b>EMAITZAK:</b>				
Segmentuko emaitzak	44.526	2.156	(3.820)	42.862
Enpresa elkartuen partaidetza irabazi garbietan	—	—	298	298
Finantza-emaitza	—	—	(1.273)	(1.273)
Aktibo ez-korronteak besterentzearen irabaziak edo galerak	—	—	633	633
<b>Mozkinak, zergen aurretik</b>	<b>44.526</b>	<b>2.156</b>	<b>(4.162)</b>	<b>42.520</b>
Mozkinen gaineko zerga	—	—	(7.869)	(7.869)
<b>Ekitaldiko mozkin garbia</b>	<b>44.526</b>	<b>2.156</b>	<b>(12.031)</b>	<b>34.651</b>
Kanpoko bazkideei egotzitako emaitza	—	—	(12)	(12)
<b>Sozietate nagusiari egotzitako emaitza</b>	<b>44.526</b>	<b>2.156</b>	<b>(12.043)</b>	<b>34.639</b>
<b>AKTIBOAK:</b>				
Beste aktibo ukiezin batzuk	101.154	135	—	101.289
Ibilgetu materiala	132.620	18.070	4.919	155.609
Izakinak	22.441	28.452	—	50.893
Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk	388.407	9.528	4.243	402.178
Beste aktibo ez-korronte batzuk	—	—	48.620	48.620
Beste aktibo korronte batzuk	—	—	298.015	298.015
<b>Aktiboak, guztira</b>	<b>644.622</b>	<b>56.185</b>	<b>355.797</b>	<b>1.056.604</b>
<b>PASIBOAK</b>				
Mozkina	44.526	2.156	(12.043)	34.639
Merkataritza-hartzekodunak	457.361	11.042	5.446	473.849
Trafiko-eragiketetarako hornidurak	75.488	793	6.029	82.310
Beste zenbait finantza-pasibo ez korronte	79.890	—	—	79.890
Beste zenbait finantza-pasibo korronte	18.722	—	—	18.722
Ondare garbia (urteko mozkinik gabe)	—	—	191.392	191.392
Beste zenbait pasibo ez-korronte	96.709	—	29.789	126.498
Beste zenbait pasibo korronte	—	—	49.304	49.304
<b>Pasiboak, guztira</b>	<b>772.696</b>	<b>13.991</b>	<b>269.917</b>	<b>1.056.604</b>

Erabilera orokorreko aktiboak eta pasiboak eta horiek sortutako emaitzak ez zaizkie esleitu gainerako segmentuei. Era berean, ez dira esleitu berdinkatze-sailak ere, negozio-unitateetako finantza-egoerak (kudeaketa-irizpideekin eginak) CAF Taldeko finantza-egoera bateratuekin elkartzearen emaitzek sortzen dituztenak alegia.

### Bigarren mailako segmentazioa

Segmentu geografikoka egin da bigarren mailako segmentazioa:

- Espainia
- Espainiatik kanpo

Hona hemen bigarren mailako segmentuei dagokien informazioa:

a) Salmentak, segmentu geografikoka, 2007ko eta 2006ko abenduaren 31n (milaka euro):

<b>Eremu Geografikoa</b>	<b>2007</b>	<b>%</b>	<b>2006</b>	<b>%</b>
Espainiako merkatuan	562.987	64,38	561.607	69,70
Espainiatik kanpoko merkatuan(*)	311.487	35,62	244.120	30,30
<b>Guztira</b>	<b>874.474</b>	<b>100,00</b>	<b>805.727</b>	<b>100,00</b>

(\*) Sozietate Nagusitik (Espainia) egiten dira Espainiatik kanpoko merkatuko salmenta gehienak.

b) Ibilgetu materialean egindako inbertsio garbiak, segmentu geografikoka, 2007ko eta 2006ko abenduaren 31n (eurotan):

<b>Eremu Geografikoa</b>	<b>2007</b>	<b>2006</b>
Espainia	167.548.448	150.619.912
Espainiatik kanpo	4.374.549	4.985.662
<b>Guztira</b>	<b>171.922.997</b>	<b>155.609.574</b>

Bestalde, aurreko koadroan adierazitakoaz gain, Mexikoko emakidako zerbitzuak emateko egin beharreko azpiegiturak eraikitzeko ere inbertitu du Taldeak. 'Beste aktibo ukiezin batzuk. Emakida administratiboak' epigrafean daude erregistratuta aktibo horiek, aplikagarri den araudiaren arabera (7. oharra). Mexikon egin dira inbertsio horiek guztiak.



## 7. Beste aktibo ukiezin batzuk

Hona hemen 2007ko abenduaren 31n eta 2006ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietan 'Beste aktibo ukiezin batzuk' epigrafeko kontuetan eta dagozkien metatutako amortizazioetan izandako mugimendua:

	Euros				
	Emakida administrativas	Garapen- Gastuak	Aplikazio Informatikoak	Beste Zenbait	Guztira
<b>05.12.31ko saldoa</b>					
Kostua	—	23.157.806	9.485.935	29.713	32.673.454
Amortizazio metatua	—	(11.771.913)	(8.250.315)	(18.696)	(20.040.924)
<b>Garbia</b>	<b>—</b>	<b>11.385.893</b>	<b>1.235.620</b>	<b>11.017</b>	<b>12.632.530</b>
<b>Kostua</b>					
Baterakuntza-eremura sartutakoak (2.f oharra) (*)	—	—	4.076	—	4.076
Sarrerak (*)	97.126.140	1.348.867	117.619	—	98.592.626
Intsuldetak izakinetara (11. oharra)	—	(5.540.760)	—	—	(5.540.760)
Irteerak, bajak edo murriztapenak	—	(214.801)	(41.992)	(29.713)	(286.506)
<b>Kostu-saldoa, 06.12.31n</b>	<b>97.126.140</b>	<b>18.751.112</b>	<b>9.565.638</b>	<b>—</b>	<b>125.442.890</b>
Baterakuntza-eremura sartutakoak (2.f oharra) (*)	—	—	141	48.478	48.619
Sarrerak (*)	97.757.537	803.955	649.334	—	99.210.826
Intsuldetak izakinetara (11. oharra)	—	(1.389.795)	—	—	(1.389.795)
Irteerak, Bajak edo Murriztapenak (*)	—	—	(168.921)	—	(168.921)
<b>Kostu-saldoa, 07.12.31n</b>	<b>194.883.677</b>	<b>18.165.272</b>	<b>10.046.192</b>	<b>48.478</b>	<b>223.143.619</b>
<b>Amortizazio metatua</b>					
Baterakuntza-eremura sartutakoak (2.f oharra) (*)	—	—	—	—	—
Sarrerak edo zuzkidurak (*)	—	(3.455.011)	(718.760)	(4.874)	(4.178.645)
Irteerak, Bajak edo Murriztapenak (*)	—	—	41.992	23.570	65.562
<b>Amortizazio metatuaren saldoa, 06.12.31n</b>	<b>—</b>	<b>(15.226.924)</b>	<b>(8.927.083)</b>	<b>—</b>	<b>(24.154.007)</b>
Baterakuntza-eremura sartutakoak (2.f oharra) (*)	—	—	—	—	—
Sarrerak edo zuzkidurak (*)	—	(1.273.898)	(837.817)	—	(2.111.715)
Eskualdatzeak	—	509.006	—	—	509.006
Irteerak, Bajak edo Murriztapenak (*)	—	—	168.920	—	168.920
<b>Amortizazio metatuaren saldoa, 07.12.31n</b>	<b>—</b>	<b>(15.991.816)</b>	<b>(9.595.980)</b>	<b>—</b>	<b>(25.587.796)</b>
<b>Garbia, 06.12.31n</b>	<b>97.126.140</b>	<b>3.524.188</b>	<b>638.555</b>	<b>—</b>	<b>101.288.883</b>
<b>Garbia, 07.12.31n</b>	<b>194.883.677</b>	<b>2.173.456</b>	<b>450.212</b>	<b>48.478</b>	<b>197.555.823</b>

(\*) Kanbio-tasa bihurtzeagatiko eragina barne hartzen du.

3.a oharrean deskribatutakoaren arabera, 881 mila euro eta 1.363 mila euro intsuldatu ditu Taldeak 2007an eta 2006ean, proiektu batek aktibatutako garapen-gastuetatik, garatutako teknologia duen kontratu batera (11. oharra).

'Emakida administratiboak' deiturapean erregistratutako ekitaldiko gehikuntzak 137.454 mila eurotan emakidaren Mexikoko ustiapenerako aktiboen kostuari dagozkio (2006an, 119.554 mila euro), jasotako 39.696 mila euroko diru-laguntzetatik (2006an, 22.418 mila euro) garbiak. 2007ko abenduaren 31n, emakida hori ez zen ustiatzen ari, eta 2008ko ekitaldian ustiapena hastea espero da, ekitaldiaren amaieran %80 ingurukoa baitzen eginda zegoen %.

2003ko abenduaren 4an eta 2005eko ekainaren 24an, Mexikoko Komunikazio eta Garraio Idazkaritzak (SCT) berariazko lankidetzaz hitzarmenak sinatu zituen Mexikoko Estatuako gobernuarekin, Mexikoko Haraneko ingurune metropolitarrako lur azpiko trenbidea eraikitzeko.

2005eko uztailaren 12an, Cuautitlán eta Buenavista artean bidaiariak garraiatzeko trenbideko zerbitzu publikoaren emakida esleitzeko deialdia eta oinarri orokorrak argitaratu zituen Federazioko Egunkari Ofizialak. Erregularra eta hiripekoa izango da zerbitzua. Mexikoko estatuan eta Mexiko Hirian (DF) dago aipatutako ibilbidea. Federazioaren hainbat ondasun publiko higiezin erabili eta aprobetxatzeko ere bada deialdia (besteak, beste, behar diren zerbitzu osagarriak emateko). Gerora, 2005eko uztailaren 20ko eta 2005eko abuztuaren 23ko aldaketak plazaratu ziren, eta partaideei jakinarazi.

2005eko abuztuaren 25ean, Ferrocarriles Suburbanos, S.A. de C.V. mendeko sozietateari eman zion emakidaren titulua SCTk.

Hona hemen emakidaren baldintza orokorrak:

- hogeita hamar urteko indarraldia du emakidak, kontratua izenpetzen denetik zenbatzen hasita. Epe hori igarotakoan, erakunde emaileari itzuliko zaizkio enpresa emakidadunaren aktiboak. Emakidadunari egotz ez dakiokeen gertakariren batek garraio-zerbitzu ematearen atzerapenik edo bertan behera uzterik eragiten badu, denbora-tarte hori ez da zenbatuko emakidaren iraupen-kalkulurako. Emakidaren indarraldia luzatzeko eskatu ahal du emakidadunak.
- emakidadunak ipar-mendebaldeko tren bidezko komunikazioko bide orokorraren bidez garraio zerbitzua emateko nahitaezko iragite-eskubideak izateko eskubidea du, Cuautitlán-Buenavista eta Cuautitlán-Huehuetoca tartean.
- emakidadunak egin behar ditu trenbideetako lan guztiak, baita eraikuntza, berreraikuntza eta egokitze-lanak ere, eta lur azpiko trenbidea martxan jartzeko behar diren material, ekipamendu eta trenen azpisistema guztien hornidura eta instalazioa egin, bideetako eta hiri barruko obrak izan ezik (SCTri dagozkio horiek) Mexikoko Estatuako eta Barruti Federaleko agintariekin elkarlanean.

Sozietate nagusiko administratzaileek, hirugarren batzuei agindutako azterketak oinarri dituztela, emakidaren etorkizuneko jarduerak han erabilitako aktiboen kostu garbia berreskuratzeko aukera emango duela uste dute.

Eskaintzaren oinarri orokorretan daude emakida-tituluaren xehetasunak.

## 8. Ibilgetu materiala

Hona hemen 2007ko abenduaren 31n eta 2006ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietan 'Ibilgetu materiala' epigrafeko kontuetan eta dagozkien metatutako amortizazioetan izandako mugimendua:

	Euro					
	Lursailak eta Eraikinak	Instalazio Teknikoak eta Makineria	Beste Zenbait Instalazio, Tresneria eta Altzariak	Gainerako Ibilgetua	Aurrerakinak eta Martxan Direnak	Guztira
<b>05.12.31ko saldoa</b>						
Kostua	143.453.872	140.753.184	10.345.775	14.581.438	—	309.134.269
Amortizazio metatua	(47.063.155)	(98.727.609)	(6.630.999)	(10.303.813)	—	(162.725.576)
<b>Garbia</b>	<b>96.390.717</b>	<b>42.025.575</b>	<b>3.714.776</b>	<b>4.277.625</b>	<b>—</b>	<b>146.408.693</b>
<b>Merkatu-kostua edo -balioa-</b>						
Baterakuntza-eremura sartutakoak (2.f oharra) (*)	—	20.640	—	3.687	2.528.361	2.552.688
Sarrerak (*)	4.780.149	13.652.083	626.216	1.253.967	60.585	20.373.000
Irteerak, Bajak edo Murriztapenak (*)	(737.783)	(9.635.961)	(88.245)	(168.777)	—	(10.630.766)
<b>06.12.31ko saldoa</b>	<b>147.496.238</b>	<b>144.789.946</b>	<b>10.883.746</b>	<b>15.670.315</b>	<b>2.588.946</b>	<b>321.429.191</b>
Baterakuntza-eremura sartutakoak (2.f oharra) (*)	290.000	—	13.043	4.486	—	307.529
Sarrerak (*)	6.442.276	19.597.298	1.068.023	1.433.627	2.781.362	31.322.586
Eskualdatzeak	4.012.848	(1.087.637)	79.122	59.550	(4.034.111)	(970.228)
Irteerak, Bajak edo Murriztapenak (*)	(466.745)	(256.754)	(2.423.968)	(206.961)	(4.974)	(3.359.402)
<b>07.12.31ko saldoa</b>	<b>157.774.617</b>	<b>163.042.853</b>	<b>9.619.966</b>	<b>16.961.017</b>	<b>1.331.223</b>	<b>348.729.676</b>
<b>Amortizazio metatua</b>						
Sarrerak edo zuzkidurak (*)	(2.649.161)	(8.103.848)	(713.230)	(1.552.259)	—	(13.018.498)
Irteerak, Bajak edo Murriztapenak (*)	166.466	9.558.567	77.404	122.020	—	9.924.457
<b>Amortizazio metatuaren saldoa, 06.12.31n</b>	<b>(49.545.850)</b>	<b>(97.272.890)</b>	<b>(7.266.825)</b>	<b>(11.734.052)</b>	<b>—</b>	<b>(165.819.617)</b>
Baterakuntza-eremura sartutakoak (2.f oharra) (*) (10.207)	—	—	—	—	—	(10.207)
Sarrerak edo zuzkidurak (*)	(3.549.675)	(8.762.908)	(733.219)	(1.458.588)	—	(14.504.390)
Eskualdatzeak	(48.764)	911.699	(19.329)	21.306	—	864.912
Irteerak, Bajak edo Murriztapenak (*)	—	417.522	2.082.747	162.354	—	2.662.623
<b>Amortizazio metatuaren saldoa, 07.12.31n</b>	<b>(53.154.496)</b>	<b>(104.706.577)</b>	<b>(5.936.626)</b>	<b>(13.008.980)</b>	<b>—</b>	<b>(176.806.679)</b>
<b>Garbia, 06.12.31n</b>	<b>97.950.388</b>	<b>47.517.056</b>	<b>3.616.921</b>	<b>3.936.263</b>	<b>2.588.946</b>	<b>155.609.574</b>
<b>Garbia, 07.12.31n</b>	<b>104.620.121</b>	<b>58.336.276</b>	<b>3.683.340</b>	<b>3.952.037</b>	<b>1.331.223</b>	<b>171.922.997</b>

(\*) Kanbio-tasa bihurtzeagatik eragina barne hartzen du.

2007ko eta 2006ko ekitaldietan, Taldeak bere lantegietan inbertsioak egin ditu, produkzio-ahalmena handitzeko.

2007ko eta 2006eko ekitaldian, bere ibilgetuaren azterketa zorrotza egin du Taldeak, eta 2.657 mila eta 6.236 mila euroko balioa (kostu gordina) elementuei (erabat amortizatuak eta erabileraz kanpo zeudenak) baja eman die.

2007ko ekitaldian eta aurrekoetan erregistratutako urteko amortizazio-zuzkiduretan 11/1996 Foru Arauaren eta 13/1991 Foru Dekretuaren arabera egindako ibilgetu-eguneratzeen eragina 275 mila eta 4.103 mila eurokoa da, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren.

2007ko eta 2006ko abenduaren 31n, 10.185 mila eta 6.783 mila euro inguruko inbertsio-erosketen konpromiso irmoak zituen Taldeak.

Sozietate bateratuek ibilgetuko elementuak behar bezala estaltzeko aseguru-polizak kontratatzeko irizpideari jarraitzen diote. 2007ko eta 2006ko abenduaren 31n, aseguru-polizek egun horretan ibilgetuak zuen kontabilitate-balio garbia estaltzen zuten.

Erabat amortizatuta dauden eta oraindik erabiltzen diren aktiboen kostu gordina 123.776 eta 118.543 mila euro ingurukoa zen 2007ko eta 2006ko abenduaren 31n.

Aktiboaren kontabilitate-baliotik kendu du Taldeak hura erosteko jasotako diru-laguntzen zenbatekoa. Jasotako diru-laguntzetatik ordaintzeko dagoen zenbateko garbia 4.979 mila eurokoa zen 2007ko abenduaren 31n (4.557 mila eurokoa 2006ko abenduaren 31n). 2007ko emaitzetara eramandako zenbatekoa 1.496 mila eurokoa da (2006an, 965 mila eurokoa) eta honekin batera doakizuen galdu-irabazien kontuko 'Amortizazio-zuzkidurak' epigrafean dago erregistratuta.

#### Hondamenak eragindako galerak

Taldeko administratzaileen ustez, 2007ko abenduaren 31n ez zegoen Taldeko aktiboen hondamen-aztarnarik. Hori dela eta, ez da inongo saneamendurik egin data horretara arte (2006ko abenduaren 31n ere ez zegoen aktiboen hondamen-aztarnarik).

## 9. Partaidetza-sistemaren bidez kontabilizatutako inbertsioak eta finantza-aktibo ez-korronteak

Hona hemen 2007ko abenduaren 31n eta 2006ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietan 'Partaidetza-sistemaren bidez kontabilizatutako inbertsioak' eta 'Finantza-aktibo ez-korronteak' epigrafeko kontuetan izandako mugimendua:

	Euro											
	Inbertsioak Enpresa Elkartuetan		Balore-Zorroa			Beste Zenbait Finantza Inbertsio		Finantza-Tresnak (17. Oharra)		Kobratu Heharreko Maileguak eta Kontuak		Guztira
	Kostua	Kostu Amortizatua	Hornidura	Kostu Amortizatua	Hornidura	Merkatu-Balioa	Kostu Amortizatua	Hornidura				
<b>05.12.31ko saldoa</b>	<b>728.812</b>	<b>11.661.425</b>	<b>(709.705)</b>	<b>16.232.865</b>	<b>(5.029.113)</b>	<b>(1.390.035)</b>	<b>9.190.926</b>	<b>(2.251.594)</b>	<b>28.433.581</b>			
Baterakuntza-eremura												
sartutakoak (2.f oharra) (*)	—	3.180.560	—	—	—	—	—	—	3.180.560			
Sarrerak edo zuzkidurak (*)	106.226	—	(11.600)	448.614	(2.794.000)	—	13.164.006	—	10.913.246			
Irteerak, Bajak edo Murriztapenak (*)	—	—	—	—	602.797	—	(6.855.426)	44.586	(6.208.043)			
Intsuldaketak eta kitapenak	—	—	—	(2.631.319)	—	1.390.035	111.549	—	(1.129.735)			
<b>06.12.31ko saldoa</b>	<b>835.038</b>	<b>14.841.985</b>	<b>(721.305)</b>	<b>14.050.160</b>	<b>(7.220.316)</b>	<b>—</b>	<b>15.611.055</b>	<b>(2.207.008)</b>	<b>35.189.609</b>			
Baterakuntza-eremura												
sartutakoak (2.f oharra) (*)	1.050.000	3.110.072	—	—	—	—	—	—	4.160.072			
Sarrerak edo zuzkidurak (*)	179.407	—	—	717.500	—	368.147	7.683.093	(168.883)	8.779.264			
Irteerak, Bajak edo Murriztapenak (*)	—	—	—	—	—	—	(9.133.517)	—	(9.133.517)			
Intsuldaketak eta kitapenak	—	—	—	(3.063.086)	1.954.474	—	—	—	(1.108.612)			
<b>07.12.31ko saldoa</b>	<b>2.064.445</b>	<b>17.952.057</b>	<b>(721.305)</b>	<b>11.704.574</b>	<b>(5.265.842)</b>	<b>368.147</b>	<b>14.160.631</b>	<b>(2.375.891)</b>	<b>37.886.816</b>			

(\*) Kanbio-tasa bihurtzetatik eragina barne hartzen du.

### a) Partaidetza enpresa elkartuetan

Hona hemen (eurotan) enpresa elkartuetan dugun partaidetzari buruzko informazio aipagarria (partaidetza-metodoaren bidez bateratu dira):

Izena	Enpresaren Helbidea	Jarduera eta Helburu Soziala	Kapitalaren Zatia Zeharkakoa	Inbertsioak Enpresa Elkartuetan	Oinarrizko Kapitala	Finantza-Datuak (1) Erreserbak eta Metatutako Emaitzak	2007ko Emaitzak	Negoio-Zifra	Ikuskaria
Compañía de Vagones del Sur, S.A.	Jaén (Espainia)	Karga-bagoien fabrikazioa	— % 35 (2)	1.050.467	3.010.000	—	1.335	—	Ez da nahitaezkoa
Sab Ibérica, S.A.	Madrid (Espainia)	Tren-balazten ekipoen salmenta	% 24,5	536.988	84.140	839.436	1.268.212	13.657.108	Deloitte
Lander Simulation and Training Solutions, S.A.	Gipuzkoa (Espainia)	Simulagailuak aztertzea eta egitea	— % 40 (3)	378.980	150.250	609.175	188.026	1.611.746	SM Auditores
Asirys Vision Technologies, S.A.	Gipuzkoa (Espainia)	Fabrikazio-sistema automatikoen ikerketa eta fabrikazioa	— % 26 (3)	98.010	209.090	165.258	2.610	279.600	SM Auditores

(1) (2) Baterakuntzako doikuntzak eta homogeneizatzek egin ondoren (eurotan).

(2) CAF Santana, S.A.ren bidez.

(3) CAF I+D, S.L.ren bidez.

	Euro	
	2007	2006
Hasierako saldoa	835.038	728.812
Sozietateen mozkinak	412.570	106.226
Dibidenduak	(233.163)	—
Eremu-aldaketa	1.050.000	—
<b>Amaierako saldoa</b>	<b>2.064.445</b>	<b>835.038</b>

### b) Balore-zorro ez-korrontea

Epigrafe honetan sartzen dira Alquiler de Trenes A.I.E.; Metro de Sevilla, Sociedad Concesionaria de la Junta de Andalucía, S.A., Arrendadora de Equipamientos Ferroviarios, S.A, Dano-Rail, S.Coop, Ferromovil 3000, S.L., Alquiler de Metros A.I.E. eta Plan Azul 07, S.L. sozietateetan ditugun partaidetzak (%5, %7,6, %15, %20, %10, %5 eta %5,2koa, hurrenez hurren), zuzenekoak eta zeharkakoak, guztiak ere saltzeko prest dauden aktibotzat definituak.

2004ko otsailaren 16an Metro de Sevilla, Sociedad Concesionaria de la Junta de Andalucía, S.A.k eta banku-erakunde batek sinatu zuten finantziario-kontratu baten ondorioz, 2007ko abenduaren 31n akzio horiek pignoratuta daude.

2006ko ekitaldian, hirugarren bati erosi zaio Ferromovil 3000, S.L. sozietatearen %10, 3.180 mila euroren truke. Trenbideetako ibilgailuak erosi eta merkaturatzea da, batik bat, sozietate horren helburu soziala. 2007ko abenduaren 31n, 333 mila euro zeuden ordaintzeko. 2007ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuko 'Beste pasibo korronte batzuk' epigrafean dago erregistratuta zenbateko hori.



2005eko ekitaldian sortu zen "Trenes en Arrendamiento, A.I.E." sozietatea, 10.000 mila euroko kapital sozialarekin. CAF, S.A.rena da sozietate berriaren %95, eta Inversiones en Concesiones Ferroviarias, S.A.rena %5. Gerora, sozietate anonimo bihurtu zen sozietate hori, eta "Arrendadora de Equipamientos Ferroviarios, S.A." izena hartu zuen. Hirugarren bati laga zitzaion (kontabilitate-irabazi eta galerarik gabe) akzioen %85 eta haiei dagozkien boto-eskubideak (lehen, %80 CAF, S.A.rena, eta %5 Inversiones en Concesiones Ferroviarias, S.A.rena). Ondoren, ekitaldian, 2.000 mila euroko kapital-handitzea egin zen. Bakoitzak zeukan kapital sozialaren arabera hartu zuten parte akziodunek kapital-handitzean. Taldeak egiten dituen ibilgailuak hirugarren bati eragiketa-aloairuan lagatzea da sozietate horren jarduera. 2006ko abenduaren 31n, 1.065 mila euro zeuden ordaintzeko, zeintzuk 2007ko ekitaldian ordaindu diren.

Bestalde, 2007ko ekitaldian, Sozietate nagusiak, Inversiones en Concesiones Ferroviarias, S.A. mendeko sozietatearen bitartez, Metro de Sevilla, Sociedad Concesionaria de la Junta de Andalucía, S.A. sozietatearen 1.449 mila euroko kapital-handitze batean parte hartu zuen, lehendik zeukan portzentaje bera (%7,6) eskuratu eta ordaindu zuelarik.

Halaber, 2007ko ekitaldian, Taldeak, Inversiones en Concesiones Ferroviarias, S.A. mendeko sozietatearen bitartez, Plan Azul 07, S.A. sozietate berriko %5,2ko partaidetza erosi zuen, haren kapitalari %5,2ko ekarpena eginda. Primarekin, 1.381 mila eurotakoa izan zen ekarpena. Oso-osorik ordainduta zegoen zenbateko hori 2007ko abenduaren 31n.

Erosketa-kostuan baloratu ziren inbertsio guztiak, ezin izan baikenuen era fidagarrian neurtu haien merkatu-balioa (3.d oharra).

### **c) Beste zenbait finantza-inbertsio**

'Finantza-inbertsio iragankorrak' eta 'Beste finantza-inbertsio ez-korrante batzuk' epigrafean sartzen dira, besteak beste, 'Partaidetza Planean' Sozietate nagusiak dituen partaidetzak. Mugaegunera arte gorde beharreko inbertsioztat dago definituta kontu hori.

2005eko ekitaldian, Sozietate nagusiak CAFen akzioetan Partaidetza Plan bat osatzen duten 'Eskubide' batzuetan gauzatutako aktibo bat erosi zuen, 14.273 mila euroren truke, eta epigrafe honetan erregistratu zuen. 'Eskubide' horiek Cartera Social, S.A.ri erosi zaizkio (14. oharra). Planeko partaide diren CAFeko langile guztiak hartzen dute parte sozietate horretan, eta 8 langilek edo langile ohik egiten dute haien ordezkari fiduziariora. Helburu soziala: langile finko guztiak CAFen kapital sozialean parte hartzeko aukera erraztea. Cartera Social, S.A. da akzio horien jabe bakarra, eta dagozkion eskubide politiko eta ekonomiko guztiak oso-osorik erabili ahal ditu. Horrenbestez, CAFek ez dauka ez eskubiderik, ez obligatorik, ez arriskurik Cartera Social, S.A.k izan ditzakeen diru-irabazi edo galeren gainean. Sozietateak 'Eskubide' horiek saltzeko eta langileek erosteko konpromisoa dute, 84 hileroko berdinetan banatuta. Aipatutako akzioak Cartera Social, S.A.renak izango dira 'Eskubideak' erabili arte, eta eskubideak ezin dira erabili lan-harremana bukatu baino lehenago. Epe horretan, Cartera Social, S.A.k akzioen jabetza aipatutako eskubideak erosteko CAFek ordaindutako zenbatekoarekin finantzatuko du batez ere.

Aurrez aipatutako 'Eskubideen' erosketa-prezioa langileei saltzeagatik hobariak kenduta eta Cartera Socialen ekarpena (planak iraun bitartean eskubidearen edo dibidenduaren % batean oinarritua) kontuan hartuta salmenta-prezioa baino handiagoa izan zenez Planak, aipatutako zazpi urte horietan galerak eragingo ditu. Alabaina, CAFek konpromiso hori deusezta dezake bai Cartera Social, S.A.rekin, bai bere langileekin. Kasu horretan, CAFek erosi dituen eta langileei saldu ez dizkien 'Eskubideen' zenbatekoa proportzioan itzultzeko eskubidea izango du, hasierako kostuan, eta, ondorioz, kostu gehigarririk gabe. CAFeko administratzaileek hitzeman dute ez dutela konpromisoa bere kabuz deuseztatuko hurrengo bost urteotan, hots, plana amaitu artean.

Konpromiso horren ondorioz eta erositako eskubideen kostua berreskuratze-balio garbira egokitzeko, 2007ko abenduaren 31n, Sozietate nagusiak 6.620 mila euroko hornidura zuen erregistratua. 2007ko abenduaren 31n, urtebeteko epean saltzea aurreikusten den aktibo horren parte, dagokion hornidurarekin batera, egoera-balantze bateratuko 'Finantza-inbertsio iragankorrak' epigrafean erregistratu da (13. oharra). 2007ko ekitaldian saldutako

eskubideen kostu eta zuzkidura-balioa 2.637 mila eta 1.079 mila eurokoa izan da, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren (2006ko ekitaldian, 2.631 mila eta 603 mila euro, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren) (13. oharra).

2007ko ekitaldiaren amaieran, Sozietate nagusiko administratzaileek erabaki zuten plan berri bat eratzea, aurretik egindakoen baldintza antzekoetan, eta hurrengo zazpi urteetan bere kabuz ez deuseztatzea. 171.747 eskubide ditu plan berri horrek. Taldeari 26.841 mila euroko kostua ekarri dio planak, langileen ekarpena eta Cartera Socialena (uko egite eskubideen ordainketa bidez) deskontatu eta gero, eta honekin batera doazkizuen egoera-balantze bateratuko eta galera eta irabazi-kontuko 'Beste ustiapen-gastu batzuk' eta 'Pasibo ez-korrontea. Epe luzeko beste finantza-pasibo batzuk' epigrafeetan daude erregistratuta, haietan kargatu eta abonatzeko. 2008ko urtarrilaren 4an, Cartera Social, S.A.k Sozietate nagusiko 171.747 akzio erosi zituen, hots, kapital sozialaren %5,01, lehen aipatutako eskubideekin.

#### d) Finantza-tresnak

Epigrafe honetan sartzen da epe luzeko mugaeguneko truke-tasa duten aseguru-kontratuen merkatuko balioa (17. oharra).

#### e) Maileguak eta kobratu beharreko kontuak

Epigrafe honetan sartzen ditu CAF Taldeak zerga-kreditu aktibatu gisara administrazio publikoei kobratzeko dituen kontuak (3.m eta 19. oharrek), eta epe luzerako beste zerga batzuk (zordunak eta epe luzerako fidantzak, batez ere). Kostu amortizatuan erregistratzen dira kobratzeko dauden kontu horiek. Aktibo horien arazoizko balioa bat dator, oro har, bere balio amortizatuarekin.

## 10. Saldoak eta eragiketak erlaziodun alderdiekin

Hona hemen sozietate elkartuekin eta bateratze-prozesuan ezabatu gabeko eta erlaziodun alderdi diren beste batzuekin egindako transakzioak (2.f oharra):

Sozietatea	Euro					
	2007			2006		
	Egindako Zerbitzuak edo Salmentak	Jasotako Zerbitzuak edo Erosketa	Jasotako Dibidenduak	Egindako Zerbitzuak edo Salmentak	Jasotako Zerbitzuak edo Erosketak	Jasotako Dibidenduak
Sab Ibérica, S.A.	42.141	7.455.284	233.163	104.547	4.640.873	224.763
CAF I+D azpitaldea	—	—	—	—	83.578	—
Alquiler de Trenes A.I.E.	—	—	—	92.305.675	—	—
Metro de Sevilla, Sociedad Concesionaria de la Junta de Andalucía, S.A	4.038.650	—	—	12.092.018	—	—

Eragiketa horien, aurreko urteetan egindakoen eta emandako aurrerakinen emaitza gisa, 2007ko eta 2006ko abenduaren 31n integrazio osoz bateratu ez diren partaidetzako enpresekin saldo hauek zituen Taldeak (2.f oharra):

Sozietatea	Euro			
	07.12.31		06.12.31	
	Kobratzeko Kontuak	Ordaintzeko Kontuak	Kobratzeko Kontuak	Ordaintzeko Kontuak
Sab Ibérica, S.A.	13.741	635.477	360.144	687.114
CAF I+D azpitaldea	—	176.106	—	83.578
Metro de Sevilla, Sociedad Concesionaria de la Junta de Andalucía, S.A.	—	—	629.317	—
Alquiler de Trenes, A.I.E.	—	—	889.372	—
Beste zenbait	(44.901)	327.887	—	169.187
	<b>(31.160)</b>	<b>1.139.470</b>	<b>1.878.833</b>	<b>939.879</b>

## 11. Izakinak eta eraikuntza-kontratuak

Hona hemen 2007ko eta 2006ko abenduaren 31n zeuden izakinak:

	Euro	
	07.12.31	06.12.31
Lehengaiak eta beste hornikuntza batzuk (21. oharra)	95.546.914	65.493.867
Bideango produktuak, bukatuak eta erdibukatuak (3. oharra)	620.016.587	424.155.360
Bideango produktuak eta lanak, likidatutako kostuak egindako kostuak baino handiagoak ez dituztenak	(724.888.423)	(458.252.504)
Hornitzaileei egindako aurrerapenak	28.254.377	19.496.458
	<b>18.929.455</b>	<b>50.893.181</b>

'Bideango produktuak eta lanak, zeinetan likidatutako kostuak egindako kostuak baino handiagoak ez diren' kostuen likidazioari dagozkie, hornidurak barne, egindako aurrerapen-mailaren arabera (3.f eta 12 oharra).

'Bideango produktuak, bukatuak eta erdibukatuak' saileko kontabilitate-balioetik kendu du Taldeak hura erosteko diru-laguntzen zenbatekoa. Jasotako diru-laguntzetatik ordaintzeko dagoen zenbateko garbia 3.776 mila eta 3.369 mila eurokoa zen 2007ko abenduaren 31n (15. oharra) eta 2006ko abenduaren 31n, hurrenez hurren. Kapital eta ustiapen diru-laguntzen emaitzetara igorritako zenbatekoa 2.216 mila eta 1.672 mila eurokoa izan zen, hurrenez hurren, 2007ko eta 2006ko ekitaldietan, eta erantsitako galera-irabazi kontu bateratuko 'Produktu bukatuen eta fabrikazio-bidean dauden izakin-aldaketa' epigrafean dago erregistratuta.

'Tregintza' segmentuan dago banakatuta (segmentazioko 6. oharra) CAF Taldearen eraikuntza-kontratuei buruzko informazioa. Segmentu horretako salmenta-zifren %95,67 dagozkie eraikuntza-kontratuei.

2007ko abenduaren 31n, 791.397 mila euro inguruko lehengai-erosketen konpromiso irmoak zituen Taldeak (26. oharra) (2006ko abenduaren 31n, 684.821 mila euro).

Sozietate bateratuek, izakinak behar bezala estaltzeko, aseguru-polizak kontratatuzko irizpideari jarraitzen diote. 2007ko eta 2006ko abenduaren 31n, egun horretan izakinek zuten kontabilitate-balio garbia estaltzen zuten aseguru-polizek.

## 12. Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk

Honela zegoen osatuta zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontuen epigrafea 2007ko eta 2006ko abenduaren 31n:

	Euro	
	07.12.31	06.12.31
Euroguneko monetetako bezeroak	288.252.460	279.692.920
Atzerri-monetako bezeroak (3.h Oharra)	46.423.701	123.584.387
Andeatzeagatiko Hornidurak (3.d Oharra)	(272.814)	(1.153.554)
	<b>334.403.347</b>	<b>402.123.753</b>

Kobratzeko saldo horiek aurrerapen-maila onartzearen ondorioz sortu dira batik bat, 3.f oharrean azaldu dugunez. Saldo horien zati bat (%29 inguru) bezeroei fakturatu zaizkie. Eurogunekoak dira bezero gehienak (%37, 2006an). 2007ko abenduaren 31n, saldo nagusiak RENFE, Banco Español de Crédito eta Société des Transports-ekin zeuzkan Taldeak (63.708 mila, 17.438 mila eta 11.383 mila euro, hurrenez hurren). Atzerri-monetan kobratzeko kontu nagusiak Metro México eta Companhia Paulista de Trenseko obregatik jaso beharrekoak ziren, 5.328 eta 2.580 mila euro, hurrenez hurren. 2006ko abenduaren 31n, saldo nagusiak RENFE, Atac, Spa eta Il Comune Di Romarekin zeuzkan Taldeak (42.680 mila, 33.249 mila eta 13.759 mila euro, hurrenez hurren), eta, atzerriko monetan, Enterprise Metro D'Alger eta Sacramento Regional Transitoko obregatik, 30.026 mila eta 2.330 mila eurokoak, hurrenez hurren.

## 13. Aldi baterako inbertsio finantzarioak

2007ko eta 2006ko abenduaren 31n hau zen epigrafe honen zehaztapena:

	Euro	
	07.12.31	06.12.31
Eperako banku-ezarpenak	333.817.976	210.810.433
Banku gordailuak dibisatan	633.638	6.316.710
Beste zenbait gordailu (16. Oharra)	112.503.856	41.878.603
Beste zenbait	1.637	1.917
Partaidetza Planeko eskubideak (9. Oharra)	2.681.986	2.539.615
Hornidura (9. Oharra)	(1.354.154)	(478.464)
	<b>448.284.939</b>	<b>261.068.814</b>

'Beste zenbait gordailu' epigrafean erregistratutako saldoa bat dator lur azpiko trenbide-proiektuak (Proyecto del Ferrocarril Suburbano) jasotako finantziazioaren erabili gabeko saldoarekin (16. Oharra). Erabili gabeko zenbateko hori Lur Azpiko Trenbideko Fideikomiso Nagusian (Fideicomiso Maestro del Ferrocarril Suburbano) dago, esku-diru murriztu gisara, proiektu horretako inbertsioetarako bakarrik esleitzeko (7. Oharra).

## 14. Ondare garbia

### a) Sozietate nagusiaren kapital soziala

2007ko eta 2006ko abenduaren 31n, 3,01 euroko balio nominaleko 3.428.075 akzioz osatuta zegoen kapital soziala. Akzio horiek kontu-idazpen bidez ordezkaturata eta erabat harpidetuta eta ordainduta zeuden. Guztiek Burtsan kotizatzen dutelarik.

Sozietate nagusiaren kapital sozialaren %3 baino gehiago zuten sozietateak edo erakunde akziodunak hauek ziren 2007ko abenduaren 31n:

	Partaidetzaren %
Cartera Social, S.A. (Notas 9 y 13) (*)	% 24,55
Gipuzkoa Donostia Kutxa	% 11,00
Bilbao Bizkaia Kutxa	% 10,82
Bestinver Gestion, S.A., S.G.I.I.C.	% 9,96
BNP Paribas Securities Services	% 5,47
Vital Kutxa	% 3,02

(\*) Sozietate honetako akziodunak Sozietate nagusiko langileak dira edo izan dira (9. Oharra).

2007ko abenduaren 31n, 5.408 mila euroko aldeko saldoa zuen erregistratua Taldeak.

2003ko ekainaren 7an, sozietate nagusiaren Administrazio Kontseiluari 5 urteko epean, behin edo gehiagotan, kapital soziala 5.129.253 euroraino zabaltzeko –lehentasuneko harpidetza-eskubidea bermatuz– ahalmena ematea onartu zuen Akziodunen Ohizko Batzar Orokorrak. Ahalmen hori ez da orain arte erabili. Halaber, 2007ko ekainaren 2an, data horretatik aurrera hemezortzi hilabeteko epean akzio propioak erosteko ahalmena eman zion Akziodunen Ohizko Batzar Orokorrak Administrazio Kontseiluari. Urteko kontu bateratu hauek egin direnean, erosketa hori egin gabe zegoen.

### b) Jaulkipen-prima

Sozietate Anonimoen Legearen Testu Bateratuak berariaz baimentzen du jaulkipen-primaren saldoa kapitala handitzeko erabiltzea, eta ez du berariazko mugarik ezartzen saldo horren eskuragarritasunerako.

### c) Errebalorizazio-erreserba

Hau da erreserba horrek 2007 eta 2006 ekitaldietan izan duen mugimendua:

	Mila Euro				
	05.12.31	Merkatuan Duen Balioaren Aldaketa	06.12.31	Zerga-Tasa Eguneratua (18. Oharra)	07.12.31
Beste zenbait aktibo material	28.517	(42)	28.475	1.943	30.418
Lurrak					
9/1983 Legearen arabeko eguneratzea	7.954	—	7.954	—	7.954
13/1991 Foru Dekretuaren arabeko eguneratzea	11.379	—	11.379	—	11.379
11/1996 Foru Arauaren arabeko eguneratzea	8.701	—	8.701	—	8.701
	<b>56.551</b>	<b>(42)</b>	<b>56.509</b>	<b>1.943</b>	<b>58.452</b>

9/1983 Legearen eta 13/1991 Foru Dekretuaren arabeko eguneratzea

Indarrean dagoen araudiaren arabera, kontu horien saldoa erabilera librekoa da.

11/1996 Foru Arauaren arabera eguneratzea

Saldo hau kontabilitate-emaizta negatiboak ezabatzeko, kapital soziala zabaltzeko edo bana ezin daitezkeen erreserbetara eramateko erabil daiteke, aplikatu gabeko kontuaren saldoari dagokionez. Kontu horren saldoa 11/1996 Foru Arauan aurreikusi ez bezala erabiliko balitz, saldo horri dagozkion zergak ordaindu egin beharko liriteke.

**d) Legezko erreserba**

Sozietate Anonimoen Legearen Testu Bateratuaren arabera, ekitaldiko mozkinaren %10 eraman behar da legezko erreserbetara, horiek kapital sozialaren %20 izan arte. Legezko erreserba, jadanik gehitua izan den kapitalaren %10a gainditzen duen saldoaren proportzio berean, kapitala handitzeko erabili daiteke. Aipatutako helburu horretarako izan ezik eta kapital sozialaren %20 gainditzen ez duen bitartean, erreserba hori galerak ezabatzeko bakarrik erabili ahal izango da, eta betiere horretarako erabil daitezkeen behar adinako beste erreserbarik ez badago.

**e) Integrazio osoz eta parte hartzearen bidez bateratutako sozietateetako erreserbak eta emaitzak**

2007ko eta 2006ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuko atal honetako erreserbei eta 2007ko eta 2006ko emaitza bateratuari egindako ekarpena kontuan izanik, hau da sozietate horien zehaztasuna:

	Euro			
	2007		2006	
	Erreserbak	Emaitzak	Erreserbak	Emaitzak
CAF, S.A.	129.759.698	81.504.610	99.997.462	32.500.817
Trenes de Navarra, S.A.U.	(127.588)	18.045	—	(107.173)
Construcciones Ferroviarias de Madrid, S.L.	(649.136)	69.083	(35.951)	(399.061)
Construcciones Ferroviarias CAF-Santana, S.A.	(206.609)	142.066	(241.980)	50.196
CAF USA, Inc.	1.237.976	625.838	792.958	436.857
CAF México, S.A. de C.V.	2.644.211	(93.553)	2.400.239	157.975
CAF Brasil Ind. e C., S.A.	(329.723)	1.166.188	897.980	672.699
CAF Argentina, S.A.	280.921	279.193	108.370	268.985
CAF Irlanda, Ltda.	300.365	157.794	142.455	157.911
CAF Italia, S.R.L.	24.136	97.814	(4.384)	19.303
CAF I+D azpitaldea	1.528.747	2.753.587	1.032.980	479.165
Sermanfer Azpitaldea	785.391	424.692	465.612	319.780
Inversiones en Concesiones Ferroviarias, S.A.	30.269	1.365.558	215.915	(1.543)
Urbanización Parque Romareda, S.A.U.	65.478	3.884	53.570	11.908
Ferrocarriles Suburbanos, S.A. de C.V.	554.671	(1.371.927)	(123.751)	31.096
Constructora de Sistemas Ferroviarios, S.L.	58.695	6.687	(9.262)	68.382
Constructora Mex. del Fer. Sub., S.A. de C.V.	(262.211)	125.252	—	(250.405)
Nuevas Estrategias de Mantenimiento, S.L.	—	161.337	—	—
Lets Ingenieros, S.L.	—	(1.402)	—	—
Actren, S.A.	—	(49.715)	—	—
Centro Ensayos y Análisis Cetest, S.L.	—	(8.158)	—	—
Ibaia Energia, S.L.	—	6.861	—	—
Bizkaia Ferroviaria, S.L.	—	(32.840)	—	—
Sempere Componentes, S.L.	—	(28.885)	—	—
Desarrollo Software Miramon 4, S.L.	—	(6.589)	—	—
Sab Ibérica, S.A.	374.611	310.712	366.213	221.806
	<b>136.069.902</b>	<b>87.626.132</b>	<b>106.058.426</b>	<b>34.638.698</b>



#### f) Erreserba mugatuak eta erabilezinak

2007ko eta 2006ko abenduaren 31n, 41.06 mila eta 39.371 mila euroko erreserbak zeuden, hurrenez hurren eta gutxi gorabehera, bateratutako Sozietateen banakako urteko kontuetan. Erreserba hauek, legezko erreserbei, balantzeak eguneratzeagatiko erreserbei, kapitala amortizatzeagatiko erreserbei eta mugatu eta eskurazekin izaera duten beste batzuei dagozkie, hurrenez hurren.

2007ko abenduaren 31n, oraindik amortizatu gabeko garapen-gastuen saldoarekiko Sozietate nagusiaren erabilera libreko erreserben zenbatekoak eragiten du dibidenduak banatzeko mugarik ez egotea (7. Oharra).

#### g) Bihurtze-diferentziak

Hona hemen "Bihurketa-diferentziak" kontuaren banaketa, sozietateka, 2007ko eta 2006ko abenduaren 31n:

	Euro	
	07.12.31	06.12.31
CAF México, S.A. de C.V.	(470.972)	(127.757)
CAF Brasil Ind. e C., S.A.	1.137.964	641.904
CAF Argentina, S.A.	(332.661)	(103.896)
CAF USA, Inc.	70.471	(11.520)
CAF Irlanda, Ltda.	(36.985)	8.361
Sefemex, S.A. de C.V.	(29.335)	(15.227)
Ferrocarriles Suburbanos S.A. de C.V.	(4.021.142)	3.599.014
Constructora de Mex. del Fer. Sub, S.A. de C.V.	(231.438)	(34.152)
	<b>(3.914.098)</b>	<b>3.956.727</b>

#### h) Ondare-doikuntzak, balorazioa dela eta

Kutzako efektibo-fluxuak estaltzeko jotako deribatuen balorazioak izandako zuzenketei dagokio erreserba honetan adierazitako zenbatekoa.

#### i) Akziodun minoritarioak

Honekin batera doan Egoera Balantze Bateratuaren Pasiboko 'Ondare garbia. Interes minoritarioak' epigrafearen mugimendua eta osaera, 2007 eta 2006 ekitaldietan, hau izan da:

	Euro
2005eko abenduaren 31ko saldoa	2.658.625
Kanpoko bazkideei egotz dakiekeen mozkina	11.762
<b>2006ko abenduaren 31ko saldoa</b>	<b>2.670.387</b>
Kanpoko bazkideei egotz dakiekeen mozkina	674.493
Eremuko aldaketa (2.f Oharra)	252.844
Beste zenbait	(23.795)
<b>2007ko abenduaren 31ko saldoa</b>	<b>3.573.929</b>

## j) Kapitalaren kudeaketa

Taldeko kapital-kudeaketaren xedea da kapital-kostua optimizatzeko finantza-egitura eraikitzea, betiere finantza-egoera sendoari eutsiz. Politika horri esker, bateragarriak dira akziodunentzat balioa sortzea eta finantza-merkatuen kostu lehiakorrean jardutea, bai zorra birfinantzatzeko, bai negozio-funtsak estaltzen ez duen inbertsio-plana finantzatzeko.

CAF Taldeko administratzaileen iritziz, matrizearekiko palanka-efektuaren maila ahalik eta txikiena izatea, jarritako helburuen betetzearen adierazle da. 2007ko abenduaren 31n, zorraren zatirik handiena Mexikoko emakidari eta antzeko jardueri zegokien (3.a eta 7 oharra). Finantza-zor garbiaren zenbatekoaren eta ondare garbiaren arteko erlazioari deitzen zaio palanka-efektuaren maila:

	Mila Euro	
	07.12.31	06.12.31
Finantza-zor garbia:		
Itzuli beharreko aurrerakinak	67.919	73.017
Kreditu-erakundeekiko zorrak - Pasibo ez-korrontea (16. Oharra)	161.232	96.709
Kreditu-erakundeekiko zorrak - Pasibo korrontea (16. Oharra)	26.110	270
Finantza-inbertsio iragankorrak (2.c Oharra)	(446.957)	(259.007)
Esku-dirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide	(24.212)	(9.898)
	<b>(215.908)</b>	<b>(98.909)</b>
Ondare garbia:		
Sozietate nagusiarena	300.913	223.361
Interes minoritarioak	3.574	2.670
	<b>304.487</b>	<b>226.031</b>

## 15. Beste zenbait finantza-pasibo ez korronte

PROFIT Ikerketa eta Teknologia Sustatzeko Programaren arabera, Zientzia eta Teknologia Ministerioak zenbait diru-laguntza eman dizkio Taldeari, 2007 eta 2006 artean ikerketa eta garapeneko proiektuak egiteko. Diru-laguntza horiek benetan kobratzean erregistratzen dira edo, dagokionean, elkarrekin egingo den proiektuaren koordinatzaileak kobratzen dituenean. Laguntza hauek izan dira:

- Proiektu horien gastuen eta kostuen zati bat ordaintzeko diru-laguntzak.
- Itzuli beharreko aurrerakinak, interesik gabeko maileguetan; 3 urteko gabealdia dute hasieran, eta ondoren 10 urtekoa baino epe luzeagoan amortizatzen dira.

CENIT programaren deialdia arautzen duen CTIren 2005eko urriaren 28ko ebazpenak (2005eko azaroaren 2ko BOE), ikerkuntza industrialeko proiektu estrategiko handi eta irismen zientifiko-tekniko handiei CENIT programaren deiturapean diru-laguntzak ematea aurreikusten dela dio.

2006ko martxoaren 21ean, CDTIren Behin-behineko Ebazpen Proposamena jaso zuen Taldeak, beste enpresa batzuekin horretarako sortutako partzuergoko buru zen aldetik. Proposamenak zioenez, 9.605 mila euroko diru-laguntzak emango zaizkio –guztira– Taldeari (6.734 mila euro, CAF Taldeari) teknologia berria garatzeko 2006tik 2009ra arteko ekitaldietan. Partzuergoko enpresa bakoitzak hartzen du parte aurkeztutako proiektuaren fase guztietan, baita zentro teknologikoei egiten zaien azpikontratazioan ere. Programak irauten duen bitartean, CAF Taldeak aurreikusten du 14.451 mila euroko kostuak izango dituela, guztira. 2007ko abenduaren 31n, 8.804 mila eurokoak ziren kostuak (4.298 mila eurokoak 2006ko abenduaren 31n). 2007ko eta 2006ko abenduaren 31n, 3.276 mila eta 1.375 mila euro jaso genituen CENIT programako diru-laguntzetatik, eta 'Izakinak' epigrafetik kendu zen zenbatekoa (11. oharra).

Laguntza horiek interes-tasa eta guzti itzuli behar dira proiektu horietan aurreikusitako I+Gko inbertsioak egiten ez badira:

Mugimendu hauek izan dira 2007ko eta 2006ko ekitaldietan aipatutako programa horiek direla eta:

	<b>Euro</b>
	<b>Zientzia eta Teknologiako Ministerioa</b>
<b>05.12.31ko saldoa</b>	<b>61.637.037</b>
Gehikuntzak	1.741.928
Epe laburrerako eskualdatzeak (19. eta 20. Oharrak)	(5.132.563)
<b>06.12.31ko saldoa</b>	<b>58.246.402</b>
Gehikuntzak	2.698.720
Epe laburrerako eskualdatzeak (19. eta 20. Oharrak)	(7.766.780)
<b>07.12.31ko saldoa</b>	<b>53.178.342</b>

Epe laburrean ordaindu behar diren kontuak 19. eta 20. Oharretan xehakatu dira.

Lankidetzan egindako proiektuetan proiektuaren koordinatzailea da Zientzia eta Teknologia Ministerioaren aurrean erantzule eta berak kobratzen du laguntza osoa. Taldeak "Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk" eta "Zordun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk" kontuetan 361 mila eta 2.173 mila euro erregistratu ditu, lankidetzaproiektuetako hirugarrenei oraindik kobratu eta ordaindu ez dien zenbateko moduan (2006ko abenduaren 31n, 5.687 mila eta 20.592 mila euro, hurrenez hurren).

2007ko abenduaren 31n, epemuga hauek zeuden datozen urteetarako:

	<b>Mila Euro</b>
2009	5.948
2010	6.159
2011	6.314
2012	6.141
2013 eta beste batzuk	28.616
	<b>53.178</b>

Bestalde, 'Epe luzerako beste zenbait finantza-pasibo' epigrafean, 2007ko eta 2006ko abenduaren 31n, langileen alde legeek eta kontratuak behartutako kanpo-funtsei egin beharreko ekarpenetarako primen zuzkidurak aurkeztu zituen Taldeak (3.k Oharra), 1.551 mila eta 14.471 mila eurokoak, hurrenez hurren.

## 16. Kreditu-erakundeekiko zorrak

Honekin batera doan egoera-balantze bateratuko kontusail honen osaera hau da:

	<b>Euro</b>			
	<b>2007</b>		<b>2006</b>	
	<b>Epe Luzera</b>	<b>Epe Motzera</b>	<b>Epe Luzera</b>	<b>Epe Motzera</b>
Maileguak eta finantza-erakundeekiko kreditu-kontuak	161.231.993	26.031.044	96.709.370	243.137
Mugaeguneratzeko dauden sortutako interesak	—	78.727	—	26.873
<b>Guztira</b>	<b>161.231.993</b>	<b>26.109.771</b>	<b>96.709.370</b>	<b>270.010</b>

NKA39 aplikatuz, kreditu-erakundeekiko zorren zenbatekoak zuzenduta aurkeztu behar dira balantzean, maileguen irekiera eta formalizazioak eragindako kostuak jarrita alegia.

2006ko ekitaldian, Ferrocarriles Suburbanos, S.A. de C.V. mendeko sozietateak (7. oharra) bi mailegu sinatu zituen Banco Santander, S.A.rekin (indarrean segitzen zuten 2007ko abenduaren 31n), baldintza hauekin:

- BEZ kredituak, gehienez ere 250 milioi peso mexikarreko zenbatekoarekin, BEZ ordainketak osorik nahiz partzialki finantziatzera zuzenduak. 30 hilabeteko iraupena du kredituak, 2006ko uztailaren 24tik hasita. Interes-tasa: TIEE (Banku arteko Orekako Interes Tasa, Mexikoko Bankuak argitaratzen duena) + %1,25. 90 egun naturaleko ordaintze-epea du erabilera bakoitzak, erabilera bakoitzaren datatik zenbatzen hasita. 2007ko eta 2006 abenduaren 31n, 10.919 mila eta 8.362 mila eurokoa zen kreditu horrek erabilitako zenbatekoa (175.542 mila eta 119.114 mila peso mexikar).
- Finantziazio-kontratua, gehienez ere 217 milioi eurokoa (3.414 milioi peso mexikar), epeko truke-tasaren aplikazioagatik, alde aurretik finkatutako finantziazio-kontratuaren arabera bizkitarteko interes-tasa ordainduz. Maileguaren amortizazioa sei hilean behingo 28 kuotatan egingo da, 2008ko ekainaren 28tik aurrera. 2007ko abenduaren 31n, mailegu horretatik erabilitako zenbatekoa 175.125 mila eurokoa zen (3.139.478 mila peso mexikar).

Mendeko sozietateak Proyecto del Ferrocarril Suburbanoren (7. oharra) finantziazio-premien arabera erabiliko ditu kreditu horien baliabideak.

Kreditu horiek, banku-mailegu gehiago eskuratzeko, bermeak emateko, zergak ordaintzeagatik obligazioak jalkitzeko, aktibo finko berriak eta bestelako aktibo ez-korronteak saltzeko eta kapitalak itzultzeko, baita mendeko sozietatean finantza-ratio batzuk mantentzeko ere, mugak jartzen dituzten zenbait klausula murriztaile dituzte.

Erabili gabeko zenbatekoa Ferrocarril Suburbanoko Fideikomiso Nagusian (7. oharra) dago, eta honekin batera doakizuen egoera-balantze bateratuaren 'Finantza-inbertsio iragankorrak' epigrafeko esku-diru murriztu gisara aurkezten da (13. oharra).

Epe luzeko kreditu horiek badituzte zenbait klausula murriztaile, mugak jartzen dizkienak Sociedad Ferrocarriles Suburbanos S.A. de C.V.-ri, besteak beste, banku-mailegu gehiago eskuratzeko, bermeak emateko, zergak ordaintzeagatik obligazioak jalkitzeko, aktibo finkoak eta bestelako aktibo ez-zirkulatuak saltzeko eta kapitalak itzultzeko. Zenbait finantza-baldintza betetzeko obligazioa ere ezartzen diote; besteak beste, guztizko pasiboaren eta kapital sozialaren arteko proportzioari dagokiona. 2007ko eta 2006ko abenduaren 31n, mendeko sozietateak bete egiten zituen baldintza horiek guztiak.

Ferrocarriles Suburbanos, S.A. de C.V. mendeko sozietatearen aipatutako bi maileguak sozietateko akziodunengana jo gabe gauzatu dira ("project finance"). Eraikuntza-garaian jasandako BEZaren gainean Mexikoko ogasun publikoak egin beharreko itzultzeak ditu berme BEZ Kredituak. Kreditu hori ez da konpentsatzen jasanarazitako BEZarekin, ez baitago horrelakorik aipatutako epean. 217 milioi euroen finantziazioak berme hau du: zorra zerbitzatzeko funts kontingente bat, 124 milioi USA dolarrekoa, Mexikoko FINFRA funts federalak esku-dirutan ordaindua Ferrocarriles Suburbanos, S.A. de C.V.ren diruzaintza orokorra kontrolatzen duen fideikomisoan.

Hona hemen finantziazio honen kontratuan eta BEZ kredituetan aurreikusitako amortizazioak:

	<b>Mila Euro</b>
2009	15.171
2010	15.171
2011	15.171
2012	15.171
Hurrengoak	99.270
	<b>159.954</b>

Aipatutako finantziazioaz gain, 2007ko abenduaren 31n, sozietate bateratuek hainbat kreditu-linea zituzten, zenbait finantza-erakundek emanak, eurotan gehienbat. Merkatuko interes-tasak sortzen dituzte kreditu horiek, gehienbat EURIBORa + merkatuko diferentzia bat, 175.505 mila eurotarainokoa. Aipatutako datan, ez da zenbateko aipagarririk erabili kreditu horietatik (179.005 mila euro zeuden 2006ko abenduaren 31n).

## 17. Finantza-tresna deribatuak

Finantza-tresna deribatuak erabiltzen ditu CAF taldeak bere etorkizuneko jarduerak, eragiketek eta efektibo-fluxuek jasaten duten arriskuez babesteko, truke-tasaren gorabeheraz, batik bat (3.d Oharra). Truke-tasarekiko babes moduan erabiltzen ditu CAF taldeak deribatuak, haien aldaketek etorkizuneko kutxa-fluxuetan ukan lezaketen ondorio negatiboa leuntzeko, sozietate bakoitzak erabili ohi duen moneta ez den beste batean salerosketa eta maileguak egiten direnean.

Hona hemen 2007ko eta 2006ko abenduaren 31n bateratutako egoera-balantzean zeuden deribatuen (arrazoizko balioko estaldurakoak, gehienbat) balorazio-saldo garbien osaera:

	<b>Epemuga (Dibisatan)</b>		
	<b>2008</b>	<b>2009</b>	<b>2010 eta Ondorengoak</b>
<b>07.12.31ko Salmenta-Eratorriak</b>			
<b>Estaldurak:</b>			
Truke-aseguruak: dolarrak	154.609.950	112.062.000	—
Truke-aseguruak: libra esterlinak	26.994.834	22.963.594	10.834.105
Truke-aseguruak: yenak	10.947.549.939	3.449.228.064	—
Truke-aseguruak: euroak	29.329.681	—	—
Truke-aseguruak: suitzar frankoak	—	—	—
Truke-aseguruak: beste zenbait dibisa	182.318	112.062.000	—
<b>Epemuga (Dibisatan)</b>			
	<b>2008</b>	<b>2009</b>	<b>2010 eta Ondorengoak</b>
<b>07.12.31ko Erosketa-Eratorriak</b>			
<b>Estaldurak:</b>			
Truke-aseguruak: dolarrak	(54.593.072)	(76.861.784)	—
Truke-aseguruak: libra esterlinak	(669.382)	—	—
Truke-aseguruak: yenak	(2.028.882.240)	(450.000.000)	—
Truke-aseguruak: euroak	(37.955.969)	(18.240.358)	—
Truke-aseguruak: suitzar frankoak	(5.521)	—	—
Truke-aseguruak: beste zenbait dibisa	—	—	—
<b>Balorazioa 07.12.31</b>			
<b>Estaldurak:</b>			
Truke-aseguruak: dolarrak	2.550.036		
Truke-aseguruak: libra esterlinak	144.584		
Truke-aseguruak: yenak	(3.857.861)		
Truke-aseguruak: yenak	404.686		
Truke-aseguruak: suitzar frankoak	(140.103)		
Truke-aseguruak: beste zenbait dibisa	2.239		
	<b>(896.419)</b>		

	06.12.31(Euro)	Epemuga (Dibisatan) (*)		
	Korrontea	2007	2008	2009 eta Ondorengoak
<b>Estaldurak:</b>				
Truke-aseguruak: dolarrak	7.437.839	147.220.713	7.279.808	—
Truke-aseguruak: libra esterlinak	276.109	1.833.397	—	—
Truke-aseguruak: yenak	(4.463.962)	8.305.352.000	5.033.123.939	3.449.228.064
Truke-aseguruak: euroak	(70.385)	2.122.849	2.274.593	—
Truke-aseguruak: suitzar frankoak	(343.927)	(1.431.591)	—	—
Truke-aseguruak: peso mexikarrak	36.487	(141.885.976)	—	—
Truke-aseguruak: beste zenbait dibisa	15.914	—	—	—
	<b>2.888.075</b>			

(\*) Dibisa erosteko truke-aseguru garbiak hartzekodun saldoz adierazi dira.

2007ko ekitaldian, 2 mila euro inguru ordaindu zituen CAF Taldeak galera eta irabazi-kontu bateratuan (2006ko ekitaldian, 63 mila euro) egindako estaldura-eragiketen eraginkortasun ezagatik.

## 18. Zerga geroratuak

2007ko abenduaren 31n, azken lau ekitaldiak zeuden ikuskatzeko irekita, CAF taldea osatzen duten sozietateen jardueri dagozkien zerga nagusietarako. 2007 ekitaldian Taldeari ez zaio egiaztatze edo ikuskaritza-eragiketarik egin.

Sozietate nagusiak Estatuko Administrazioari eta Gipuzkoako eta Bizkaiko Aldundiei ordaintzen dizkie zergak, lurralde bakoitzean egindako eragiketa-bolumenaren arabera. Dena den, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga-araudia aplikatzea dagokio eta, beraz, 2007ko ekitaldian Sozietateen gaineko Zergan aplikatutako zerga-tasa %28koa da.

